

**Etxabakoitzcon**)<sub>(vive</sub>  
**Etxabakoitzenelkar**)<sub>(bizi</sub>

# ELKARBIZITZARI BURUZKO DIAGNOSIA ETXABAKOITZEN

**Rubén Lasheras Ruiz**  
**Izaskun Andueza Imirizaldu**



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

**Etxabakoitzcon**)<sub>(vive</sub>  
**Etxabakoitzenelkar**)<sub>(bizi</sub>

**upna**

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



### **Izenburua**

Elkarbizitzari buruzko diagnosia Etxabakoitzen

### **Egileak**

Rubén Lasheras Ruiz  
Izaskun Andueza Imirizaldu

### **Argitaratzea eta finantzaketa**

Iruñeko Udala

### **Diseinua eta maketazioa**

Rubén Lasheras Ruiz

### **Itzulpena**

ELHUYAR  
Zelai Haundi, 3 Osinalde industrialdea  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

### **Inprimatzea**

EUROLAN  
Nafarroa etorbidea 3  
31012 Iruña (Nafarroa)

### **Lege-gordailua**

NA 375-2018

### **ISBN**

978-84-95930-84-2



*Etxabakoitz auzora, elkarbizitzarako bidean*



# aurkibidea

---

<b>aurkezpena</b> ) (elkarbizitzari buruzko diagnosia Etxabakoitzen .....	<b>11</b>
<b>testuingurua</b> ) (Etxabakoitzen sorreratik orainera .....	<b>13</b>
<i>Etxebakoiztik</i> Etxabakoitzera: auzoaren hazkunde demografikoa .....	13
Toki-espazioa: auzoa eguneroko harremanen agertoki gisa .....	19
Aniztasuna eta haustura soziala: mehatxua herritartasunarentzat.....	19
Krisi ekonomikoa eta migrazio-zikloaren fase berria.....	21
Kohesio sozialaren bultzada.....	23
<b>oinarriak</b> ) (aniztasuna eta elkarbizitza eguneroko espazio sozialean .....	<b>25</b>
Elkarbizitza, koexistentzia eta etsaitasuna: alderdi nagusiak .....	25
Izaera dinamikoa eta eraldatzailea: aldaketarako proposamena.....	27
<b>helburuak</b> ) (ikerketa eta ekintza bateratuz .....	<b>28</b>

## **metodoa)**(prozesu parte-hartzailea ..... 29

Iturriak, teknikak eta prozesuaren dinamika .....	29
Garapen metodologikoa: espazioak eta tresnak .....	31
Proiektuaren aurkezpena.....	31
Talde teknikoa.....	32
Behaketa .....	33
Eztabaida-taldeak.....	33
Inkesta.....	39
AMIA dinamika.....	42
Nerabe-taldea .....	43
Talde irekia.....	44
Emaizak aurreratzea Iruñeko Udaleko Gobernu Taldeari .....	46
Emaizak aurreratzea auzoko erakundeei .....	46
Diagnosiaren emaitzen aurkezpen publikoa.....	47
Behin betiko txostena egitea eta berrikustea.....	50
Ordezkaritza-espektra eta partaidetza-datuak.....	50

## **emaitzak)**(soziabilitate-egoera intentsuen aldiberekotasuna ..... 52

Kanpoaldeko auzoa, historikoki abandonatua.....	52
Harrera-auzoa eta aniztasuna .....	63
Langile-auzoa... obretako langileena.....	75
“Igarobideko” auzoa eta etxebizitzaren egoera.....	78
Barne-zatikitzea.....	83
Etorkizuneko mehatxuak .....	88
Soziabilitate-egoera sendoen aldiberekotasuna.....	90
Elkarbiziz.....	94
Koexistitzen .....	102
Etsaitasunak .....	107
Eragina hezkuntza-arloan.....	111
Aldaketarako aukerak .....	114

## **ondorioak)**(aukera askoko auzo bat ..... 115

## **aurkibideak)**(taulak, irudiak, grafikoak eta ilustrazioak..... 119

Taulen aurkibidea.....	119
Irudien aurkibidea .....	119
Grafikoen aurkibidea.....	121
Ilustrazioen aurkibidea.....	122



**bibliografia)**(erreferentziak eta webgrafia..... 123

**eranskinak)**(material gehigarria ..... 127

1. eranskina)	(Emaitzei buruzko informazio-orria .....	127
2. eranskina)	(Galdetegia (gaztelaniaz).....	130
3. eranskina)	(Galdetegia (arabieraz).....	136
4. eranskina)	(Profilen banaketaren adibide bat .....	148
5. eranskina)	(AMIA emaitzak .....	149
6. eranskina)	(Nerabeentzako gutuna (gaztelaniaz) .....	153
7. eranskina)	(Nerabeentzako gutuna (euskaraz).....	154
8. eranskina)	(Auzoko nerabeekiko ariketaren emaitzak .....	155
9. eranskina)	(Etxabakoizko Talde Irekiaren aurkezpen-kartela.....	159
10. eranskina)	(Talde Irekian erabilitako aurkezpenaren irudiak .....	160
11. eranskina)	(Talde Irekiaren emaitzak.....	161
12. eranskina)	(Emaitzak jendaurrean aurkezteko ekitaldia iragartzeko euskarri grafikoa .	163
13. eranskina)	(Zer gustatzen zaion jendeari gehien Etxabakoitzen bizi-zeaz.....	164
14. eranskina)	(Zer gustatzen zaion jendeari gutxien Etxabakoitzen bizi-zeaz.....	167
15. eranskina)	(Oinarrizko elkarbizitza-arau eta -erregelak .....	170



## aurkezpena)(elkarbizitzari buruzko diagnosis Etxabakoitzen

Iruñeko Etxabakoitz auzoan egindako kulturarteko elkarbizitzari buruzko diagnosiaren prozesua eta emaitza nagusiak deskribatzen dira liburu honetan.

Iruñeko Udalak eta auzoan lan egiten duten agente batzuek auzoko elkarbizitzaren egoera aztertu nahi zuten, eta horren harira eskatu zen lan hau.

Hasiera batean hiru helburuk gidatu dute diagnosis:

- Jatorri eta kultura ezberdineko auzokoen arteko harremanak definitu eta aztertzea.
- Elkarbizitza hobetuko duten proposamenak jaso eta egitea.
- Auzoan lan egiten duten eta auzoan bizi diren pertsonen arteko elkarbizitzarako espazioak sortu eta mantentzea.

Helburu horiek lortzeko, zenbait ikerketako tresna eta teknika bateratzen dituen prozesu parte-hartzaile bat egin da.

Aniztasun handiko herri eta auzoetako (halako auzoa dugu Etxabakoitz) kulturarteko elkarbizitza ikertzeko eredu teoriko batean (Estatuan egiaztatua) oinarritzen da diagnosis.

### 1. irudia)(Etxabakoitz, auzoko hegoaldetik



Iturria)(Diario de Navarra

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lana Saileko Rubén Lasheras Ruiz eta Izaskun Andueza Imirizaldu irakasleek babes teknikoa eman diote diagnosiari, antzeko prozesuak egin baitituzte Nafarroako beste herri batzuetan (Lakuntza, Larraga, Faltzes, Cintruénigo eta Burlata).

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia Saileko Edurne Jabat Torresek ere parte hartu du lan honetan. Era berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasgaietako eta lankidetzabeketako ikasleak ere aritu dira lan honetan: Jorge Tapia Blázquez, Banako, Familia eta Taldeekin egiten den Esku-hartze Sozialeko Unibertsitate-masterreko ikasle gisa; Isabel Izaskun Ollo

Alcasena, Gizarte Lana Saileko lankidetzak-bekadun gisa, eta Gizarte Lana Graduak "Ikerketa, Diagnostikoa eta Ebaluazioa / Investigación, Diagnóstico y Evaluación" irakasgaiko ikasleak<sup>1</sup>.

## 2. irudia) Etxabakoitz, auzoko iparraldetik

---



Iturria) ahasociados

Eta, dokumentu honetako orrietan ikusiko denez, Etxabakoitzko biztanleen eta han lan egiten dutenen partaidetzari eta inplikazioari esker (Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Gizarte Ekintza Saila eta Auzoko Zinegotzia, Osasun Etxea, Haur-eskola eta Nikasio de Landa Ikastetxe Publikoa, Pilareko Andre Mariaren Parrokia, Etxabakoitz Bizirik Elkartea, ANAFE-CITE Fundazioa, Etxabakoitz Kultur Kirol Elkartea, Etxabakoitzko Jai-Batzordea eta Auzo-Elkartea, Jazar, Liburutegia, Etxabakoitzko auto-eta maskota-garbitegia, 43. zk.-ko estankoa eta abar) egin ahal izan da jarraian zehazten den prozesu hau.

Txosten honen helburua, hain zuzen, auzoari bere errealitatea hobeto ezagutzeko eta elkarbizitza hobetzen jarraitzeko tresna bat ematea da.

---

<sup>1</sup> Era berean, diagnosi-prozesuan aritu diren pertsonen egin eta argitaratu dituzten hiru ekarpen akademiko ere jasotzen dira lanean. Lehenik eta behin, "Urbanismo y desigualdad: El caso de Etxabakoitz en el área metropolitana de Pamplona" Vanesa Martínez Iglesiasena. Bigarrenik, "Del Topos al Atopos: la "fragilización" de los lazos sociales en espacios segregados: el caso de Etxabakoitz" Jorge Tapia Blázquezena. Eta, azkenik, "El comercio ¿impulsor de la convivencia en Etxabakoitz?" Saioa Garro Ganuzarena.

## testuingurua)(Etxabakoitzen sorreratik orainera

Etxabakoitz, auzo guztiak bezala, bere historiaren emaitza da. Auzoaren historia sakon aztertzea ez da txosten honen helburua, baina auzoaren ezaugarrien nondik-norako labur bat eman behar da, haren egungo errealitatea ulertzeko. Beharrezkoa da, halaber, testuingurua eratzen duten beste alderdi batzuk ere azaltzea, hala nola aniztasunak toki-espazioan duen garrantzia eta kohesio soziala bultzatzeko beharra gizarte-hausturaren mehatxua dela eta.

### **Etxebakoiztik Etxabakoitzera: auzoaren hazkunde demografikoa**

Etxabakoitz Iruñeko hego-mendebaldean dago, eta mendeak dira han jendea bizi dela; hala ere, toponimoaren etimologiak (etxe, eta bakoitz, hau da, "bakar") adierazten digu biztanledentsitate txikia izan zela han historian zehar. 1953ko irailaren 8an, Etxabakoitzek Zizur Zendeako kontzeju izateari utzi zion, eta Iruñeko auzo izatera igaro zen. Garai hartan, "Etxabakoitzek 500 biztanle zituen, eta eremu industrialak, laborantzako lurrak, baratzeak eta etxe baxu sakabanatu batzuk tartekatzen ziren paisaian" (Tapia, 2016: 55-56).

### 3. eta 4. irudiak)(Iruñeko anexionaren uneko argazkiak




Iturria)(Martínez Iglesias (2015)

Iruñeari anexionatu ostean, Etxabakoitzko biztanleria hazi egin zen, auzoan historikoki errepikatu izan den fenomeno baten ondorioz, hots, migrazioen ondorioz. 1960ko hamarkadatik aurrera Iruñean izan zen industrializazio- eta garapen-prozesuaren ondorioz sortu ziren migrazio-mugimendu horiek, eskulan handia behar baitzen.

Auzoak 1950 eta 1960 bitartean izan zuen hazkunde nabarmena ikusten da 1. grafikoan. Hamarkada horretan, Etxabakoitzko biztanleria laukoiztu egin zen: 555 pertsona bizi ziren han 1950ean, eta, 1960an, 2.385. Eta hurrengo hamarkadan ere hazkunde handia izan zuen auzoko biztanleriak. Izan ere, biztanleria bikoiztu egin zen: 2.385 pertsona bizi ziren han 1960an, eta, 1970ean, 4.482. Laburbilduz, auzoko biztanleria zortzi aldiz hazi zen bi hamarkadatan (1950etik 1970era). Hazkunde demografikoko hamarkada horietan, estatuko hainbat tokitatik (Andaluzia, Extremadura, Castilla, etab.) eta Nafarroako hegoaldeko landa-eremuetatik joan ziren biztanleak Etxabakoitzera. Ijito-familiak ere heldu ziren. Beraz, jatorrien eta kulturen aniztasuna errealitate historikoa da Etxabakoitzen.

## 1. grafikoa) (Etxabakoizko biztanleriaren bilakaera (1858-2017))



Iturria) (Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilia (2017ko maiatza))

Grafikoan ikusten denez, biztanleriak behera egin zuen 80ko hamarkadan eta azken hamarkada honetan. Emaitzetan azalduko dugun moduan, pertsona askorentzat Etxabakoitz aldi baterako bitoki delako gertatzen da hori, Iruñeko beste auzoren batean beste etxebizitza bat izateko aukera dutenean joaten baitira.

Bilakaera demografikoaren alderdi nabarmenenak aipatzen ari garenez, ez dugu ahaztu behar 1991 eta 2006 urteen artean izan zen biztanleria-hazkundera. Barañainekin muga egiten duen eremuan (Ipar Etxabakoitz) izan zen hirigintza-garapenaren ondorioz gertatu zen hazkundera hori. Jarraian agertzen den taulan ikusten denez, 1991 eta 2001 urteen artean mila etxebizitza berri baino gehiago eraiki ziren: 1991n 1.219 etxe zeuden, eta, 2011n, 2.453.

## 1. taula) (Etxebizitzak Iruñeko auzoetan (1991-2011))

	1991	1996	2001	2006	2011
Alde Zaharra	6.515	6.535	6.544	6.589	6.555
Zabalgunea	8.869	8.962	9.055	9.224	9.365
Ermitagaña-Mendebaldea	4.155	7.161	7.418	7.744	7.736
Donibane	8.911	8.899	8.919	8.898	8.948
Azpilagaña	3.137	3.214	3.190	3.254	3.265
Etxabakoitz	1.219	1.530	2.404	2.455	2.453
Iturrama	9.409	9.628	9.647	9.653	9.682
Milagrosa-Arrosadia	5.493	6.111	6.319	6.622	6.657
Txantrea	6.853	7.014	7.556	7.682	8.872
Arrotxapea	5.481	5.943	9.001	10.772	11.169
Buztintxuri-Euntzetxiki	405	454	418	1.792	3.581
Sanduzelai	3.044	2.983	4.284	4.655	4.989
Mendillorri	---	---	4.021	4.577	4.643
GUZTIRA	63.491	68.434	78.776	83.917	87.915

Iturria) (Díez, Urdaniz eta Zabalza (2011))

Hazkunde horrek auzoaren garapenean izan zuen garrantzia ikusten da irudi hauetan; emaitzen atalean azalduko dugunez, barne-konposizioan eragin zuen batez ere hazkundeak.


5., 6. eta 7. irudiak)(Etxabakoitz, Barañainekiko mugan



Iturria | Google Maps

Lehenago esan dugunez, azken hamarkadan, eta, bereziki, 2009. urtetik aurrera, auzoko biztanle kopurua gutxika jaitsiz joan da. Grafiko honetan argi ikusten da biztanleriaren prozesu hori.


**2. grafikoa)**(Etxabakoizko biztanleriaren bilakaera (2007-2017))



Iturria)(Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilia (2017ko maiatza))

Biztanleria-galera hori ez dagokio Iruña osoko biztanleria-jaitsierari, 3. grafikoan ikusten denez, hiriburuaren joera goranzkoa baita.

**3. grafikoa)**(Iruñeko biztanleriaren bilakaera (2007-2017))




Iturria)(Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilia (2017ko maiatza))



Etxabakoizko biztanleria erreferentziatzat hartuta (2017ko maiatzeko datuak), zenbait alderdi demografiko nabarmentzen dira, zeinak nazionalitatearen (espainiarra eta atzerritarra) araberako biztanleria-piramidea honetan ikusten baitira<sup>2</sup>.

#### 4. grafikoa)(Etxabakoizko biztanleria-piramidea (2017))




Iturria)(Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilia (2017ko maiatza))

Lehenik eta behin, adin-tarteak aztertzen baditugu, auzoa zahartuta dagoela ikusten da. Etxabakoitzen 45 urtetik 49 urterako eta 50 urtetik 54 urterako adin-taldeetako biztanleria-bolumen handia dago; nabarmenak dira, halaber, adin-tarte gazteagoarekiko (40 eta 44 urte bitartekoa) eta nagusiagoarekiko (55 eta 59 urte bitartekoa) hausturak. Joera berean, 0 eta 4 urte bitarteko adin-tarteko biztanleen guztizkoa (218), adibidez, 70 eta 74 urte bitarteko adin-tarteko biztanleen guztizkoa (221) baino txikiagoa da. Auzoko biztanleria zaharkituta dagoela erakusten du errealitate horrek.

<sup>2</sup> Testuinguru horretan, zerbait argitu behar dugu, txosten osoan aplikatzekoa. Nazionalitateak aniztasunaren zati bat bakarrik erakusten du, nazionalitate beraren baitan ere kultura eta jatorri ezberdinak izan baitaitezke. Adibidez, espainiar nazionalitatea eskuratzeko prozesuetan, lurraldeen arteko akordioak izan ezean (akordioak dituzte, adibidez, Hego Amerikako herrialdeekin, Andorrarekin, Filipinekin, Ekuatore Ginearekin, Portugalekin, sefardiekin, etab.), uko egin behar izaten zaio jatorrizko nazionalitateari. Beraz, pertsona horiek espainiar nazionalitatea eskuratu dutenean, atzerritarren datuetan egoteari uzten diote, beste herrialde batean jaio arren. Bestalde, gogoan izan behar dugu, nazionalitatea eskuratzeko prozesuez harago, nazioen baitan ere badirela “nazionalitatea” kategorian jasotzen ez diren aniztasunak. Ijito herriaren kasua dugu adibiderik argiena, baina hor sartuko lirateke estaturik gabeko nazioak ere. Adibidez, marokoar nazionalitatearen baitan saharar jatorriko pertsonak eta Rifetik datozenak ditugu, besteak beste. Horregatik, txosten honetan ahal den guztietan “jatorria” kategoria, eta, batzuetan, “pertenentzia-sentimendua” lehentasuneko analisi-formulak erabiltzen dira, auzoko errealitate anizkoitzera ahalik eta zehatzen lotze aldera.

Bigarrenik, atzerritar nazionalitatea duen eta auzoan bizi den biztanleria (urdin eta berde argiagoetan gainjarri den piramideak irudikatzen du grafikoan) aztertuz gero, biztanleria hori gazteagoa dela ikusten da. Alde batetik, 30 eta 34 urte bitarteko eta 35 eta 39 urte bitarteko adin-tarteetan du kontzentrazio handiena atzerritar nazionalitateko biztanleriak, eta Nafarroatik eta espainiar estatuko herrietatik etorritako biztanleriarekin ez da hori gertatzen. Bestalde, deigarria da 0 eta 4 urte bitarteko eta 5 eta 9 urte bitarteko atzerritar nazionalitateko haurren kopuru handia. Izan ere, bi adin-tarte horien batura ia bikoitza da atzerritar nazionalitateko haurretan (55 haur alde batetik, eta 30 haur bestetik). Nabarmentzekoa da, halaber, 0 eta 9 urte bitarteko haurren % 24,2k atzerritar nazionalitatea duela. Iruña osoko egungo biztanleriaren (2017ko maiatzeko datuak) datuak jasotzen dira jarraian datorren grafiko honetan, konparazioak egin ahal izateko. Etxabakoizko portaera-jarraibide berdinak ikusten dira hor ere. Hau da, piramidearen joera orokorra zahartze orokorra da, baina, aldi berean, atzerritar jatorriko biztanleriaren artean gazteek presentzia handiagoa dute. Ikusten denez, adin-tartearen arteko jarraitutasun handiagoa edo ezberdintasun txikiagoa da bi piramideak ezberdintzen dituen elementua.

5. grafikoa) Iruñeko biztanleria-piramidea (2017)



Iturria) Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilia (2017ko maiatza)

## Toki-espazioa: auzoa eguneroko harremanen agertoki gisa

Auzoko biztanleen sareen, historien eta eguneroko harreman sozialen agertoki naturala da auzoa. Elementu horiek pertenezia-sentimendua bultzatzen dute, kapital soziala sortzen dute, eta proiektu partekatuak sortzeko aukera ematen dute. Hots, elkarbizitzako errealitateak osatzen dituzten elementuak dira.

Azken bi hamarkadetan, aniztasuna ugaritu egin da Nafarroan, nazioarteko migrazio-fluxuen ondorioz. Eta Etxabakoitzen gauza bera gertatu da. Hain zuzen ere, tokiko agertoki horietan, gizarte-kohesioa gauzatzeko oinarritzko unitate direnez, elkarbizitza bultzatu eta hobetuko duten esku-hartzeak azter eta susta daitezke.

8. irudia)(Murala, Grupo Urdánozen ondoan



Iturria)(Martínez Iglesias (2015)

Hala ere, egin daitezkeen esku-hartzeetan ez da alde batera utzi behar elkarbizitzarako oinarritzkoa den premisa hau: espazio horietan bizi diren pertsonen herritartasunerako aukera izan behar dute. Eta, hain zuzen, hurrengo atalean azaltzen denez, baldintza hori askotan ez da betetzen.

## Aniztasuna eta haustura soziala: mehatxua herritartasunarentzat

Jatorrien aniztasunak eta aniztasun etnikoak ondorio sendoak dituzte erabateko herritartasuna lortzeko bidean. Adibidez, aniztasun horren erakusgarri diren bi kolektibotan (atzerritar jatorrikoak eta ijitoak) dugu erronka garrantzitsuenetariko bat: posizio zaurgarria izaten dute sarritan gizarte-egituran. Diru-eskasiak, izaera etniko edo migratzaileak (Goffman, 1990), alteritatearen espazioan izateak (Simmel, 1986), outsidersentzat jotzeak (Elias eta Scotson, 1994) eta beste fenomeno batzuek integrazio-prozesua oztopatzen dute, eta desberdintasunak areagotzen dituzte.

Desabantaila-egoera hori alderdi hauetan ikusten dugu, besteak beste: sarbide mugatua politikan (sufragio aktiboa nahiz pasiboa ukatzea edo oztopatzea), etxebizitzaren espazioan

(lurrean modu jarraituan bizitzeko eskakizuna), lanerako espazioan (gainerako biztanleriaren langabezia-tasak baino langabezia-tasa altuagoko kolektiboak, behin-behinekotasuna eta partzialtasuna, ekonomia ez-arautuetan sartzea, funtzionario izateko murrizketak atzeritar jatorriko pertsonentzat, etab.) eta bestelako gizarte-espazioetan.

Ondorioz, kolektibo horiek, eta, bereziki, biztanleria migratzailea, sarritan gutxiengoa izaten da “tokiko biztanleriaren ikuspuntutik” (Colectivo IOÉ, 2012: 165). Hau da, migrazio-eredua gorabehera, immigratutako biztanleek, oro har, desperekotasun-egoerak bizi ohi dituzte tradizionalki biztanleria “autoktono”tzat hartu denarekin alderatuta<sup>3</sup>.

Beraz, kolektibo migratzailearen zati handi batek zaurgarritasun-espazioetan bukatzen du, zeinak areagotu egin baitira duela gutxiko krisi ekonomikoaren eragin jarraituen ondorioz; are gehiago, kasu askotan pobrezia eta gizarte-bazterkeria bilakatu dira espazio horiek. Ondorioz, atzeritar jatorriko biztanleriaren ehuneko esanguratsu batek ongizatea aukera-berdintasunean lortzeko dituen aukerak zapuzten ari dira (Lasheras eta Zugasti, 2010).

Etxabakoizko errealitatera mugatuz gero, datuek erakusten dutenez, igoera nabarmena izan du espainiar nazionalitateko sarbideak. 2016ko erregistroen arabera (ikus jarraian agertzen den taula), Etxabakoizko biztanleriaren % 23,4 atzerrian jaioa zen, baina % 14,5ek zuen atzeritar nazionalitatea.

## 2. taula) (Nazionalitatea eta jaioterria (Etxabakoitz, 2016)

	Nazionalitatea (2016ko iraila)		Jaioterria (2016ko abuztua)	
	Espainiarra	Atzeritarra	Espainia	Atzerria
Biztanleria	4.459	754	4.010	1.228
%	84,5	14,5	66,6	23,4

Iturria) (Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilita

Atzeritar jatorriko pertsonak espainiar nazionalitatea (edo nazionalitate bikoitza) lortzea aurrerapausoa izan ohi da herritartasuna lortzeko bidean (gehienez ere estatus juridikoa eskubide aitortuei dagokienez), baina lehen azaldutako oztopoetako asko ez dira desagertzen. Gainera, adierazi dugunez, nazionalitate baten baitan aniztasun ugari izaten da gehienetan, eta aniztasun horiek jasotzen dira txosten honetan.

<sup>3</sup> Txosten honetan, Etxabakoitzen historian izan den jatorri-aniztasuna kontuan izanda, “biztanleria autoktonoa” kontzeptuaren ordez “Nafarroatik eta espainiar estatuko herrietatik etorritako biztanleria” kontzeptua erabiliko dugu. Aukera horren helburua bikoitza da. Alde batetik, “autoktono” kontzeptuak auzoko aniztasun guztiak (historikoak eta gaur egungoak) adierazteko dituen mugak alde batera uztea. Bestetik, gizartearen dikotomia eta dualizazioa eragiten dituzten izenak saihestea, hots: “biztanleria autoktonoa” eta “atzeritar biztanleria”.

## Krisi ekonomikoa eta migrazio-zikloaren fase berria

Atzerritar jatorriko pertsonen fluxu esanguratsu baten helmuga bilakatu da Nafarroa, bereziki, azken bi hamarkadetan. Pertsona horiek beren jatorriko herrialdeetan zituzten zailtasun sozioekonomiko larriek eragin dute prozesu hori, besteak beste. Hau da, hobekuntza ekonomiko eta sozialaren itxaropena zen migrazio-mugimendu horien motibazio nagusia.

Mundu mailako desberdinkeria ekonomikoek ere zerikusia izan zuten prozesu horietan, lurralde aberatsenak baitziren lehentasunezko helmuga. Hori dela eta, Nafarroa, eta, gure kasuan, Iruña, migrazio-fluxu ugariaren helmuga bilakatu zen. Eta, lehenago ere esan dugunez, Etxabakoitz auzoaren historian ere ezaugarri bereizgarri bat izan da hori.

### 9. irudia) (Industria-garapenaren espazio historikoak Etxabakoitzen



Iturria) (Electroacerosen webgunea

Azken urteotan gure ingurunean izandako fenomeno multzo batek migrazio-zikloaren fase berri bat eragin duela diote migrazioen inguruan egin diren ikerketek. Esan izan den arren oraindik goizegi izan daitekeela “aldaketaren garrantzia eta haren azken ondorioak” jasotzeko, agerikoa da egungo egoera ekonomikoaren ezaugarriekin duen lotura. Hain zuzen ere, “immigrazioaren hamarkada miragarri”aren amaiera ekarri duen “inflexio-puntu”tzat edo “isurialdeen banalerro”tzat definitu da krisi ekonomikoa (Arango, 2009: 54).

Azken urteetako errealitate ekonomikoari lotutako bi ondorio esanguratsu dakartza ziklo-aldaketa horrek. Alde batetik, eta betiere 1998-2008 hamarkadarekin alderatuta, iristen den jende kopuruaren jaitsiera nabarmen bat, besteak beste, egoera ekonomikoa okerragotu izanaren ondorioz (lurraldearen erakarpina mugatzen du, lan-merkatuan sartzeko aukera murrizak kontuan izanda, batik bat) eta berrelkartze-prozesu gehienak bukatzen joan izanaren ondorioz (Colectivo IOÉ, 2012). Bestalde, konparazio-ikuspegi berarekin jarraituz, jende gehiago itzuli da jatorrizko herrialdeetara, krisi ekonomikoak bereziki eragin dion kolektibo bateko langabeziaren eta ezegonkortasun ekonomikoaren errealitateek eraginda (Lasheras eta Zugasti, 2010).

Ondorioz, ziklo-aldaketak migrazio-fluxuen funtsezko murrizketa eragingo luke, eta, are gehiago, baliteke aldi baterako geldiaraztea ere (Reher, Requena eta Sanz, 2011: 25). Azken finean, eta

aurreko zikloa eragin zuen logika berarekin bat etorri (Nafarroa helmuga bilakatu zuena), lurraldearen ahultze ekonomikoak erakartzeko ahalmena kentzen dio Nafarroari, eta jende gehiagok alde egitea eragiten du. Hala, beheko irudi hauetan ikusten denez, antzeko beste desegituratze-prozesu batzuk izan dira Etxabakoitzen historian, eta haien aztarna argiak geratzen dira egungo errealitatean oraindik.

#### 10. eta 11. irudiak) (Bertan behera utzitako espazio industrialak Etxabakoitzen



Iturria) (RLasaosa (<https://www.flickr.com/photos/rlasaosa/>))

Jendearen etorrera murriztu izana atzerabiderik gabeko gertaera da, enpirikoki frogatua (Colectivo IOÉ, 2012); hala ere, atzerritar jatorriko kolektiboak ez du masiboki aukeratu jatorrizko herrialdeetara itzultzea, Borondatez Itzultzeko Plana eta bestelako neurri erraztaileak gorabehera (Lan eta Immigrazio Ministerioa, 2012). Zenbait arrazoik eragin dezakete errealitate hori. Alde batetik, jatorrizko herrialdeetako errealitate sozioekonomiko konplexuek. Teoria batzuek diote jatorrizko herrialdeetako egoerak helmugako herrialdeetako egoerak baino gehiago eragiten duela itzultzeko erabakietan (Pajares, 2009), eta gertaera hori bat dator teoria horiekin. Bestalde, logikoa denez, erreparoa sortzen dira migrazio-bidea kontrako bidean edo itxaropen handiagoko (lanaren, ekonomiaren... aldetik) lurraldeetara bidean berregiteak duen prezio altua ordaintzearen inguruan. Alderdi horretatik, pisu handia dute kostu pertsonalek (porrot- edo frustrazio-sentimendua, kasurako) eta finkatze eta sustraitze handiak lortu diren lurraldearekiko haustura traumatikotik eratorriko bestelako kostuek.

Azken errealitate horren harira, bizileku-txartela izatea, eta, kasu askotan, espainiar nazionalitatea edota nazionalitate bikoitza izatea harrerako lurraldearekiko lotura sendoak direla egiaztatu da. Horren guztiaren ondorioz, Nafarroara mugatuz, Nafarroako immigrazioari buruz 2010ean egin zen inkestako datuen arabera, ikusi ditugun errealitate horiek atzerritarren kolektiboko gehiengoak harrerako lurraldean irauteko duen nahia azalduko lukete, krisiaren eragin handia gorabehera (Martínez de Lizarrondo, 2010).

Azalduko fenomeno horiek, halaber, Etxabakoitzen identifikatutako eguneroko errealitateetako asko (datozen ataletan zehazten dira) azalduko lituzkete.

## Kohesio sozialaren bultzada

Lehenago esan dugunez, krisiaren iraupenak eraginak larriagotu dituen arren, finkatzea lehenesten duen logika mantendu egiten da, eta, beraz, lehen eta orain Etxabakoitzen ezaugarri izan den jatorri eta kulturen aniztasuna kudeatzeko beharra areagotzen da.

Kolektibo immigranteari dagokionez, kolektiboa finkatzen den toki-espazioaren birkonfigurazio sozioekonomikoari eta politiko-instituzionalari laguntzeaz gainera, jatorrizko kulturako alderdiak erreproduzitzera jotzen da. Haien identitatea galtzeko arriskutik defendatzeko eta hainbeste aldiz jasandako diskriminazioetatik babesteko estrategia gisa uler daiteke jokamolde hori. Kolektibo migratzailearen identitate nazionala, ohiturak, jaiak eta ospakizun erlijiosoak mantentzen, berrezartzen eta islatzen dituzte prozesu horiek, berezitasun batekin: harrera-testuinguruetara egokitu behar dira, eta desberdintze-prozesuak sortzen dituzte kolektibo migratzailearen baitan (Entrena-Durán 2012: 17).

### 12. eta 13. irudiak)(Aniztasuna Etxabakoitzen



Iturria)(Etxabakoitz Bizirik

Norabide horretan, nazionalitatea aldagaiaren mugak berreskuratu behar dira, dagoen aniztasuna barne hartzeko. Esan dugun moduan eta oraingo honetan Ricard Zapata-Barreroren hitzak jasoz, “gizarte eta kultura nagusien kultura politikoa partekatzen ez duten nazio minoritarioetako gizarteak izan daitezke estatuen baitan, eta, beraz, etorkinak etortzeak eta geratzeak hainbat motatako eraginak ditu” (Zapata-Barrero, 2008: 14).

Errealitate hori bete-betean dagokio Etxabakoitzi ere. Duela gutxi egindako jardueren argazkietan (14-17. irudiak) agertzen den moduan, espainiar estatu osotik eta Nafarroatik eratorritako kultura adierazpenen (adierazpen horiek gutxituak dira kasu batzuetan) konbergentzia historikoaren erakusgarri izan da (eta da) auzoa. Aniztasun horren baitan hizkuntza-aniztasuna ere badago, eta, Nafarroaren kasuan, euskara hizkuntza ofizialaren presentzia nabarmentzen da.



Iturria)(Pili Zozaya

Laburbilduz, azken hamarkadetako nazioarteko migrazio-mugimenduen ondoriozko jatorri- eta kultura-aniztasunaren iturri berri bat gehitu zaio Etxabakoitzen historikoki izan den aniztasunari. Gertaera horren ondorioz, modu esanguratsuan eraldatu da auzoko eguneroko harremanen errealitatea. Horrez gainera, beste fenomeno batzuk ere badira, besteak beste: krisialdiaren ondoriozko zaugarritasuna modu orokorrean areagotu izana, behar handiak dituen biztanleriaren espazio-kontzentrazioa eta hiriaren garapenari lotutako baliabide-banaketa desorekatu logiko historikoa.

Faktore horien guztien baturak, alde batetik, auzoa ghetto bihurtzeko arriskua sortzen du, eta, bestetik, erronka handi bat da barne-kohesio sozialerako. Beraz, diagnosi honetako bi ardatz nagusi dira eguneroko espazio sozialaren aniztasuna eta elkarbizitza, eta oinarri teoriko zehatza behar dute. Hurrengo atalean garatzen da mugatze hori.



## oinarriak)(aniztasuna eta elkarbizitza eguneroko espazio sozialean

Ikuspuntu teoriko sendo eta egiaztatu batean bermatu da diagnosis. Aniztasun handiko (jatorriei, kulturei, hizkuntzei, erlijioei... dagokienez) eta multikulturalizazio-prozesu biziak dituzten espazioetako (gure kasuan, Etxabakoitz) eguneroko harremanak aztertzekeo esparru erabilgarri bat ematea izan da ikuspuntu teoriko horren helburua. Bada, oinarri teoriko horrek aniztasunaren ikuspegi integral bat erakusten du, zeinak kolektibo bakoitzaren espezifikotasuna eta auzo guztiaren espezifikotasuna aintzatesten baititu.

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Migrazioa eta kultur aniztasuna programaren zuzendari eta Antropologia Sozialeko irakasle titular den Carlos Giménez Romeroren proposamenaren oinarritzen da lan honen planteamendu teorikoa. Analisi-proposamena “Convivencia: Conceptualización y sugerencias para la praxis” artikuluan gauzatzen da, eta, han azpimarratzen denez, elkarbizitza aintzat hartzea da tokiko agertokietan aniztasuna egoki kudeatzeko gakoa. Baina mugak zehaztu behar dira alor horretan.

### Elkarbizitza, koexistentzia eta etsaitasuna: alderdi nagusiak

Carlos Giménezek, bere proposamenaren jatorrizko dokumentuan, gizarte-erlazioetan gerta daitezkeen hiru egoera jaso zituen: elkarbizitza, koexistentzia eta etsaitasuna. Jarraian, eta betiere Giménezek proposamenaren (2005) oinarrituta, diagnosi honek hiru soziabilitate-mota horien definizioan kontuan izan dituen ezaugarri nagusiak zehazten dira:

- **Elkarbizitza:** Batez ere harreman positiboak izaten diren egoera. Hau da, onarpena, errespetua, konfiantza eta komunikazioa dago espazio berean bizi diren pertsonen artean. Ez du esan nahi gatazkarik ez dagoenik. Hala ere, gatazkak daudenean, baketsuki konpontzen saiatzen dira.
- **Koexistentzia:** Pertsonak edo taldeak espazio berean bizi direnean baina ia harremanik ez dutenean gertatzen da; harremanak izatekotan ere, azalekoak edo indargeak izaten dira. Halako egoeretan gatazkak oso gutxitan gertatzen dira, ez baita izaten eguneroko interakziorik.
- **Etsaitasuna:** Pertsonen arteko harreman negatiboak nagusi diren agertokia. Egoera horietan ohikoak izaten dira gaitzespena, diskriminazioa, segregazioa, esklusioa, irainak, mehatxuak, erasoak, etab. Zenbait arrazoi direla medio ager daitezke gatazka horiek, hala nola jatorrizko nazionalitatea, etnia, itxura eta sexu-identitatea.

### 3. taula)(Hiru soziabilitate-mota posibleen laburpena

ELKARBIZITZA	KOEXISTENTZIA	ETSAITASUNA
Harreman onak daude, eta, arazoren bat dagoenean, baketsuki konpontzen da	la ez dago harremanik, baina jendeak bizitzen uzten dio elkarri, elkar errespetatzen dute, eta ia ez dago gatazkarik	Tentsioa dago, eta etsaitasuna

Iturria)(Geuk egina

Kontzeptualizazio xehatu horren arabera, abiapuntuko hipotesi gisa esan daiteke Nafarroa osoan koexistentziako maila ona izan dela, etsaitasun-espresio gutxirekin (latente dauden arren). Hau da, ez da lortu erabateko integrazioa eta kulturartekotasuna uztartzen dituen elkarbizitarik (Giménez, 2005).

Lehenago ikusi dugun laburpen-taula erreferentzia hartuta, Nafarroako lurralde gehienetan koexistentziako egoera bat gailentzen da, non “ia ez [bait]dago harremanik, baina jendeak bizitzen uzten dio elkarri, elkar errespetatzen dute, eta ia ez dago gatazkarik”.

Carlos Giménezek bere artikuluan defendatzen duen planteamendu teorikoak baditu hiru alderdi bereziki egoki, zeinek planteamendu hori Etxabakoizko diagnosian erabiltzea eragin baitzuten.

#### 18. eta 19. irudiak (Auzoko jarduerak)



Iturria (Etxabakoitz Bizirik)

Lehenik eta behin, elkarbizitza/gatazka dualtasuna hausten du ikuspuntu horrek. Koexistentziaren kategoria ere hartzen denez kontuan, frogatzen da elkarbizitarik ezak ez dakarrela nahitaez gatazka.

Bigarrenik, hiru soziabilitate-motak arketipoak dira. Hau da, ez dira beti bere horretan gertatzen, baizik eta zenbait maila eta fasetan gerta daitezke, zeinak aldagaien mende baitaude, adibidez, denboraren mende. Lurralde berean (hiria, herria, auzoa, komunitatea, etab.) hiru soziabilitate-motetako elementuak izan daitezke, eguneroko harreman-espazioaren aniztasunaren arabera.

Hirugarrenez eta azkenik, eredu dinamikoa da. Hiru mota horiek (elkarbizitza, koexistentzia eta etsaitasuna) bilaka eta eralda daitezkeen faseak dira. Hau da, harremanak hobetzen edo okerragotzen direnean, gerta daiteke deskribatutako eredu batetik bestera igarotzea.

Aldatzeko aukera hori da Etxabakoitzen egindako diagnosiaren ezaugarri nagusia; jarraian datorren atalean xehatzen da.

## Izaera dinamiko eta eraldatzailea: aldaketarako proposamena

Adierazi dugunez, arketipo idealak (elkarbizitza, koexistentzia eta etsaitasuna) aldatu egin daitezke. Sarritan, “kanpo-eraginen eta barne-dinamiken konbinazioaren eta atzeraelikaduraren” ondorioz gertatzen dira aldaketa horiek (Giménez, 2005).


Kanpo-faktoreen adibide izango lirateke, besteak beste, aldaketa ekonomikoak, politikoak eta legegintzakoak eta gatazka etnikoak. Krisialdi ekonomikoa eragin potentzial horren adibide garbia izan da. Barne-faktoreak izango lirateke, aldiz, beste fenomeno hauek: pisu soziodemografikoaren alderantzikatzeta, tokiko boterearen gauzatze zehatzak, toki-gatazka espezifikoak, etab.

Proposamenak, eragina duten faktoreak kontuan hartzen dituzenez, fase batetik besterako jauzietan dauden mehatxuak eta faktore eragileak nahiz bultzatzaileak identifikatzeko aukera ematen du. Hain zuzen, horrexegatik ematen dio diagnosi honek halako protagonismoa testuinguruan jartzeari.

Fase batetik bestera igarotzeko aukerak funtsezko ondorio bat du: aldaketak sakondu edo eragingo dituzten estrategiak diseinatu eta garatzeko aukera ematen du. Hau da, aukera ematen du diagnosa gizarte-ehuna elkarbizitzara bidean dinamizatzeko tresna gisa erabiltzeko.

Jarraian dagoen ilustrazioan, erlazio-tentsio handieneko agertokietatik (etsaitasuna nagusi den egoerak) harremanak baketsuki kudeatzeko beste errealitate batzuetara (elkarbizitzaren bidez irudikatzen dira) igarotzeko aukerak (hobekuntza) jasotzen dira. Baina egoera batetik bestera igarotzeko aukera hori kontrako noranzkoko ere izan daiteke. Izan ere, dauden gatazkak nahiz gatazka latenteak ez badira kontuan hartzen edo modu desegokian kudeatzen badira, gerta daiteke erlazio-errealitateek okerrera egitea. Zerbait partekatzen dute bi aukera horiek: esku-hartzeko beharra azpimarratzen dute.

### 1. ilustrazioa)(Análisi dinamikoko eredua



Iturria)(Geuk egina Giménezen datuak (2005) erabilita

Laburbilduz, proposamen honen planteamendua praktikoa da funtsean, helburuen atalean ikusten denez. Gainera, parte-hartzailea eta proposatzailea denez, Etxabakoizko biztanleen arteko harremanak eraldatzeko eta hobetzeko ardatz nagusietako bat da.

# helburuak) (ikerketa eta ekintza bateratuz

Prozesuaren helburu orokor eta espezifikoak agertzen dira beheko taulan. Taulan ikusten denez, helburu horietan diagnosa da ardatza, betiere ikuspegi parte-hartzaile eta eraldatzaile batekin.

## 2. ilustrazioa) (Helburu orokor eta espezifikoak

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK
1. Auzoko elkarbizitzaren diagnosa egitea.	1.1. Soziabilitate-mota orokorrak (elkarbizitza, koexistentzia eta etsaitasuna) erabiltzea tokiko errealitatea definitzeko.
	1.2. Bizi-baldintzak, ondasun eta zerbitzuetarako sarbidea, eskubideak eta bermeak aztertzea eremu hauetan: lanekoa, ekonomikoa, politikoa, hezkuntzako, etxebizitzaren alorrekoa, osasungintzako, erlazionala, identitarioa eta sinbolikoa.
	1.3. Taldeen arteko onarpen-/gaitzespen-erlazioak aztertzea.
	1.4. Elkarbizitzaren ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak identifikatzea metodo parte-hartzaileen bidez.
	1.5. Etxabakoizko errealitatearen definizio partekatu bat hitzartzea.
	1.6. Diagnosiaren emaitza gisa jasotako eskaerak eta hobetzeko eta esku hartzeko proposamenak jaso eta bideratzea.
2. Elkarbizitza-baldintzak hobetzea partaidetzaren bidez.	2.1. Prozesuan parte hartzen duten pertsonen harremanetarako, azterketarako eta proposamenak egiteko, kudeaketako eta partaidetzako ahalmena areagotzea.
	2.2. Aniztasunari balioa ematea.
	2.3. Kulturartekotasuna baliozko identitate-esparru gisa ezartzea.
	2.4. Auzoko eragile sozialen eta erakundeen bitartekari-papera indartzea.
	2.5. Etxabakoizko biztanleen bizi-baldintzak hobetuko dituzten (betiere aukera-berdintasunean) ekimenak sustatzea.
	2.6. Sarean konektatu eta dauden baliabideak baliatzea.
	2.7. Elkarbizitza oro har hobetzeko estrategiak gauzatzea.
3. Bokazio iraunkorreko egitura autonomoak sortuko dituen prozesu parte-hartzaile bat bultzatzea.	3.1. Gizarte-eragileak identifikatu eta inplikatzeko proposatutako dinamika parte-hartzaileen sorreran.
	3.2. Lan-egitura egonkorra sustatzea elkarbizitzaren izenean.
	3.3. Prozesuaren eta hartatik eratortzen diren prozesuen plangintza estrategikoan aholku ematea.

Iturria) (Geuk egina

## metodoa)(prozesu parte-hartzailea

Ikerketa-ekintza parte-hartzailea (hemendik aurrera, IEP) metodoa erabili da Etxabakoizko elkarbizitzari buruzko diagnostia egiteko.

Ikerketa eta esku-hartze soziala bateratzen dira IEPn. Biztanleriaren partaidetzan oinarritzen da jakintza eraikitze modu baterakoan. Baina IEPren helburua, errealitate kolektiboak ezagutzea ez ezik, haiek eraldatzea ere bada (R. Villasante, 2000). Horretarako, toki bakoitzeko behar espezifikoetara egokitutako tresna eta espazioak erabiltzen ditu.

Hasieratik egoki ikusi zen auzoari irudi pertsonalizatu bat ematea, identifikatu ahal izateko eta, era berean, diagnostia zuzentzen duen taldeak **Navarracon**)(vive / **Nafarroanelkar**)(bizi- proiektuaren baitan Nafarroako beste herri batzuetan erabiltzen duen lan-logikan sartu ahal izateko. Hementxe ditugun irudi grafikoetan, proiektuaren irudi orokorra eta Etxabakoitzera egokitutako irudiak ditugu, gaztelaniazko eta euskarazko bertsioetan.

### 3. ilustrazioa)(Proiektuaren irudi grafikoa

---

**Etxabakoitzcon**)(vive

**Etxabakoitzenelkar**)(bizi

**Navarracon**)(vive

**Nafarroanelkar**)(bizi

---

Iturria)(Geuk egina

**Etxabakoitzcon**)(vive / **Etxabakoitzenelkar**)(bizi proiektuaren garapenean erabili den metodoaren ezaugarri nagusiak deskribatzen dira datozen ataletan.

### Iturriak, teknikak eta prozesuaren dinamika

Ikerketa orok iturriak behar ditu, beharrezko informazioa atera ahal izateko. Bi ardatz landu dira Etxabakoitzen. Alde batetik, iturri primarioak erabili dira, eta, bestetik, iturri sekundarioak. Iturri primarioen baitan, era berean, teknika kualitatiboak eta teknika kuantitatiboak erabili dira. Teknika kualitatiboen helburu nagusia diskurtsoetarako sarbidea izan da, eta teknika kuantitatiboen helburua, aldiz, errealitateak kuantifikatzea. Iturri sekundarioak bereziki erabilgarriak dira ikerlana testuinguruan jartzeko eta alderdi historikoak ezagutzeko.

Metodo guztietan bezala, tresna batzuk behar dira, eta, kasu honetan, tresna jakin batzuk erabili dira. Tresna bakoitzaren egokitasunaren inguruko doikuntza eta gogoeta kolektiboa bereziki nabarmendu dira diagnosi-prozesuan.

4. ilustrazioan, Etxabakoizko elkarbizitzari buruzko diagnostian erabili diren bi ardatzak, teknikak eta tresnak jasotzen dira.

4. ilustrazioa) (Diagnosian erabilitako teknika eta iturriak


ARDATZAK	TEKNIKAK	TRESNAK
ITURRI SEKUNDARIOAK	DOKUMENTUEN AZTERKETA	Iturri estatistiko informatzaileak kontsultatzea: errolda, osasun-zentroetara joandako maiztasunari buruzko datuak, etab.
ITURRI PRIMARIOAK	TEKNIKA KUALITATIBOAK	Behatzea, eztabaida-taldeak, AMIA dinamika, nerabeekiko taldea eta talde irekia
	TEKNIKA KUANTITATIBOAK	Galdetegi adierazgarria

Iturria) (Geuk egina

Iturrien artikulazioa, teknika kualitatibo nahiz kuantitatiboen garapena eta tresnak (eztabaida-taldeak, galdetegiak, AMIA, etab.) diagnosiaren fase guztiak elikatzen (eta atzeraelikatzen) bideratu dira, diagnosiaren funts parte-hartzaitetik.

Praktika eta informazioa bateratzen dituen prozesu hori, zeina alde aurretik diseinatu eta beste agertoki batzuetan probatu baita, ilustrazio honetan laburbiltzen da:

5. ilustrazioa) (Etxabakoitzen egindako prozesu metodologikoaren irudikapena



Iturria) (Geuk egina

## Garapen metodologikoa: espazioak eta tresnak

4. taulan jasotzen denez, diagnosi-prozesua gauzatu den espazio nagusiak eta erabili diren informazio-iturriak deskribatzen dira datozen ataletan modu laburrean, kronologikoki ordenatuta.

### 4. taula) (Prozesuan egindako jarduera nagusien laburpena


JARDUERAK	DATAK
Proiektua aurkeztea auzoan	2016/03/03
Talde teknikoa (abiaraztea)	2016/03/11
Behaketa	Apirila
Eztabaida-taldeak	2016/03/29 eta 2016/05/07
Galdetegia	2016ko maiatzetik urrira
AMIA dinamika	2016/05/27
Nerabe-taldea	2016/06/10
Talde irekia	2016/06/16
Emaitzak aurreratzea Udaleko Gobernu Taldeari	2017/01/17
Emaitzak aurreratzea auzoko erakundeei	2017/01/17
Diagnosiaren emaitzen aurkezpen publikoa	2017/01/25

Iturria) (Geuk egina

### Proiektuaren aurkezpena

Diagnosi-proiektuaren proposamena 2016ko martxoaren 3an, 13:30ean, aurkeztu zen jendartean, 1. lokalean (Grupo Urdánozeko etxabearen). Proiektuaren hastapenak, ezaugarriak, helburuak, metodologia, itxaron daitezkeen emaitzak eta proiektuaren fase nagusiak azaldu ziren aurkezpenean. 20. eta 21. irudietan ikusten denez, partaidetza-maila handia izan zen, 20 pertsona baino gehiago izan baitziren, bai auzoko mugimendu asoziatibokoak, bai profesionalekoak.

### 20. eta 21. irudiak) (Proiektua auzoan aurkezten



Iturria) (Geuk egina

Prozesuan parte hartu nahi zuten auzoko eragile eta erakundeekin harremanetan jartzea izan zen aurkezpen-saioaren helburuetako bat, Talde teknikoa (TT) osatu ahal izateko. Jarraian azaltzen da Talde teknikoa, zeina diagnosiaren garapenaren ardatza baita.

## Talde teknikoa

Talde teknikoaren (TT) lanari esker egin da diagnosis. Hainbat zerbitzutako (sozialak, sanitarioak, etab.) profesionalak, auzoko elkarte eta erakundeetako ordezkariak eta zenbait jatorritako biztanleak osatzen dute Talde teknikoa.

### 22. irudia) Talde teknikoaren lan-saioa



Iturria) Iruñeko Udala

Nafarroako Unibertsitate Publikoak dinamizatu du talde hori, eta aldian behin elkartu da diagnosis egiteko. Talde teknikoak zortzi lan-saio egin ditu diagnosis garatzeko, baina pertsona batzuekin prozesu guztia iraun duen harremana izan da. Taula honetan zehazten dira taldearen jardura nagusiak:

### 5. taula) Talde teknikoaren jarduerak

TALDE TEKNIKOAK EGINDAKO JARDUERAK
Datu sekundarioen hornidura
Eztabaida-taldeetarako eta nerabe taldeetarako pertsonak bilatzea
Galdetegiaren diseinuan parte hartzea
Inkestazaileak bilatzea
Inkestak egitea
Proiektuari lotutako jarduerak zabaltea
Inkestazaileen formakuntzan laguntzea
Proiektua zabaltea
AMIA azterketa
Talde irekian parte hartzea
Aurretiko emaitzak bateratzeko lana
Emaitzak aurkezteko saioa prestatzea

Iturria) Geuk egina



Azaldutako ekintza horiez harago, Talde teknikoarekin (TT) egindako saio guztiak lagungarriak izan dira diagnosirako, auzoko eguneroko errealitatea zuzenean ezagutzea ahalbidetzen duen iturria baitira. Gainera, erabilitako teknika guztietatik lortutako informazioa egiaztatzeko balio izan du espazio horrek. Esperientzia horien artetik, galdetegiaren aurretiazko emaitzak bateratzeko lana nabarmentzen da (ikusitako emaitzen aurrerapenari buruzko dokumentua, 1. ERANSKINean).

Nabarmentzekoa da, halaber, Talde teknikoaren (TT) konposizio anizkoitza (jatorrizko nazionalitatea, lanbidea, etab.) ere ikasteko eta elkarbizitzeko aukeren ebidentzia bat dela helburu komunaren esparruan, eta, kasu honetan, Etxabakoizko harremanak hobetzeari dagokionez.

### Behaketa

Gizarte Lana Graduko ikasleek behaketa-lanak egin zituzten auzoko hainbat espaziotan eta zenbait unetan, erlazioak gertatzen ziren moduak begien bistaz egiaztatzeko.

Besteak beste, eremu hauetan aritu ziren behatzen: Etxabakoizko osasun-zentroan, Etxabakoitz Kirol Elkartearen, Nicasio de Landa Ikastetxe Publikoan, Grupo Urdánoz parkean, kale nagusietan eta Ipar Etxabakoitzerako igogailuaren eremuan.

### 23. eta 24. irudiak (Behaketa-lanak)



Iturria (Geuk egina)

### Eztabaida-taldeak

Eztabaida-taldea (edo haren aldaerak, adibidez, talde fokala) ikerketa sozial kualitatiboko teknika bat da, zeinean profil ezberdineko zenbait pertsona elkartzen baitira gai jakin baten inguruan hitz egiteko. Hautatutako gaiari (kasu honetan, elkarbizitza) buruzko diskurtsoak jaso eta aztertzea da teknika horren helburu nagusia. Izaera kolektiboa duenez, bota diren iritzi eta ideiei buruz taldean dauden adostasun eta desadostasun mailak egiazta daitezke. Hiru eztabaida-talde egin dira: jatorria Nafarroan eta estatuko hainbat herritan duten biztanleekin (NET), biztanleria immigratuarekin/atzeritar jatorrikoarekin (IAT) eta ijitoekin (IJT).

Talde horiek diseinatu zirenean, Etxabakoizko heterogeneotasuna bilatu nahi zenez, elkarbizitzaren inguruko diskurtzorako aldagai soziodemografiko nagusiak izan ziren kontuan. Talde teknikoak hautatu zituen pertsonak, aldagai hauek kontuan izanda<sup>4</sup>:

6. taula) Biztanleria immigratuko taldearen (IAT) aldagaiak

ALDAGAIA	HAUTATZE-IRIZPIDEAK	TALDE ORDEZKATUAK
Adina	18-30	Talde ordezkatu guztiak
	31-45	
	46-65	
	66 <	
Sexua	Emakumezkoa	Gizonen eta emakumeen kopuru orekatuak
	Gizonezkoa	
Jatorriko herrialdea	Errumania	Talde ordezkatu guztiak, Aljeria / Nigeria izan ezik
	Maroko	
	Bulgaria / Albania	
	Portugal / Ekuador	
	Aljeria / Nigeria	
	Ukraina / Moldavia	
Egungo jarduera	Ikaslea	Talde ordezkatu guztiak
	Pentsioduna / Erretiratu	
	Langabea (prestazioarekin/gabe, iraupen luzekoa, Gizarteratzeko Errenta)	
	Etxekoandrea / Etxeko gizona	
	Lana du	
Lanbidea / Sektoreak	Laborantza / Abeltzaintza	Talde ordezkatu guztiak, Laborantza / Abeltzaintza eta Industria-sektorea izan ezik
	Zainketa-lanak / Etxe-langileak	
	Eraikuntza	
	Industria-sektorea	
	Merkataritza / Jendearentzako arreta	
Ezkutuko ekonomia	Bai	Talde ordezkatu guztiak
	Ez	
Auzoan bizitzen daramaten denbora	2 urte baino gutxiago	Talde ordezkatu guztiak
	2 < 10 urte	
	10etik gora	
Ikasketa-maila	Ikasketarik gabea	Talde ordezkatu guztiak
	Oinarrizko ikasketak	
	Erdi-mailako ikasketak	
	Unibertsitate-ikasketak	
Bizi diren eremua	Ipar Etxabakoitz	Talde ordezkatu guztiak, Vistabella/Chocarro/Barcos izan ezik
	Arostegi etorbidea/Puig etxeak	
	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.	
	Vistabella/Chocarro/Barcos	

Iturria) Geuk egina

<sup>4</sup> Aldagai horiez gainera, historikoki eragina izan duten beste aldagai batzuk ere eman nahi izan ziren, hala nola ideologia (kontserbadorea/progresista) eta pertenezia-sentimendua (euskalduna/nafarra/espainiarra).

7. taula) Jatorria Nafarroan/estatuan duten biztanleen taldearen (NET) aldagaiak

ALDAGAI A	HAUTATZE-IRIZPIDEAK	TALDE ORDEZKATUAK
Adina	18-30	Talde ordezkatu guztiak
	31-45	
	46-65	
	66 <	
Sexua	Emakumezkoa	Gizonen eta emakumeen kopuru orekatuak
	Gizonezkoa	
Egungo jarduera	Ikaslea	Talde ordezkatu guztiak
	Pentsioduna / Erretiratua	
	Langabea (prestazioarekin/gabe, iraupen luzeak, Gizarteratzeko Errenta)	
	Etxekoandrea / Etxeko gizona	
	Lana du	
Lanbidea / Sektoreak	Laborantza / Abeltzaintza	Talde ordezkatu guztiak, Laborantza / Abeltzaintza izan ezik
	Zainketa-lanak / Etxe-langileak	
	Eraikuntza	
	Industria-sektorea	
	Merkataritza / Jendearentzako arreta	
Okupazioa (egungoa nahiz aurretikoa)	Autonomoa	Talde ordezkatu guztiak
	Enpresaria, langileak ditu bere ardurapean.	
	Besteren kontu kontratatua	
Auzoan bizitzen daramaten denbora	Auzoa eraiki aurretik	Talde ordezkatu guztiak
	25-50 urte	
	25-5 urte	
	Azken 5 urteak	
Ikasketak-maila	Ikasketarik gabea	Talde ordezkatu guztiak
	Oinarrizko ikasketak	
	Erdi-mailako ikasketak	
	Unibertsitate-ikasketak	
Auzokoak	Pertsona immigratuak daude	Talde ordezkatu guztiak
	Ez dago pertsona immigraturik	
Bizi diren eremua	Ipar Etxabakoitz	Talde ordezkatu guztiak, Arostegi etorbidea izan ezik
	Arostegi etorbidea / Puig etxeak	
	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.	
	Vistabella/Chocarro/Barcos	

Iturria) Geuk egina

8. taula) (Ijitoen taldearen (IJT) aldagaiak

ALDAGAIA	HAUTATZE-IRIZPIDEAK	TALDE ORDEZKATUAK
Adina	18-30	Talde ordezkatu guztiak
	31-45	
	46-65	
	66 <	
Sexua	Emakumezkoa	Gizonen eta emakumeen kopuru orekatuak
	Gizonezkoa	
Egungo jarduera	Ikaslea	Talde ordezkatu guztiak
	Pentsioduna / Erretiratua	
	Langabea (prestazioarekin/gabe, iraupen luzeak, Gizarteratzeko Errenta)	
	Etxekoandrea / Etxeko gizona	
	Lana du	
Lanbidea / Sektoreak	Laborantza / Abeltzaintza	Talde ordezkatu guztiak, industria-sektorea izan ezik
	Zainketa-lanak / Etxe-langileak	
	Eraikuntza	
	Industria-sektorea	
	Merkataritza / Jendearentzako arreta	
Ezkutuko ekonomia	Bai	Talde ordezkatu guztiak
	Ez	
Auzoan bizitzen daramaten denbora	Auzoa eraiki aurretik	Talde ordezkatu guztiak
	25-50 urte	
	25-5 urte	
	Azken 5 urteak	
Ikasketa-maila	Ikasketarik gabea	Talde ordezkatu guztiak
	Oinarrizko ikasketak	
	Erdi-mailako ikasketak	
	Unibertsitate-ikasketak	
Auzokoak	Pertsona immigratuak daude	Talde ordezkatu guztiak
	Ez dago pertsona immigraturik	
Bizi diren eremua	Ipar Etxabakoitz	Talde ordezkatu guztiak, Vistabella/Chocarro eta Ipar Etxabakoitz izan ezik
	Arostegi etorbidea / Puig etxeak	
	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.	
	Vistabella/Chocarro/Barcos	

Iturria) (Geuk egina

9. taulan modu sintetikoan jasotzen dira parte-hartzaileen kopurua, saioen gutxi gorabeherako iraupena, saioen tokia, data/ordua eta taldeen zuzendaritzan parte hartu duten teknikariak. Kontaktuez arduratu diren Talde teknikoako pertsonak lan handia egin zuten, talde guztietan asistentzia-maila altuak izatea eragin baitzuten.

9. taula) (Etxabakoitzen egindako eztabaida-taldearen ezaugarri orokorrak

	GI	GNE	GG
Profila	Biztanleria immigratua	Nafarroako/estatuko biztanleak	Ijitoak
Pertsona-kop.	10	10	10
Iraupena	65 min.	70 min.	70 min.
Tokia	1. auzo-lokala	Liburutegiaren ondoko lokala	Liburutegiaren ondoko lokala
Ordua	19.00	17.00	19.00
Eguna	2016/03/29	2016/05/7	2016/05/7
Zuzendaria	Izaskun Andueza	Izaskun Andueza	Izaskun Andueza
Laguntza teknikoa	Rubén Lasheras / Jorge Tapia	Rubén Lasheras / Jorge Tapia	Rubén Lasheras / Jorge Tapia

Iturria) (Geuk egina

Diagnosian egindako eztabaida-taldeetako bakoitzaren profil zehatzak zehazten dira datozen hiru taula hauetan.

10. taula) (Biztanleria immigratua/atzeritar jatorrikoak eztabaida-taldearen (IAT) profilak

SEXUA	ADINA	JATORRIA	EREMUA
Gizonezkoa	46-65	Latinoamerika	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	46-65	Pakistan	Arostegi etorbidea/Puig etxeak
Emakumezkoa	46-65	Portugal	Arostegi etorbidea/Puig etxeak
Gizonezkoa	31-45	Iran	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	46-65	Errumania	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	31-45	Nigeria	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	18-30	Maroko	Arostegi etorbidea/Puig etxeak
Emakumezkoa	46-65	Ukraina	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	18-30	Albania	Ipar Etxabakoitz
Emakumezkoa	18-30	Latinoamerika	Ipar Etxabakoitz

Iturria) (Geuk egina

11. taula) (Biztanleria nafarra/espainiar estatukoa eztabaida-taldearen (NET) profilak

SEXUA	ADINA	EREMUA
Emakumezkoa	66 <	Vistabella/Chocarro/Barcos
Emakumezkoa	66 <	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	66 <	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	66 <	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	66 <	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	46-65	Vistabella/Chocarro/Barcos
Emakumezkoa	46-65	Vistabella/Chocarro/Barcos
Emakumezkoa	31-45	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	31-45	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.*
Gizonezkoa	46-65	Ipar Etxabakoitz

\*Gaur egun auzotik kanpo bizi da

Iturria) (Geuk egina


## 12. taula) (Ijitoen eztabaida-taldearen (IJT) profilak

SEXUA	ADINA	EREMUA
Emakumezkoa	66 <	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	46-65	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	46-65	Arostegi etorbidea/Puig etxeak
Emakumezkoa	46-65	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	18-30	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	46-65	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	31-45	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	18-30	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Gizonezkoa	31-45	G. Urdánoz/Mañeru/Koop.
Emakumezkoa	31-45	Arostegi etorbidea/Puig etxeak

Iturria) (Geuk egina

Talde teknikoarekin adostutako espazioetan egin ziren taldeak, eta ez zen aparte gorabeherarik gertatu. Toki neutro eta erraz iristeko modukoa nahi zen. Lehenengo hautatu zen espazioak (Grupo Urdánozeko etxabeak) tokiaren eta erabilgarritasunaren aldetik zituen mugak zirela eta, bigarren eta hirugarren taldeak Etxabakoizko liburutegiaren ondoko lokaletan egin ziren. Irudi hauetan, eztabaida-taldeetarako erabili diren bi tokien ezaugarriak eta kokapena ikusten dira.

## 25., 26., 27. eta 28. irudiak) (Eztabaida-taldeetarako espazioak



Iturria) (Geuk egina

Azkenik, taldeek diagnosiaren garapenerako eta azken emaitzen aurkezpenerako izan duten balio analitiko handia nabarmendu nahi dugu.

## Inkesta


Teknika kuantitatibo nagusi gisa, auzoaren inkesta adierazgarri bat egin da. Inkestaren faseak modu parte-hartzailean egin izana da inkestaren elementu bereizgarrietako bat. Fase horietako batzuk zehazten dira jarraian.

### a) Galdetegia

Galdetegia diseinatzeko prozesua (ikusi galdetegi osoa gaztelaniaz 2. ERANSKINean) asko zaindu da. Lehenik eta behin, Talde teknikoa (TT) osatzen duten pertsona guztiek aktiboki parte hartu dute Nafarroako beste herri batzuetan erabilitako galdetegia berrikusten; galdetegi hori, era berean, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Carlos Giménezen taldeak kulturarteko aniztasun handiko espazioetako elkarbizitza aztertzeke egindako galdetegian oinarritu zen (Giménez, 2005).

Galdetegi horretako galdera batzuk kendu egin ziren, beste batzuk gehitu eta beste batzuk doitu egin ziren, auzoko errealitatera eta Etxabakoizko Talde teknikoaren (TT) eskakizunetara egokitzeko. Gizarte Lana Gradu ikasleek galdetegia bete zuten pretesta eginez, eta, hala, akatsak edota egin beharreko aldaketak identifikatu ahal izan ziren, behin betiko bertsioan zuzentzeko.

29. eta 30. irudiak)(Pretesta



Iturria)(Geuk egina

Diseinu-prozesuari indarra eman zitzaien, tresna oinarritzko eta oso bat, elkarbizitzaren diagnosirako funtsezko elementuak barne hartzen zituena, eta, era berean, landa-lana modu parte-hartzailean egiteko adinako tresna erraz eta erabilgarria izango zena, egin ahal izateko.

Nabarmendu beharrekoa da galdetegia berrikusteko eta galdera berriak gehitzeko prozesuari esker galdetegi berria aberastu egin zela; diagnosiaren metodologiako logika parte-hartzailearen adibide dugu alderdi hori ere.

Gaztelania erabat menderatzen ez duen atzerritar biztanleriarengana gerturatzeko, galdetegia arabierara ere itzuli zen. Iraniar jatorriko pertsona batek, zeina Talde teknikokoa baita, egin zuen itzulpena (ikusi arabierara itzultako galdetegia 3. ERANSKINean).

### b) Fitxa teknikoak

Ikuspuntu teknikoari dagokionez, adierazgarritasunaren oinarritzko irizpidea izan zen kontuan lagina diseinatzean. Jarraian, Etxabakoitzen egindako galdetegiaren fitxa teknikoak daude:

13. eta 14. taulak)(Etxabakoitzen egindako galdetegiaren fitxa teknikoak

UNIBERTSOA, LAGINA ETA LAGIN-ERROREA (NAFARROA-ESTATUA / ATZERRITAR JATORRIA)			
	Unibertsoa <sup>5</sup> ( < 16 urte)	Lagina	% 95aren lagin-errorea (konfiantza-maila)
Nafarroako-estatuko biztanleak	3820	202	% 6,7
Atzerritar jatorriko biztanleak	691	55	% 12,7
Guztira	4511	257	% 5,9



UNIBERTSOA, LAGINA ETA LAGIN-ERROREA (IPAR / HEGO ETXABAKOITZ)			
	Unibertsoa <sup>6</sup> ( < 16 urte)	Lagina	% 95aren lagin-errorea (konfiantza-maila)
Ipar Etxabakoitz	1989	70	% 11,5
Hego Etxabakoitz	2522	187	% 6,9
Guztira	4511	257	% 5,9

Iturria)(Geuk egina

### c) Landa-lana

Landa-lana ere parte-hartzailea izan zen. Borondatez inkestazaile aritzeko prest zeuden hainbat profiletako pertsonak bilatu zituen Talde teknikoak (TT). Prestakuntza-saio bat izan zuten pertsona horiek (zenbait saio egin ziren, inkesta egin zitzairen pertsonen tarte libretara egokitzeko), zeinean zehaztasunez azaldu baitzitzaizkien proiektua eta galdetegiaren ezaugarri nagusiak. Ikasleek eta Talde teknikoko (TT) partaideek ere parte hartu zuten galdetegiak egiten.

31. eta 32. irudiak)(Inkestazaileen formakuntza



Iturria)(Geuk egina

Profilen orri horrez gainera, karpeta bat, boligrafo bat, galdetegi egokiak eta proiektuari buruzko informazio-orri bat (gaztelaniaz, euskaraz eta arabiarrez) jaso zituen pertsona bakoitzak.

<sup>5</sup> 2016ko apirilaren 1eko Etxabakoizko biztanleen erroldan oinarrituta eraiki da unibertsoa.

<sup>6</sup> Biztanleen erroldaren zenbatespen batean oinarrituta eraiki da unibertsoaren kalkulua.



### 33. irudia) (Informazio-orria, zenbait hizkuntzatan)



#### Información sobre el cuestionario

**¿Qué es un cuestionario?**  
Es una herramienta de investigación social que busca recoger información representativa de un determinado universo de personas.

**¿A quién va dirigido?**  
A vecinos y vecinas de Etxabakoitz, tanto autóctonas como inmigradas.

**¿Es voluntario?**  
Sí, claro. Ninguna persona está obligada a contestarlo. Aquellas que lo hagan, pueden también dejar de contestar cualquier pregunta que consideren.

**¿Se remunera a las personas encuestadas?**  
No. Tampoco a las encuestadoras. Ninguna persona de Etxabakoitz está cobrando por su participación.

**¿Quién puede ser encuestador/a?**  
Cualquier persona que sepa leer y desee hacerlo. Para ello es necesario dar su nombre y recibir formación previa.

**¿Qué hacer con los cuestionarios rellenados?**  
Tienen que ser entregados lo antes posible en los siguientes lugares: Unidad de Barrio, Párroquia, etc.

#### معلومات حول المشروع

ما هو **Etxabakoitzcon** / **Etxabakoitzzenelkar** ؟  
بحث و عمل مشترك بهدف إلى القيام بتحليل لمعرفة و تعزيز التعايش بين السكان. Etxabakoitz.

**من الذي يقوم به ؟**  
فريق من جامعة نافارا التعاون مع ممثلي المنظمات والمجتمعات المحلية ، الخدمات الاجتماعية ، مركز صحي و المجتمع الرياضي و ANAFE أبرشية ، حزاب.

**من الذي يجره و يموله ؟**  
المشروع محرك و ممول من طرف بلدية بايبلونا .

**ما الذي قمنا به لحد الساعة ؟**  
تحريك فريق تقني لتخطيط المشروع و- فريقين لمناقشته - لمعرفة آراء مختلفة و متنوعة حول التعايش في Etxabakoitz .

**و ابتداء من الساعة ما الذي سنفعله ؟**  
سنقوم ب 300 استطلاع ( 100 للسكان المهاجرين و 227 للسكان الأصليين ) في نفس الوقت سنشكل ما نسسميه " مجموعة مفتوحة " فيها سوف نلبي التحليل المشترك و اجمع الاقتراحات حول تحسين التعايش .

### Iturria) (Geuk egina)

Inkestatzaile-kopuruaren arabera banatu zen landa-lana; inkestatu beharreko profilen fitxa bat eman zitzairen (ikusi 4. ERANSKINA). Horri esker, laginaren aniztasuna eta, hein batean, ausazkotasuna, bermatu ziren. Pertsona bakoitzak adin eta sexu ezberdineko hamar pertsona elkarrizketatu behar zuen, gutxi gorabehera.

### 34., 35., 36., 37., 38. eta 39. irudiak) (Landa-lana galdetegiarekin)



### Iturria) (Geuk egina)

## AMIA dinamika

Etxabakoizko elkarbizitzan ahulguneak (A), mehatxuak (M), indarguneak (I) eta aukerak (A) identifikatuta informazioa jasotzeko formula bat da AMIA teknika. Hobetzeko proposamenen ariketa bat ere barne hartzen du logika honek. 2016ko maiatzaren 27an garatu zuen Talde teknikoak (TT).

AMIA teknikatik eratorritako proposamenak eta diagnosi-ekarpenak txosten honetako emaitzen ataletan eta 5. ERANSKINean erantsi dira. Jasotako ideia eta proposamenen literaltasunari lehenetasuna eman zaio, Talde teknikoaren (TT) saioko azpitaldeetan adostu baitziren.

Dinamika bereziki emankorra izan zen, Iruñeko Udaleko hiru ordezkariak ere parte hartu baitzuten, hots: Edurne Eguino (Gizarte Ongizateko zinegotzia), Marisol de la Nava (Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna alorreko zuzendaria) eta Armando Cuenca Pina (Etxabakoitz auzoko zinegotzia). Horri esker, Talde teknikoak (TT) eta Udaleko ordezkari horiek, zeinek ardura teknikoa baitute Etxabakoitz, zuzeneko interpelazioa izan zuten.

40., 41., 42. eta 43. irudiak) Talde teknikoa AMIA teknika lantzen



Iturria) Geuk egina

## Nerabe-taldea

Auzoko nerabeekin lan-saio txiki bat egiteko aukera jaso zen Talde teknikoaren bileretan, haien ahotsek ere tarte bat izan zezaten diagnosian. Etxabakoitz Bizirik gizarte-heziketako elkarteak parte-hartze aktiboa izan zuenez Talde teknikoan (TT), errazagoa izan zen gehienetan diagnosietatik kanpo geratzen den kolektibo horrekin lan egitea.

Ahalik eta nerabe gehienek parte hartzeko aukera izan zezaten, gutun bat egin zen (euskaraz eta gaztelaniaz), eta 12 eta 16 urte bitarteko nerabeak bizi ziren Etxabakoitzko etxe guztietara bidali zen (6. eta 7. ERANSKINAK).

Saioan (2016ko ekainaren 10ean egin zen) auzoaren irudikapen grafikoekin egin zen lan, bi ikuspuntutatik. Alde batetik, nerabeek auzoko eguneroko errealitatea nola ikusten duten jaso zen. Eta, bestalde, errealitate hori nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen jaso zen. Azpialde bakoitzak azaldu zituen errealitate horiek, eta kartoi meheetan irudikatu zituzten. Ariketa horri esker, argi identifikatu ziren gabezia nagusiak eta nerabeen eskaerak.

Dinamikaren une batzuk eta nerabeen irudikapenak ditugu beheko irudi hauetan. 8. ERANSKINean zehaztasunez jasotzen dira emaitza guztiak.

44., 45., 46., 47., 48. eta 49. irudiak)(Nerabe-taldearekiko dinamika



Iturria)(Geuk egina

## Talde irekia

Informazioa jasotzeko tresna bat da Talde irekia (TI), baina, horrez gainera, elkarbizitza gauzatzeko mekanismo bat ere bada. Lan egiteko eta elkarbizitzari buruz gogoeta egiteko prest dauden pertsona guztientzako espazio ireki bat eraikitzea da helburua. Diagnosi-prozesuaren baitan, informazioa jasotzeko eta hura kontrastatzeko aukera berri bat da.

Dinamika hori gauzatzeko, jarraian dagoen argazkian ikusten denez, ekimenari buruzko informazioa zabaldu zen kartelen bidez hiru hizkuntzatan (arabieraz, gaztelaniaz eta euskaraz), auzoko aniztasunaren erakusgarri (9. ERANSKINA). Talde teknikoak (TT) kartelak jarri zituen eta ekitaldiari buruzko informazioa zabaldu zuen, auzoko kontaktu-sareez baliatuz.

### 50. irudia | Talde irekiaren (TI) deialdiaren hedapena



Iturria | Geuk egina

Talde irekiaren deialdia (2016ko ekainaren 16an, 19:30ean, Nicasio de Landa Ikastetxe Publikoan) auzoko hauteskunde-ekintza batekin batera egin zen, eta horrek eragina izan zuen parte-hartzaileen kopuruan. Hamabost pertsona joan ziren. Talde anizkoitza izan zen, hainbat jatorritako eta profiletako jendea elkartu baitzen.

Saioaren dinamikari dagokionez, diagnosiaren ezaugarriak eta prozesuaren egoera azaldu ziren labur, eta lanerako dinamika bat gauzatu zen, Etxabakoitzko elkarbizitzari buruzko gogoeta kolektibo eta propositibo bat barne hartzen zuena (10. ERANSKINA).

Saioaren emaitzez ari garela, oso emankorra izan zen, eta, gainera, prozesu honen bidez lortu nahi denaren adibide izan zen; hots: elkarbizitzarako espazioak sortzea. Talde irekiaren (TI) dinamikako une batzuk ikusten dira jarraian datozen argazkietan.

51., 52., 53., 54., 55., 56., 57. eta 58. irudiak)(Taldea irekiaren (TI) dinamika



Iturria)(Geuk egina

Etxabakoitzko elkarbizitzaren alderdi positiboak eta negatiboak identifikatzeko ariketa eta hobetzeko proposamenak azken emaitzetan jaso dira, eta 11. ERANSKINEan kontsultatu daitezke.

Prozesuaren dinamikaren deskribapenean adierazten denez, Talde irekiarekin (TI) bukatu zen Etxabakoitzko landa-lana. Jarduera guztien bidez jasotako informazio guztia aztertu eta emaitza nagusiak eraihi ziren hurrengo hilabeteetan.

### **Emaitzak aurreratzea Iruñeko Udaleko Gobernu Taldeari**

Jasotako informazioa aztertu ostean, Iruñeko Udaleko Gobernu Taldeari aurkeztu zitzaizkion emaitza nagusiak, 2017ko urtarrilaren 17an.

Gertuko giroa sortu zen (ikusi 59. eta 60. argazkiak), diagnostik eratorritako gai nagusiez aritu ziren, eta batzuen eta besteen ikuspuntuak kontrastatu zituzten.

#### **59. eta 60. irudiak**(Emaitzak aurreratzea Udaleko Gobernu Taldeari



Iturria|Geuk egina

Emaitza nagusien berri emateaz gainera, Udaleko Gobernu Taldea astebete geroago egitekoa zen emaitzen jendaurreko aurkezpena gonbidatzea zen helburua.

### **Emaitzak aurreratzea auzoko erakundeei**

2017ko urtarrilaren 17an, arratsaldean, Etxabakoitzen lan egiten duten erakundeei aurkeztu zitzaizkien diagnosiaren emaitza nagusiak. Lortutako emaitzetako batzuk aztertzeko balio izan zuen emaitzen aurrerapen horrek, eta, gainera, erakunde horiei laguntza eskatu zitzaian astebete geroago egingo zen emaitzen aurkezpen publikorako.

#### **61. eta 62. irudiak**(Emaitzak aurreratzea auzoko erakundeei



Iturria|Geuk egina

Saio hori oso baliagarria izan zen azaldutako ideia nagusietako batzuk zehazteko, eta, era beran, diagnosi-prozesurako informazio berria gehitzeko.


## Diagnosiaren emaitzen aurkezpen publikoa

Diagnosiaren emaitzen aurkezpen publikoaren bidez, jasotako informazioa itzuli zitzaion auzoari, baina, horrez gainera, elkarbitzita gogoetarako eta eztabaidarako gai bilakatzeko aukera bat ere izan zen.

Beraz, emaitza nagusien aurkezpena bera ere diagnostik eratorritako ideia nagusiak kontrastatzeko (kasu honetan, ez hain modu egituratuan) beste formula bat da. Horrenbestez, ahalegin handia egin zen ekitaldi hori antolatzeko, eta pertsona asko aritu ziren lanean.

Lehenik eta behin, zabalkunde handia eman zitzaion ekitaldiari, komunikazio-formula erabilgarri guztien bidez (zuzeneko telefono-kontaktuak, kartelak, sare sozialak, etab.). 63. eta 64. irudietan ikusten denez, deialdiaren zabalkunde erraztuko zuen irudi erakargarri bat sortu nahi izan zen (12. ERANSKINean jasotzen da kartela).

### 63. eta 64. irudiak)(Aurkezpen publikoaren berri zabaltzeko euskarriak



Iturria)(Geuk egina

Aurkezpena prestatzeko lanetan, aurkezpenerako espazioa (Nicasio de Landa Ikastetxe Publikoa) ekintzaren ezaugarrietara egokitu zen. Iruñeko Udaleko protokolo-arduradunak lagundu zuen egokitze horretan.

### 65. eta 66. irudiak)(Aurkezpen publikorako prestatze-lanak



Iturria)(Geuk egina

2017ko urtarrilaren 25ean, asteazkenez, egin zen emaitzen aurkezpen publikoa. Hainbat jatorritako auzoko biztanleek eta auzoan lan egiten duten profesionalak parte hartu zuten ekitaldian. Diagnosiaren ezaugarri nagusiak aurkeztu ziren parte-hartze laburren bidez; Iruñeko

Udaleko agintari nagusi den Joseba Asiron alkateak ere parte hartu zuen. Gero, txosten hau osatzen duten emaitza nagusiak aurkeztu zituen Talde teknikoak.

Jende asko eta mota askotakoa izan zen ekitaldian (ikusi beheko irudiak), eta eremu sozial eta profesional askotakoak (hezkuntzakoak, soziala, politikoa, elkarteetakoak, etab.).

67., 68., 69., 70., 71. eta 72. irudiak)(Emaitzen aurkezpen publikoa



Iturria)(Iruñeko Udala

Diagnosi-prozesuan parte hartu zuten pertsoneri aintzatespen publiko bat egitea izan zen emaitzak aurkezteko ekitaldiaren helburu nagusietako bat. Horretarako, prozesuan parte hartu izana ziurtatzen zuten diplomak banatu ziren.

Auzo guztiak egindako lan handiarekiko konpromisoaren erakusgarri izan zen hiriko alkatearen parte-hartzea, eta hala erakusten dute irudi hauek.



73., 74. eta 75. irudiak)(Diagnosian parte hartu zuten pertsonen aintzatespena



Iturria)(Joseba Ginés eta Iruñeko Udala

Oinarri teorikoen atalean azaldu genuenez, informazioa bilatzeaz gainera, elkarbizitzari lagunduko dioten espazioak sortzea ere bada diagnosiaren asmoa.

Helburu horrekin, auzoko biztanleek prestatutako produktuak dastatzeko eta azaldutako emaitzei buruzko iritziak partekatzeko espazio bat egokitu zen aurkezpen publikoaren ondoren. Hala, “nekez gertatuko liratekeen elkartzeak” bideratu nahi izan ziren, auzoko eguneroko errealitatea osatzen duten ohiko logika batzuk alde batera uzteko. Aperitiboan “nekez gertatuko liratekeen elkartzeak” gertatu ziren, eta irudi hauetan ikusten dira une horiek.

## 76. eta 77. irudiak)(Nekez gertatzeko elkarteen espazioa emaitzen aurkezpenaren ondoren



Iturria)(Geuk egina

### Behin betiko txostena egitea eta berrikustea

Diagnosiaren emaitzen aurkezpen publikoaren ostean, eta prozesuan zehar idatzitakoan oinarrituta, txosten honen azken bertsioa egin zen. Prozesuaren amaieran itxi zenez dokumentua, alde batetik, egindako ibilbide osoa azaldu ahal izan zen, eta, bestalde, emaitza berriak eta azken eguneratzeak barne hartu ahal izan ziren.

Berrito ere azpimarratu behar da prozesua parte-hartzailea izan dela. Talde teknikoari (TT) Nafarroako Unibertsitate Publikoko taldeak egindako aurretiazko txosten bat aurkeztu ondoren egin da behin betiko txostena, aurretiazko txosten hori berrikusi eta jasotako ekarpen ugariak kontuan izanda aldatu eta osatu ostean. Azken finean, Etxabakoizko biztanleen eta profesionalen lanaren ondoriozko emaitza kolektibo parte-hartzaile bat da txosten hau.

### Ordezkaritza-espektroa eta partaidetza-datuak

Prozesuaren deskribapenarekin bukatzeko, lortu diren partaidetza eta heterogeneotasuna nabarmendu behar dira. Espektro zabal eta askotariko bat osatzen dute eragile guztiek. Taula honetan, diagnosiaren fasean parte hartu duten eremuak, pertsonak eta taldeak jasotzen dira:

#### 15. taula)(Parte hartu duten eremuak, taldeak eta pertsonak

EREMUAK	PERTSONAK/TALDEAK
POLITIKOA	Auzoko zinegotzigoa
SOZIALA	Iruñeko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
HEZKUNTZAKOA	Nicasio de Landa Ikastetxe Publikoa / Haur-eskola
ERLIJIOZKOA	Pilareko Andre Mariaren parrokia
OSASUNGITZAKOA	Etxabakoizko osasun-zentroa
KIROLEKOA	ETXABAKOITZ Kultur Kirol Elkarte
GIZARTE-HEZIKETAKOA	Etxabakoitz Bizirik Elkarte
ASOZIATIBOA	Etxabakoizko jai-batzordea eta auzo-elkarte
BITARTEKARITZAKOA	ANAFE-CITE fundazioa
ARTISTIKOA	Jazar - Sorkuntza artistikoko laborategia
MERKATARITZAKOA	43. zk.-ko estankoa / Etxabakoizko auto-eta maskota-garbitagia

Iturria)(Geuk egina

Hor adierazitako erakunde eta taldeez gainera, pertsona-kopuru esanguratsu batek ere parte hartu du diagnosian.

Taula honetan ikusten denez, pertsona askok (500 baino gehiago) parte hartu dute, gehiago edo gutxiago, aldez aurretik adierazitako jardueretan:

16. taula) (Jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua

JARDUERA	PERTSONA-KOPURUA
Proiektuaren hasierako aurkezpena	20
Talde teknikoa <sup>7</sup>	25
Eztabaida-taldeak	30
Inkesta erantzun dutenak	257
Inkestatzaileak	34
Nerabe-taldea	15
Talde irekia	15
Udalari emaitzak aurreratzea	11
Auzoko erakundeei emaitzak aurreratzea	12
Emaitzen aurkezpen publikoa	105
<b>GUZTIRA</b>	<b>524</b>

Iturria) (Geuk egina

Pertsona horien guztien partaidetzaren bidez egindako lanaren emaitza nagusiak ikusiko ditugu jarraian.

<sup>7</sup> Kasu honetan, Talde teknikoaren dinamikan parte hartu duten pertsonen kopurua bakarrik zenbatu da. Bertaratzeen kopuru totala ehun ingurukoa izango litzateke.

## emaitzak) (soziabilitate-egoera intentsuen aldiberekotasuna

Emaitzak oinarrizko hamabi ideia-aren bitartez aurkezten dira. Sintesi-lan handi bat egin da, alde batetik, auzoaren ikuspegi orokor bat emateko (lehenengo sei ideietan, batez ere), eta, bestetik, kulturarteko elkarbizitzaren espezifikotasunak eta ezaugarri bereizgarriak jasotzeko (atal honetako azken sei ideiak). Erabilitako ikerketa-tekniken bidez lortu diren ebidentzia kuantitatibo eta kualitatiboek bermatzen dituzte horietako ideietako bakoitza.

### Kanpoaldeko auzoa, historikoki abandonatua

Auzoaren kokapenarekin erlazionatuta dago diagnosi-prozesuan lortutako lehenengo ebidentzietako bat. Baina ez alderdi fisikoari eta lurraldeari dagokienez bakarrik: alderdi sinbolikoaz ere ari gara, hau da, irudikapenez.

Espazio fisikoari dagokionez, nabarmena da auzoak historian izan duen segregazio-egoera. Paragrafo honen azpian dauden argazkietan ikusten den bezala, auzoaren kokapen geografikoak, hiri-bide garrantzitsuek zeharkatzen duten arren, desabantaila eman dio auzoari hirigunetik gertuago dauden beste eremu batzuen aldean. Urruntasun fisiko horrekin batera, bestelako gabezia batzuk ere izan dira zerbitzuei, arretari eta bestelako alderdi batzuei dagokienez.

#### 78. eta 79. irudiak) (Auzoaren egoera historikoa




Iturria) (Martínez Iglesias (2015) eta MisPueblos.es

Adierazi dugunez, errealitate hori irudikapenen espaziora ere zabaltzen da. Auzoa hiri-inguruetan kokatuta egoteak utzikeria-sentimendu sendo bat eragin du iruditeria kolektiboan, zeina Etxabakoizko biztanleen diskurtsoetan identifikatzen baita oraindik. Esate baterako, elkarrizketa egin zaien pertsonen % 77,7k uste du auzoan zerbitzu publikoak falta direla, eta % 73,3k uste du auzo marjinatua edo abandonatua dela. Auzoak estigma negatibo handi bat du, zeina Iruñeko beste auzo batzuetako biztanleek ere elikatzen baitute. Iritsi berriek estigma hori identifikatzen dute, eta, gainera, gutxiagotasun-konplexu bilakatu da.

80. irudian, hiri osoaren bilakaeraren ondoren ere irauten duen bakartze fisikoa ikusten da:

80. irudia | Iruñeko hiri-garapenaren bilakaera urteka (1929-2014)



Iturria | Geuk egina SITNA plataforma erabilita

Azaldu dugunez, historikoki hiri-inguruan kokatu izanak harreman estua izan du beharrak izatearekin eta haiek zabaltzarekin. Jarraian, 1967ko ekainean aldizkari batean argitaratutako albiste bat dugu irudian: hiru eremu nagusitan beharrak daudela azpimarratzen du, hala nola etxebizitzaren, hezkuntzaren eta enpleguaren eremuetan.

81. irudia | Etxabakoizko behar historikoak (1967)



Iturria | (Tapia (2016)

Diagnosi honek ere arreta eskaini die hiru eremu horiei, baina errealitate ezberdinetatik. Egungo beharretako batzuk duela zenbait hamarkada auzoko zituen eta konpondu ez ziren beharretatik datozela erakusten digu horrek. Horregatik azpimarratu da lehenengo diagnosi-emaitza honetan auzoa “historikoki abandonatuta” egon izana.

Tekniken bidez jasotako diskurtsoak oso argiak dira, eta utzikeria horren zenbait dimentsio islatzen dituzte. Alde batetik, utzikeria-sentimendu orokorra, logika historikoa eta irudikapenen espazioa elkartzen dituen, eta, halaber, hiriko beste gune mugakide batzuei emandako tratuarekiko diskriminazioa jasatearen sentimendua:

“Oso utzita gauzkate”. (IJT)

“Hobetzeko asko dago, gauza asko falta zaizkigu. Egin beharra dago, ez baita hemen goiko herria bezalakoa, adibidez. Ez da gauza bera. Gauza asko falta zaizkigu umeentzat, asko falta da adinekoentzat, falta da, asko falta da”. (IAT)

*“Labezomorroak daude bide batean. Ni behe-solairu batean bizi naiz, eta alfonbra bat izan behar dut atean, beste bat korridorean, eta sartu aurretik oinak garbitu behar dira, egun guztia lanbasa pasatzen ibili behar duzulako. Bidean zulo handiak eta lokatz asko dago... Urteak dira eskatu genuela”. (IJT)*

*“Auzoa pixka bat diskriminatuta dago”. (IJT)*

Utzikeria-errealitate hori dela eta, udal-erakundeek zuzeneko ardura garbi eta historiko bat dute, behar horiei erantzun behar baitiete. Lekukotasun ugari areagotzen dute errealitate hori:

*“Udalak abandonatuta gauzka beti, bai”. (IJT)*

*“Elkarrekin konpontzen eta elkarri laguntzen ari gara. Inor ere ez dator hona laguntzera” (IAT)*

*“Beroak hasi diren sasoi honetan, labezomorro asko ateratzen dira; ba etor daitezela Udalekoak fumigatzera eta abar, asko kostatzen baitzaie etortzea, bale? (...) Mamorro asko dabil (...) Lorategi horretako soropila mozten dute, eta arratoiak ateratzen dira, belarretan, espaloietan eta toki guztietan zehar ibiltzen dira”. (IJT)*

*“Euria egiten duenean ibaiari adi egoten gara beti, ez baitute inoiz garbitzen. Orain hesiak eta denetarik dago eta ondo prestatuta daude, baina ez dutenez garbitzen...*

*- Udan kiratsa dario.*

*- Lau atzamartxo geratzen dira urak gainezka egin dezan. Beti gaude ibaira begira; izan ere... urak ez nau ni hor harrapatuko, baina, adibidez, auzo-erdi... auzo-erdi beharbada lehenengo solairuraino ez, baina auzo-erdi urez betetzen da... Arazo hori dugu beti, ez dutela ibai garbitzen, uholdea etortzen da, enborrak geratzen dira. Inork ez ditu kentzen, eta arazoa auzokoentzat da, urak gainezka egiten duelako; askotan egin du gainezka, askotan eta askotan”. (IJT)*

## 82. eta 83. irudiak (Auzoko irudiak)



Iturria | RLasaoa (<https://www.flickr.com/photos/rlasaoa/>)

Gainera, udal-erakundeekiko harreman eta eskaerek ez dute balio izan utzikeria-sentsazio hori sortzen duten arazoak konpontzeko. Aitzitik, erantzunik ezak egoera hori areagotzen du, eta errealitate hori atzeraelikatuz joaten da:

*“Hau, hau, pixka bat ahaztuta daukate, erabat, denetarik baitago, mamorroak, labezomorroak, arratoiak, denetarik... Oso zikin dago, oso oso zikin... Hemen Udalarekiko bilera asko egin dira, baina hitzak baino ez dira, ulertzen didazu?*

*- Bai.*

*- Lotuko dut, utziko dut, idatziz jasoko dut... eta ez dakit zer eta badakit zer. Baina inoiz ere ez dira egitera iristen. Garbitasuna behar dugu, ibaia garbitzea, eta beste gauza asko”. (IJT)*


*“Edonola ere, hiru aldiz izan gara Udalean, eta ez digute kasu askorik egiten, eta Auzoko Unitatera etorri behar duzu, ni askotan etorri naiz, gizarte-laguntzailearekin hitz egitera (...) asko kostatzen baitzaie etortzea, bale? Eta ez dute kasu askorik egiten, ulertzen?”. (IJT)*

*“Espaloiak oso gaizki daude, adinekoak, haurrak eta guztiak erortzen baitira (...) Urteak igaro ondoren zementuzkoak egin zituzten, eta a zer-nolako zuloak dauden, oina sartzen zaizu eta haurrak eta guztiak erortzen dira...*

*- Baina hori atzo etorri zenarekin ikusten da, guztia idatzita, guztia idatzita. Eta iaz etorri zenarekin... guztia idatzita. Joan diren urte guztietan guztia idatzita geratzen da, baina ezin dute auzora ekarri... ulertzen duzu zer esan nahi dizudan, ezta? Hitzak baino ez”. (IJT)*

Galdetegiaren emaitzek sentimendu hori berresten dute. Etxabakoitz auzo abandonatu eta marjinatu gisa ikusten duten galdetu zaienean elkarrizketan parte hartu duten pertsonei, % 73,3k “oso ados nago” eta “nahiko ados” aukerak erantzun dituzte, eta, % 26,7k, “ez oso ados” edo “ez nago batere ados”:

#### 6. grafikoa) (Etxabakoitzzen pertzepzioa auzo abandonatu/marjinatu gisa




Iturria) (Geuk egin [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(biz)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Datuen arabera, pertzepzio hori auzo guztiak du, baina datuak zehatzago aztertuz gero, ikusten da pertzepzio hori nabarmenagoa dela hegoaldean. 7. grafikoa ikusten denez, auzoaren hegoaldean (Urdanoz, Chocarro, Barcos, Arostegi, etab.) elkarrizketa egin zaien 10 pertsonatik ia 8k uste dute auzo abandonatu edo marjinatu bat dela.




7. grafikoa) (Auzo abandonatuaren/marjinatuaren pertzepzioa (bizi diren eremuaren arabera))



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Datuek erakusten dutenez, auzo abandonatuaren pertzepzioak ez du zerikusirik jatorri-herrialdearekin. Hau da, jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko herrietan duten biztanleek eta atzerriko herrialdeetatik iritsitakoek antzeko ehunekoan dute pertzepzio hori. Jarraian dagoen grafiko honetan ikusten denez, hainbat jatorritako pertsonak uste dute auzoa abandonatuta eta marjinatuta dagoela:

8. grafikoa) (Auzo abandonatuaren/marjinatuaren pertzepzioa (jaio diren tokiaren arabera))



Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestatik abiatuta

Hona hemen auzoko biztanleek auzoa abandonatu gisa ikusten dutela garbi adierazten duen beste datu bat: auzoan zerbitzu publikoak falta direla uste dute. Jasotako diskurtsoetako

askotan jasotzen da ideia hori. Alde batetik, zerbitzuak galdu izanaren sentimendua; oinarrizko zerbitzu batzuk nabarmentzen dira, adibidez, janaria erosteko aukera izatea Etxabakoitzen bertan, hau da, ohiko bizitokian. Arazo hori hiriko beste eremu batzuetan ere badute:

*“Denden erdiak itxi dizkigute. Hemendik beste toki batera joan behar dugu. Hiru harategi izan ditugu, bizitza guztiko bi denda izan ditugu, zera ezagutu dugu...”. (IJT)*

*“- Natura asko bai, baina nik denda batzuk ere faltan botatzen ditut, ezta? Hemen ez dago saltoki askorik.*

*- Baina arazoa ez dago Etxabakoitzen bakarrik; Alde Zaharrean... zenbat antzinako denda itxi dituzte? Saltoki txikiak auzo guztietan ixten dituzte.*

*- Baina krisialdiagatik da, ala beste zerbaitengatik? Izan ere, duela hamar urte, Espainiara iritsi nintzenean, hemen ez zegoen dendarik.*

*- Baina... zer-nolako saltokiak maite dituzu zuk gehiago? Okindegia dugu.*

*- Adibidez, denda hori bazegoen ni iritsi nintzenean, baina ez dut ezagutzen beste dendarik.*

*- Saltoki-guneek jan dituzte denda horiek”. (IAT)*

#### 84. irudia) (Denda itxita, Etxabakoitzen



Iturria) (RLasaosa (<https://www.flickr.com/photos/rlasaosa/>))

Bestalde, hurrengo emaitzetan xehatuko denez, zerbitzu-eskasiak eragin handia du auzoan bertan sortzen diren harremanetan. Elkarrizketa-zati hauetan ikusten denez, beste auzo batzuetara joateko beharrak auzokoen artean harremanak sortzeko aukerak mugatzen ditu:

*“Gauza asko direla eta joaten zara, autoa hartu eta errotera joaten zara... Alaba ere beste auzo batera eramaten dugu eskolara. Nik ere beste auzo batean egiten dut lan, eta denbora gutxi izaten dugu auzokoekin egoteko hemen”. (IAT)*

*“- Gobernuak banku bat du, la Caixa*

*- Baina igogailuan igotzen bazara.*

*- Baina kontua da... zergatik ez du Etxabakoitzek?*

*- Arrazoi duzu. Zergatik ez du Etxabakoitzek? Barañainek badu. Han denetik dute.*

*- Baina ez duzu beharrik; seme-alabak izan ditzakezu, beharrak, denbora mugatua duzu...*

*- Hemen badago, baina astelehenetan eta ostiraletan irekitzen dute.*

*- Egunero...*

*- Astelehen eta ostiral, eta ostiral honetan ez dute irekiko, eta astelehenean, jai duelako...*

*- Baina kutxazaina badabil.*


*- Ez. Bost aldiz gertatzen denean...*

*- Gazteek beharbada ahalko dute, edo hiri guztian zehar ibil daitezke, baina auzotik ateratzen ez diren pertsonak, 93 urterekin, gutxieneko batzuk behar dituzte hemen auzoan”.*

*(IAT)*

Ildo horretan, eta adierazi dugun moduan, beheko grafiko honetan ikusten da inkesta egin dutenen % 77,7k hautatu dituztela “oso ados nago” eta “nahiko ados” aukerak Etxabakoitzko zerbitzu publikoen gabeziari buruz galdetu zaienean. Hau da, lehen behar historikotzat adierazitako beharrek oraindik ere jarraitzen dutela azpimarratzen da.


#### 9. grafikoa) Zerbitzu publikoen gabeziari buruzko pertzepzioa



Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzene](#)<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Emitza horiek bizitoki-eremuaren arabera bereizten baditugu, hurrengo grafikoan (10. grafikoa) ikusten denez, askoz nabarmenagoa da zerbitzu publikoen gabeziari buruzko iritzia Hego Etxabakoitzan.


10. grafikoa) (Zerbitzu publikoen gabeziari buruzko pertzepzioa (bizitoki-eremuaren arabera))



Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestatik abiatuta

Emaitzak biztanleen jatorriaren arabera aztertuz gero, zerbitzu publikoen gabezia neurri handiagoan nabaritzen dute atzerritar jatorriko biztanleek: ia hamar puntuko diferentzia dago jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duten biztanleekiko.

11. grafikoa) (Zerbitzu publikoen gabeziari buruzko pertzepzioa (jatorriaren arabera))



Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestatik abiatuta

Auzotik gutxien gustatzen zaizkien alderdiei buruzko galdera irekiarekin ere berresten dira alde zuzenaz azaldu diren ideiak. 12. grafikoan ikusten denez, abandonua eta zerbitzuen gabezia, eta elkarbizitzako arazoak, zeinak gero zehaztuko baitira, dira ehuneko handienak dituzten erantzunak:

## 12. grafikoa)(Auzotik gutxien gustatzen zaienari buruzko erantzunak



Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>vive</sup> / [Etxabakoitzene](#)<sup>elkar</sup>)<sup>bizi</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Auzoan bizi diren pertsonen abandonu- eta marjinazio-pertzepzioa jasotzen da aurkeztutako diskurtso eta datuetan. Hala ere, pertsona berek diote hiriko beste eremu batzuetan bizi diren iruindarrek Etxabakoitzi buruz duten iritziari eragiten diela pertzepzio horrek:

*“Nik urte eta erdi daramat hemen, Etxabakoitzen, eta oso ongi sentitu naiz, baina jendeak... Hemen bizi ez den jendeak auzoari buruzko irudi txarra izaten du batzuetan. Baina jendeak uste duen bezala, hemen... ez baitago arazorik. Hemen lasai bizi gara”. (IAT)*

Gertaera hori gorabehera gisa jasotzen da eguneroko bizimoduko alderdi batzuetan, kasurako, garraio-zerbitzu jakin batzuetarako irisgarritasunean:

*“Nik asko bidaiatzen dut «Blablacar»ekin, errazagoa eta erosoagoa delako. Nik zera eskatzen dudanean... jaso nazakezu Etxabakoitzen? Jendeak “ez” esaten du. Ez dakit, hemen oso bestelako toki bat, toki ezezagun bat, dagoela iruditzen zaizu, ezta?”. (IAT)*

Azken testigantza horrek frogatzen duenez, Etxabakoitzko biztanleek irudikapen negatibo horiek ukatzen dituzten arren ez datozelako bat auzoko eguneroko errealitatearekin, eragina dute pertenezia-sentimenduan, eta lotsa-sentimendu bat ere eragiten dute:

*“Batzuk lotsatu egiten dira Etxabakoitzen bizi direla esateaz”. (NET)*

Azkenik, esan beharra dago utzikeria- eta marjinazio-egoerari buruzko iritzia duela gehiengoak, baina auzoan pertzepzio-desberdintasunak daudela frogatzen duten diskurtsoak ere jaso dira. Errealitate berari buruzko ideien arteko kontrastea nabarmentzen den adibide batzuk daude.

Alde batetik, auzoaren kokapen bakartua positibotzat hartzen da batzuetan. Izan ere, diskurtso gehienek orube abandonatuetatik eratorritako arazoak nabarmentzen zituzten, baina beste batzuek positibotzat dute alderdi hori, natura eta landa-espazioa hurbilago izatea atsegin baitute:

*“- Niri gehien gustatzen zait zeraren erdian zaudela dirudiela...*

*- Landa-ingurunean gaude...*

*- Landa-ingurunean...*

*- Landa-ingurunean gaude.*

*- Eta, orain, udaberrian... gozamina da.*

*- Eta hor beheko zubi horrekin, zoragarri gaude”. (NET)*

*“Etxabakoitzek gauza onak eta gauza txarrak ditu. Eta gauza on asko ditu, hori ikusiko zenuten dagoeneko. Nork esan ote dezake leihora atera eta galsoro bat ikusten duela, edota halako, halako... pasealdi landatarrak egin ditzakeenik. Hori niretzat oso positiboa da”. (NET)*

#### 85. eta 86. irudiak)(Etxabakoizko irudiak



Iturria)(RLasaosa (<https://www.flickr.com/photos/rlasaosa/>)

Bestalde, auzo hiriaren kanpoaldean egotea positibotzat hartzen da batzuetan, kokapen geografikoaren ondoriozko lasaitasun-pertzepzioaren onurak direla eta:

*“- Beti esaten diot jendeari... Etxabakoitz? Bai, begira, paradisua balitz bezala. Han lasai bizi gara, inork ez dio trabarik egiten inori, eta natura oso ongi, alde horretatik oso ongi dago...*

*- Kaleak pixka bat hondatuta dituela, zuk esan duzun moduan, hobetzeko asko dago...*

*- Bai, egia.*

*- Eta garbitasun pixka bat, eta... baina hori, lasaitasuna, eta...*

*- Bai”. (IAT)*

Laburbilduz, hainbat perspektiba dauden arren, Etxabakoizko utzikeria- eta marjinazio-irudikapena da nagusi, eta horrek auzoaren irudikapenei eragiten die, bai auzokoen artean, bai auzotik kanpo bizi diren pertsonen artean.

## Harrera-auzoa eta aniztasuna

Auzoaren identitatearen beste elementu bereizgarri bat da hainbat jatorritako migrazio-fluxuetatik (probintziakoak, probintziartekoak eta atzerrikoak) eratu izana; ezaugarri horrek auzoaren identitatea osatu du. Beraz, historikoki hirira iritsi-berriak jaso dituen auzo bat da Etxabakoitz; biztanleria immigratuari harrera egiten dion auzo bilakatu zen, eta aniztasuna da haren ezaugarri nagusietako bat.

Auzoaren historian bereziki esanguratsuak izan ziren berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan izandako fluxua: espainiar estatuko beste eremu batzuetatik, batez ere Andaluziatik eta Extremaduratik, etorri zen jende asko. Jende-etorrera horrek auzoaren hedapenean lagundu zuen, eta hiri-garapenak gauzatu ziren, hala nola Grupo Urdánoz. Gainera, aniztasunaren ezaugarri genealogikoa eman zion auzoari; ijito-familien kopuru esanguratsuak ere areagotu zuen ezaugarri hori.

87. irudia | Grupo Urdánozen airetiko bista, eraiki ondoren




Iturria | Iruñeko Udalaren Agiritegia

Azken urteetan auzora iritsi diren atzerritar jatorriko pertsonak direla eta, auzoko kultura-aniztasunaren mapa zabaldu egin da: 65 herrialdetako pertsonen bizileku da auzoa, zeinak hainbat erlijiotakoak baitira, oso bestelako identitateak baitituzte eta gai baitira zenbait hizkuntzatan komunikatzeko elkarren artean. Aniztasun hori izango da eta da auzoaren identitatearen faktore bereizgarrietako bat, eta presentzia argia du diskurtsoetan ere:

*“Ba bai, bagaude zenbait, zenbait... argi esateko, zenbait arrazatako pertsonak gaude. Ijitoak gaude, ijito ez direnak, mairuak, kolonbiarrak...”. (IJT)*

Beheko grafiko honetan ikusten denez, elkarrizketa egin zitzaizen pertsonen % 84,4 “oso ados” eta “nahiko ados” daude Etxabakoitz auzo multikulturala dela esan zaienean. Hau da, auzoko biztanleen gehiengoak adierazten du auzoaren aniztasunaren errealitatea.


13. grafikoa) (Auzo multikulturalari buruzko iritzia)



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitz.con](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitz.en](#)elkar<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Bizitokiaren arabera bereizketa bat eginaz gero, Hego Etxabakoitz bizi diren pertsonen errealitate hori gehiago adierazten dutela ikusten da. Auzoko hegoaldean dagoelako aniztasun gehien gertatzen da hori, oro har.

14. grafikoa) (Auzo multikulturalari buruzko iritzia (bizitoki-eremuaren arabera))




Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitz.con](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitz.en](#)elkar<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta



Elkarrizketatutako pertsonen jatorria aintzat hartuta, jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duten pertsonak esaten dute, neurri handiagoan, Etxabakoitz auzo multikultural bat dela.


15. grafikoa)(Auzo multikulturalari buruzko iritzia (jatorriaren arabera)



Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Adierazi dugunez, auzoaren beraren izaera plurala da auzoaren izaera anizkoitzari buruzko gehiengoaren erreferentzia horren azalpena. Jatorrien aniztasuna aintzat hartuta, datorren grafiko honetan jasotzen denez, eta gaur egungo biztanleria erreferentzia hartuta, auzoko biztanleen erdia baino pixka bat gehixeago (% 55,2) Nafarroako Foru Erkidegoan jaio da, % 21,3 espainiar estatuko beste lurralde batzuetan jaio dira, eta, % 23,4, atzerrian.

16. grafikoa)(Etxabakoitzko biztanleriaren jatorria)



Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Lehenago esan dugunez, espainiar estatuko beste herri batzuetatik etorritako migrazio-fluxuek osatu izan dute auzoa zenbait garaitan. Ondorioz (ikusi datorren taula), espainiar estatuko probintzia guztietako jendea bizi da gaur egun auzoan, Almeríakoak izan ezik (Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako jendea ere badago).

17. taula) Etxabakoitzen bizi diren eta jatorriz estatukoak diren pertsonak jaio ziren probintzia

PROBINTZIA	PERTSONAK	%	PROBINTZIA	PERTSONAK	%
CÁCERES	120	10,7	SEGOVIA	15	1,3
JAÉN	111	9,9	OURENSE	12	1,1
BADAJOZ	78	7,0	ZAMORA	12	1,1
GIPUZKOA	68	6,1	TOLEDO	11	1,0
ZARAGOZA	62	5,5	MURTZIA	10	0,9
MADRIL	52	4,7	ÁVILA	7	0,6
BURGOS	49	4,4	BALEAR UHARTEAK	6	0,5
ERRIOXA	41	3,7	LUGO	6	0,5
BIZKAIA	40	3,6	MÁLAGA	6	0,5
BARTZELONA	36	3,2	ALACANT	5	0,4
LEÓN	32	2,9	HUELVA	5	0,4
SALAMANCA	32	2,9	PONTEVEDRA	5	0,4
SORIA	30	2,7	ALBACETE	3	0,3
KANTABRIA	25	2,2	CUENCA	3	0,3
ASTURIAS	24	2,1	GIRONA	3	0,3
CIUDAD REAL	24	2,1	GUADALAJARA	3	0,3
VALLADOLID	20	1,8	MELILLA	3	0,3
HUESCA	19	1,7	TARRAGONA	3	0,3
PALENTZIA	17	1,5	CASTELLÓ	2	0,2
CORUÑA	16	1,4	CEUTA	2	0,2
ARABA	16	1,4	LAS PALMAS	2	0,2
KORDOBA	16	1,4	SANTA CRUZ TENERIFEKOAK	2	0,2
SEVILLA	16	1,4	LLEIDA	1	0,1
VALENTZIA	16	1,4	TERUEL	1	0,1
CÁDIZ	15	1,3	<b>GUZTIRA</b>	<b>1118</b>	<b>100,0</b>
GRANADA	15	1,3			

Iturria) Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilita

Grafikoan ikusten denez, gaur egun auzoan bizi diren pertsonak jaio diren tokien artean, Cáceres (% 10,7), Jaén (% 9,9) eta Badajoz (% 7) dira presentzia gehienekoak.

Espainiar estatuko herrietatik migrazio-fluxuak une honetan ere gertatzen dira, eta, beraz, auzoaren aniztasunaren iturrietako bat dira.

Baina jatorri-aniztasuna azken hamabost urteotan areagotu da bereziki, nazioarteko migrazio-fluxuen ondorioz. Lehenago izandako mugimenduetan bezala, eta mugimendu horiek arrazoi askoren ondorioz (kulturalak, sozialak, politikoak, humanitarioak, etab.,) gertatzen direla aintzatetsita, bizi-baldintzak hobetu nahi dituzten pertsonak dira haien protagonista.

Ondorioz, atzerritar jatorriko pertsonak errealitate bat dira auzoan. Erroldan egiazta dezakegu errealitate hori, jaioterriaren datua kontsultatuta. Lehen esan dugunez eta taula honetan egiaztatzen denez, Etxabakoitzen bizi diren pertsonen 65 herrialdetan dute jaioterria.

18. taula) (Etxabakoitzen bizi diren pertsonen jaioterria


HERRIALDEA	PERTSONAK	%	HERRIALDEA	PERTSONAK	%
EKUADOR	181	14,7	ALEMANIA	4	0,3
KOLONBIA	140	11,4	BOSNIA ETA HERZEGOVINA	4	0,3
ERRUMANIA	120	9,8	KONGO	4	0,3
MAROKO	113	9,2	EGIPTO	4	0,3
PORTUGAL	88	7,2	PAKISTAN	4	0,3
BULGARIA	69	5,6	ALBANIA	3	0,2
ALJERIA	41	3,3	ESPAINIAKO LUR. SUB. OHIA	3	0,2
PERU	30	2,4	INDIA	3	0,2
DOMINIKAR ERREP.	30	2,4	HERBEHEREAK	3	0,2
ARGENTINA	29	2,4	PARAGUAI	3	0,2
BRASIL	28	2,3	ERRUSIA	3	0,2
FRANTZIA	21	1,7	URUGUAI	3	0,2
MOLDAVIA	21	1,7	COSTA RICA	2	0,2
GHANA	19	1,5	KROAZIA	2	0,2
SENEGAL	19	1,5	FILIPINAK	2	0,2
KUBA	18	1,5	GINEA	2	0,2
NIGERIA	18	1,5	HUNGARIA	2	0,2
AEB .	17	1,4	KAZAKHSTAN	2	0,2
BOLIVIA	16	1,3	PANAMA	2	0,2
TXINA	16	1,3	TUNISIA	2	0,2
POLONIA	15	1,2	VIETNAM	2	0,2
MEXIKO	14	1,1	ANGOLA	1	0,1
UKRAINA	14	1,1	BANGLADESH	1	0,1
NIKARAGUA	13	1,1	BOLI KOSTA	1	0,1
VENEZUELA	13	1,1	ETIOPIA	1	0,1
TXILE	9	0,7	GEORGIA	1	0,1
HONDURAS	8	0,7	GREZIA	1	0,1
ITALIA	8	0,7	EKUATORE GINEA	1	0,1
SUITZA	8	0,7	IRLANDA	1	0,1
ERRESUMA BATUA	7	0,6	MAURITANIA	1	0,1
NEPAL	6	0,5	TXEKIAR ERREPUBLIKA	1	0,1
KAMERUN	5	0,4	<b>GUZTIRA</b>	<b>1228</b>	<b>100,0</b>
GUATEMALA	5	0,4			

Iturria) (Geuk egin, Iruñeko Udalaren datuak erabilia

Taulan ikusten denez, Ekuador (% 14,7), Kolonbia (% 11,4), Errumania (% 9,8), Maroko (% 9,2) eta Portugal (% 7,2) dira auzoko bost jaioterri nagusiak.

Datuen arabera, Etxabakoitz da atzerritar biztanleria handiena duen auzoetako bat. Hurrengo grafikoan (17. grafikoa) ikusten denez, atzerritarrek % 14,7 dira. Kasu honetan, eta lehenago adierazi dugunez, esan beharrekoa da nazionalitatearen arabera (datu erabilgarri bakarra auzoka) egin dela konparazioa, eta ez "jatorrizko nazionalitatea" aldagaiaren arabera, zeinak Etxabakoitzko aniztasunaren ikuspegi zehatzagoa emango bailiguke.


17. grafikoa) (Atzerritarren ehunekoa (Iruñeko auzoen arabera)



Iturria) (Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilia)

Hurrengo grafikoan (hor ere “atzerritar nazionalitatea” aldagaia hartzen da kontuan) ikusten da ehunekoa mantendu egin dela azken 15 urteetan, eta ehuneko hori Iruñeko batez bestekoa baino altuagoa dela. Hau da, atzerritar jatorriko biztanleria esanguratsu horren presentzia azken hamarkadetako elementu bereizgarri bat da.

18. grafikoa) (Etxabakoitzko atzerritar biztanleriaren bilakaera (2003-2017)



Iturria) (Geuk egina, Iruñeko Udalaren datuak erabilia)

Etxabakoitzten badira presentzia bereziki nabarmena duten beste aniztasun batzuk ere, dela jatorrizko nazionalitatearen ingurukoak, dela bestelako taldeetako pertentziaren ingurukoak. Aniztasun horren adibide ditugu, besteak beste, pertentzia-sentimendua, identitate etnikoa, erlijio-ohiturak eta hizkuntza.

Lehenik eta behin, eta hurrengo taulan ikusten denez, elkarrizketatutako pertsonen %7,4 “oso edo nahiko ijito” sentitzen da. Auzoko 334 pertsonari dagokie datu hori. Era berean, % 25,7 “oso edo nahiko euskaldun” sentitzen da, eta % 46,3, “batere ez”.

19. taula)(Pertinentzia-sentimendua

	Asko/nahiko	Gutxi	Batere ez	Ez daki	Ez du erantzun
Etxabakoitz	72,8	16,7	9,7	0,8	0,0
Iruindarra	78,6	9,7	4,7	7	0,0
Nafarra	78,6	8,2	8,2	5,1	0,0
Euskalduna	25,7	18,3	46,3	8,9	0,8
Espainiarra	65,4	14,4	11,7	8,2	0,4
Europarra	54,9	17,1	18,3	7,8	1,9
Ijitoa	7,4	12,5	66,9	20,6	0,0
Jatorrizko herria	17,1	1,9	3,9	-	-

Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Auzoko pertinentzia-adierazpenak jasotzen dira aurreko taulan, baina Etxabakoitzekiko dagoen identifikazio handia berresten du, batez ere (eta aurreko atalean azaldutako estigmaren eta irudikapenen eragina gorabehera); izan ere, elkarrizketatutako pertsonen % 72,8 “Oso/Nahiko” auzoko sentitzen dira.

Bigarrenik, erlijio-adierazpen ugari elkartzen dira auzoan. Hala ere, gogoan izan behar dugu “ateoa” eta “agnostikoa” aukerek ordezkatzen dituztela elkarrizketatutako pertsonen ia laurden bat, taula honetan ikusten dugunez.

20. taula)(Norberak praktikatzen duen erlijioa

	Maiztasuna	%
Batere ez (ateoa, agnostikoa)	63	24,6
Katolikoa	144	56,3
Ortodoxoa	1	0,4
Protestantea/ebanjelikoa/ beste kristau-izendapen batzuk	6	2,3
Judua	1	0,4
Islamismoa / musulmana	14	5,5
Budista	1	0,4
Ez du erantzun	26	10,2

Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Erljioaren atzetik, hizkuntza-aniztasuna da hurrengo aniztasun-espresio nabarmenena. Errealitate horren erakusgarri dugu 21. taula, auzoan egindako inkesta erantzun zuten pertsonen artean gutxienez 16 ama-hizkuntza daudela jasotzen baitu.

21. taula) (Etxabakoitzen bizi diren pertsonen ama-hizkuntzak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Gaztelania	205	79,8
Euskara	4	1,6
Ijito-hizkera	2	0,8
Ingelesa	6	2,3
Frantsesa	3	1,2
Arabiera	10	3,9
Errumaniera	3	1,2
Portugeses	4	1,6
Kitxua	3	1,2
Swahilia	2	0,8
Urdua	1	0,4
Edoa	1	0,4
Bestelakoak (errusiera, katalana, italiara, galegoa)	17	6,6
Guztira	257	100,0

Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Galdetegia erantzun zuten pertsona guztiek adierazi zuten gaztelania gutxienez oinarrizko mailan ezagutzen zutela, eta % 79,8k adierazi zuten gaztelania zela beren ama-hizkuntza. Datu horiek erakusten dute gaztelania dela auzoko komunikazio-hizkuntza nagusia. Baina introspektio kualitatibo bat eginez gero, ohartzen gara gaztelaniaz komunikatzeko zailtasunak dituzten atzerritar jatorriko pertsonak daudela, eta horrek ondorioak eragiten ditu elkarbizitzan eta gizarteratzean:

*“Marokoko, Aljeriako eta halako tokietako emakumeetatik, nire ustez, askok ez dute gaztelaniaz ere jakingo, ezta? Beraz... hizkuntzaren oztopoa oso handia da. Nik ez dakidenez ez ingelesez, ez frantsesez... ez naiz moldatzen, eta... asko zailtzen du”. (NET)*

Hizkuntza-aniztasunaren alorrean, euskarak (lurraldeko hizkuntza ofizial denez) presentzia esanguratsua du auzoan. Izan ere, jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duen biztanleriaren % 12,4k dio badakiela euskaraz, % 1,6rentzat bakarrik den arren ama-hizkuntza. Hala ere, elkarbizitzetako atzerritar jatorriko inork ere ez zekien euskaraz.


22. taula) (Euskararen ezagutza-maila (jatorria Nafarroan eta estatuan duen biztanleria)

	Ulertzen du	Hitz egiten du	Irakurtzen du	Idazten du	Guztira
Pertsona-kopurua	12,0	2,0	2,0	9,0	25,0
% Nafarroako/estatuko biztanleak	5,9	1,0	1,0	4,5	12,4

Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Hurrengo grafikoan jasotzen denez, euskara auzoko gutxiengoaren hizkuntza izan arren eta Etxabakoitzko biztanleen ehuneko txiki batek hitz egin arren, auzoko hamar pertsonatik ia zortzik dakite zer den euskara.


19. grafikoa) (Badakizu zer den euskara?)



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Ezagutza hori (ikusi hurrengo grafikoa) askoz txikiagoa da atzerritar jatorriko biztanleen artean. Hala ere, esanguratsua da galdera horri erantzuten ez dioten atzerritar jatorriko pertsonen kopuru handia.


20. grafikoa) (Badakizu zer den euskara? (jatorriaren arabera))



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Ezagutza horren erabilgarritasunari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da biztanleriaren ia erdiak euskarak integratzen laguntzen duela dioela. Hau da, hurrengo grafikoan ikusten denez, euskarak irudikapen positiboa du integrazio-tresna gisa (% 47,1).


21. grafikoa)(Euskaraz jakiteak integratzen laguntzen du?)



Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitzzenelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Euskararen ahalmen integratzailearekiko sentsibilitatea garatuagoa da jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duen biztanleriaren artean. Baina, berriro ere, kontuan izan behar da erantzun ez dutenen kopuru handia (% 40); atzerritar jatorriko biztanleriaren artean gaia ezezaguna izatea izan daiteke horren arrazoa.

22. grafikoa)(Euskararen ahalmen integratzaileari buruzko iritzia (jatorriaren arabera))




Iturria)(Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitzzenelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestatik abiatuta

Euskarari aitortzen zaion ahalmen integratzaile hori egongo litzateke hurrengo grafikoa jasotzen den beste datu esanguratsu baten atzean: auzoko biztanleen erdiak baino gehiagok (% 53,1) uste du euskara irakastea bultzatu beharko litzatekeela.



23. grafikoa) (Euskararen irakaskuntza bultzatzeko beharrari buruzko iritzia




Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Aurreko erantzunekin gertatzen zen moduan, jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duen biztanleriarena da batez ere iritzi hori: % 59,2 dago “Oso/nahiko ados” euskararen irakaskuntza bultzatzeko beharrarekin.

Halaber, esan beharrekoa da atzerriar jatorriko biztanleriaren % 30,9k ere defendatzen duela euskararen irakaskuntza sustatzea. Emaitza horiek adierazgarriak dira Etxabakoitzen, non gaur egun ez baitago euskaraz eskolatzeko aukerarik.

24. grafikoa) (Euskararen irakaskuntza bultzatzeko beharrari buruzko iritzia, jatorriaren arabera




Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Atal honekin amaitzeko, auzoaren aniztasuna ebidentzia bat da, eta gainera positiboki baloratzen dute Etxabakoizko biztanle gehienek.

Jarraian datorren grafikoan egiazta daitekeenez, Etxabakoitzen askotariko ezaugarri fisikoak, artea/kultura, hizkuntzak, erlijioak, janzkerak eta jakiak izateari buruz duten iritzia galdetzen zaienean, iritzi positiboak % 70etik gora dira ia erantzun gehienetan.

#### 25. grafikoa) (Auzoko kultura-aniztasunaren inguruko iritzi positiboa

---



---

Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Laburbilduz, alde batetik, dibertsitatea egon badagoela erakusten dute datuek, baina, bestalde, harekiko jarrera positiboa dagoela ere ikusten da: auzoko hamar biztanletik zazpik iritzi positiboa eman du kultura-aniztasunari buruz.

## Langile-auzoa... obretako langileena

Nafarroako hiriburuan izandako industrializazio-prozesuaren ondoriozko lan-eskaerarekin erlazionatuta egon ziren lehenengo finkatzea eta auzoaren eraikuntza eragin zuten migrazio-fluxuak. Kualifikaziorik gabeko langileak ziren, oro har, eta klase-sentimendu sendoa zuten. Hori dela eta, egoera horren ondoriozko batasuna izan da auzoaren beste ezaugarri bereizgarrietako bat, zeina historian zehar izan diren protesta ugarietan gauzatu izan baita; horren adibide dugu laurogeiko hamarkadako argazki hau.

88. irudia | Lizarrarako errepidea moztuta laurogeiko hamarkadan



Iturria | Aproximación a la historia comunitaria de Etxabakoitz

Azken hamarkadetan, higiezin booma sortzen joan zen heinean, “langile-auzo, obretako langileena” esan izan zaionerako gutxiak aldaketa bat gertatu zen, eraikuntzarekin lotua; eraikuntzak krisiaren eragin nabarmena izan du auzoko hegoaldean. Hala, gaur egun, Etxabakoitzko 12. eta 13. barrutietako biztanleriaren % 25 inguru (Ipar Etxabakoitz biztanleria horretatik kanpo utzita) langabezia dago.

Jaso diren diskurtsoetan, langabezia aipatzen dute “arazo” nagusi gisa, eta elkarbizitzarekin, diskriminazioarekin eta bestelakoekin lotutakoak estaltzen ditu. Horren erakusgarri ditugu testigantza hauek:

*“Langabeziak toki guztietan bezalako eragina izan du Etxabakoitzan, eta pixka bat gehiago ere bai, langile-auzo bat delako, hau da, obretako langileena”. (NET)*

*“Hori da gure arazo bakarra”. (IAT)*

*“Lana duen jendeak ez dauka krisialdirik, eta, lanik ez dutenek, krisialdia dute”. (IAT)*

*“Gerta daitekeen gauzarik txarrena... lanik gabe gelditzea. Guztiok ezagutzen dugu elkar, eta, X ezagutzen badugu, iruditzen zait guztioi tokatu zaigula, niri ere bai... hainbeste urtez lanean eta lanik gabe gelditzea... guztia... guztia gainera etortzen zaizu. Ez dakizu zer mundutan zauden”. (IAT)*

Adierazi dugunez, eta hurrengo grafikoan ikusten denez, auzoko biztanleen ehuneko esanguratsu batek ez du lan-merkatuarekiko loturarik. Eta horrek zaurgarritasun-egoera larriak eragiten ditu.


26. grafikoa) (Etxabakoizko biztanleriaren okupazioa



Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Langabeziaren presentzia esanguratsua da auzo guztian, baina alde izugarria dago Ipar Etxabakoitz eta Hego Etxabakoitz artean. Enplegu-banaketa desorekatua da, hain zuzen, auzoko bi eremu nagusien arteko zatikatzearen datu adierazgarrietako bat. Auzoaren iparraldea eta hegoaldea konparatzen direnean, nabarmena da langabeziak eragin desberdina izan duela eremu batean eta bestean bizi direnengan.


27. grafikoa) (Etxabakoizko biztanleriaren okupazioa (bizitoki-eremuaren arabera)



Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Ikusi dugunez, langabeziak eragin handia izan du Etxabakoitzen, eta zenbait sektoreri ere bereziki eragin die. Grafiko honetan jasotzen denez, langabeziak eragin bikoitza du atzerritar jatorriko biztanleen artean, eta kolektibo bereziki zaugarri bilakatzen ditu.

28. grafikoa) (Etxabakoizko biztanleriaren okupazioa (jatorriko herrialdearen arabera)



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Laburbilduz, langabezia eta lanaren ezegonkortasuna auzoan eragin nabarmena izan duen eta duen errealitate bat da; azken urteotan, krisialdiaren ondorioz, bereziki areagotu da zaugarritasun soziala.

## “Igarobideko” auzoa eta etxebizitzaren egoera

Zenbait aldiz adierazi dugunez, Etxabakoitzen ezaugarriak dira harrerako eta finkatzeko auzo izatea. Hala ere, azken urteetako gertaerak eta ezaugarri historiko batzuk kontuan izanda, gehiago zehaztu beharko genuke, eta lehenengo harrerako eta “igarobideko” auzo gisa definitu beharko litzateke.

Diskurtsoetan jasota dagoenez, “igarobideko” izaera Etxabakoitzen bizi diren pertsonen iruditeria kolektiboan dago, eta, are gehiago, auzoko logikaren baitako berezko jokabide gisa ikusten da:

*“Jendea asko txandatzten da, etorri egiten dira, denbora batez egoten dira, eta joan egiten dira. Baina nik uste dut joan den berrogei edo hirurogei urteetako auzoko historia ere antzekoa dela. Hori da auzoaren ezaugarrietako bat. Jendearen txandatzea, ba... beharbada... haietako asko, dena delako arrazoiengatik... ba, ezin izan dira beste lekuren batera joan, edo auzoz aldatu dira, ezta? Ni ere beste auzo batean jaio nintzen, eta, hiru urte nituenean, nire gurasoek beste auzo batean erosi zuten. Uste dut Etxabakoitzen asko gertatu dela hori. Baina jende asko etortzen da eta joaten da”. (NET)*

Dimentsio kuantitatiboari dagokionez, hurrengo taulan ikusten da azken hamarkadetan Etxabakoitzen izandako bizileku-aldaketa horien izaera historikoa.


**23. taula**) Iruñeko auzoen arteko bizileku-aldaketak (1992-2009)

	1992		1997		2001		2006		2009	
	Altak	Bajak	Altak	Bajak	Altak	Bajak	Altak	Bajak	Altak	Bajak
Azpilagaña	91	108	79	146	314	331	394	454	508	534
Buztintxuri-Euntzetxiki	48	85	95	141	78	142	825	258	551	381
Alde Zaharra	327	329	336	391	958	960	987	1.226	1.020	1.180
Txantrea	239	287	324	368	918	818	852	809	1.089	993
Zabalgunea	283	338	376	479	968	1.294	1.252	1.413	1.311	1.314
Ermitagaña-Mendebaldea	463	161	272	233	679	709	545	708	611	715
Etxabakoitz	69	80	311	104	318	291	344	361	339	374
Iturrama	289	295	325	344	704	944	929	955	945	1.047
Mendillorri	-	-	-	-	425	219	300	250	400	265
Milagrosa-Arrosadia	241	272	294	304	632	832	1.087	1.158	1.553	1.604
Arrotxapea	322	322	916	679	1.535	1.070	1.670	1.398	1.429	1.379
Sanduzelai	99	98	146	176	961	544	740	709	915	861
Donibane	283	381	264	377	787	1.121	862	1.085	1.116	1.135
<b>Iruña</b>	<b>2.754</b>	<b>2.756</b>	<b>3.738</b>	<b>3.742</b>	<b>9.277</b>	<b>9.275</b>	<b>10.787</b>	<b>10.784</b>	<b>11.787</b>	<b>11.782</b>

Iturria) (Díez, Urdaniz eta Zabalza (2011)

Ibiltaritza nabarmeneko errealitate horretan, azpimarratzekoa da etxebizitzaren alokairuaren presentzia esanguratsua. Hurrengo grafikoan ikusten denez, hori da elkarrizketatutako pertsonen % 33ren egoera.


29. grafikoa) (Etxebizitzaren jabetzaren egoera Etxabakoitzan



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Elkarrizketatutako pertsonen artean, alokairuaren ehunekoa antzekoa da auzoko bi eremu nagusietan bizi direnengan, hau da, Ipar Etxabakoizko eta Hego Etxabakoizko biztanleen artean.

30. grafikoa) (Etxebizitzaren jabetzaren egoera Etxabakoitzan (auzoko eremuaren arabera)



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Hain zuzen ere, hori da auzoaren eskarietako bat (hegoaldean, batez ere), etxebizitza asko ez baitira egokiak. Aldez aurretik azaldu dugunez, etxebizitza batzuen tamaina eta bizigarritasun-baldintzak adierazi dituzte galdetegian auzotik gutxien gustatzen zaizkien gauzen artean.

Diskurtsoetan jasotzen da, gainera, bizigarritasun-baldintzen eskasiak zuzeneko eragina duela auzoan denbora mugatu batez geratzeko joeran:

*“Pertsona batzuek haur txikiak dituzte, eta ezin dute hotza jasan (...) Pisu horiek arazo hori dute, eta ez dira guztiak berdinak (...) Han haur txikiekin bizi diren guztiak joaten dira azkenerako. Pare bat hilabete gehienez. Askok hori ere z, hilabete eta joan egiten dira, hezetasun handia eta hotza dutelako”. (IAT)*


Auzoko pertsona nagusien kasuan, bizigarritasun-baldintza txarrak izan ditzaketen arren, auzoan bizitzen jarraitu nahi dute biziki.

*“Orduan ongi, oso gustura, ni etxe zahar eta eskas batean bizi naiz, zeina bota egin behar baitute trena dela eta, eta zera diot: ez nazatela Etxabakoitzik kanpo bidali. Eman nahi badidate, eman diezadatela hemen, ez nazatela Buztintxurira edo Arrotxapeara bidali. Nik Etxabakoitzen nahi dut”. (IJT)*

Bizigarritasun-baldintza eskaseko etxebizitzek (hezetasuna, tamaina txikikoak izatea, etab.) eta auzoko egitura-baldintza batzuek eragina dute etxebizitzaren prezioan, eta alokairuko etxebizitzaren poltsa garrantzitsu bat eratu dute: pertsona migratzaileen aldi baterako etxebizitza bilakatu dira, zeinak haietatik joaten baitira horretarako bitartekoak dituztenean.

Hurrengo grafikoa ikusten denez, atzeritar jatorriko biztanleen % 85,4 etxebizitza alokatuetan bizi da, eta jatorria Nafarroan edo espainiar estatuko beste herri batzuetan dutenengan % 19,6koa da ehunekoa.


31. grafikoa) (Etxebizitzaren jabetzaren egoera Etxabakoitzen (jatorriaren arabera)





“Igarobideko auzo” izaerarekin zerikusia duen beste faktore bat da, atzerritar jatorriko biztanleentzat, batez ere, beste toki batean bizitzeko gogoia. Hurrengo grafikoan ikusten da atzerritar jatorriko pertsonen ehuneko handiago batek (% 49,1) nahi duela Iruñeko beste auzo baten bizitzea, jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batean dutenekin (% 13,4) alderatuta.


32. grafikoa)(Etorkizunean non bizitzea gustatuko litzaizuke? (jatorriaren arabera)



Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Atzerritar jatorriko kolektiboa sakonago aztertuz, hurrengo grafikoan ikusten da auzoan geratu nahi duten pertsonen benetan uste dutela bertan geratuko direla. Hala ere, beste auzo batera joan nahiko luketen pertsonetako askok ez dute horretarako aukerarik ikusten. Biztanleria horrek (% 14,5) bere etorkizuneko bizilekuari buruz duen ziurgabetasuna nabarmendu beharrekoa da.

33. grafikoa)(Non bizi nahiko lukeen eta non biziko dela uste duen (atzerritar jatorriko biztanleria)



Iturria)(Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestatik abiatuta

89. eta 90. irudiak)(Etxebizitzak Etxabakoitzen



Iturria)(RLasaosa (<https://www.flickr.com/photos/rlasaosa/>)

Laburbilduz, etxebizitzaren alorrean, batetik, ibiltaritza nabarmentzen da, zeinak pertsona-kopuru esanguratsu bati (atzeritar jatorrikoak, batez ere) eragiten baitio, eta, bestetik, etxebizitza batzuen egoera txarra. Hala ere, gutxitasun horien gainetik kasu batzuetan gailentzen den sustraitzea ere esanguratsua da.

## Barne-zatikatzea

Auzoan egin zen azken hirigintza-garapenak Ipar Etxabakoitz eratu zuen, eta auzoaren barne-zatikatzea eragin zuen; era berean, horrekin, kokagune historikoari "Hego" izaera areagotu zitzaion. Datozen irudietan, 4. barrutiko (Etxabakoitz identifikatzen duena) atalak mugatzen dira (12.a, 13.a eta 26.a). Argi ikusten dira auzoko eremuak, eta bereziki nabarmentzekoa da gune berrienaren eta (Ipar Etxabakoitz) eta gune historikoaren (Hego Etxabakoitz: Grupo Urdánoz, Arostegi etorbidea, Vistabella, Barcos, etab.) arteko haustura.

91. eta 92. irudiak|(Etxabakoitzko barrutia eta atalak



Iturria|(Geuk egin SITNA plataforma erabilia

Auzoaren errealitate zatikatu hori eta eguneroko bizitzan dituen ondorioak argi jasotzen dira diskurtsoetan. Hain nabaria da auzoaren hegoaldearen eta iparraldearen arteko zatikatzea, ezen pertsona batzuek ez baitakite guztia Etxabakoizko denik:

*“Auzo sakabanatua izan da Etxabakoitz beti”. (NET)*

*“Ez nekien Etxabakoitz bizi nintzenik, Barañainen bizi nintzela uste nuen (...) Nire dendak, nire eskola... guztia dago Barañainen”. (IAT)*


*“Atzo Xk deitu zidanean, Grupo Urdánoz esan zidanean, ez neukan arrastorik ere non zegoen, badakizu? Hau da, auzo horretan bizi naiz, eta ez dakit... beharbada gauza gehiago dakizkit Barañaini buruz Etxabakoitz buruz baino”. (IAT)*

Baina barne-zatikatze hori ez da fisikoa bakarrik, eta, aurreko ataletan ikusi izan dugunez, biztanleen ezaugarri soziodemografiko anizkoitzetan islatzen da, esaterako: jatorrizko herrialdeak, prestakuntza-mailak, okupazioa, etab. Diskurtsoetan ere argi ikusten da errealitate hori:

*“Ni han goian bizi naiz... eta ez zait gustatzen Ipar Etxabakoitz esatea, ezta? Baina egoera hemen ikusten dudanaren oso desberdina da, batez ere, ekonomiari dagokionez”. (NET)*

Alderdi kuantitatiboari dagokionez, desenpleguari buruzko datuek erakusten dute langabe gehiago daudela Hego Etxabakoizko biztanleen artean. Banaketa desorekatu hori ikasketamailan ere gertatzen da. Auzo bereko bi eremuen arteko ezberdintasun nabarmenak jasotzen ditu hurrengo grafikoak. Ikusten denez, Ipar Etxabakoizko biztanleek dituzte prestakuntza-maila handienak: 2. mailako irakaskuntza – 2. zikloa, 3. mailako irakaskuntza eta 3. mailako unibertsitate-ikasketak. Aitzitik, prestakuntza-maila baxuenak (Ez daki irakurtzen, ikasketarik gabea, 1. mailako irakaskuntza eta 2. mailako irakaskuntza – 1. zikloa) Hego Etxabakoitz daude:


34. grafikoa) Ikasketamaila (bizitoki-eremuaren arabera)



Iturria) Geuk egin [Etxabakoitz.com](http://Etxabakoitz.com) (vive) / [EtxabakoitzeneIkar](http://EtxabakoitzeneIkar) (bizi) inkestako datuetan oinarrituta

Hauteskundeetako emaitzak ere barne-zatikatzearen adierazpenetako bat ditugu. 2015eko maiatzaren 26ko udal-hauteskundeetako emaitzak aintzat hartuta, hurrengo ilustrazioan, Etxabakoizko atalen arteko botoen banaketaren izaera ezberdina ikusten da, lehenik eta behin. 12. atalean Nafarroako Alderdi Sozialistak (PSN) jaso zituen boto gehien, eta 13. eta 26. ataletan Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdia izan zen nagusi.

6. ilustrazioa)Iruñeak honela bozkatu zuen Udala



Iturria)Diario de Noticias de Navarra

Botoaren izaeraren inguruko barne-zatikatzeko hori ez da Etxabakoitzen bakarrik gertatzen, Iruñeko beste auzo batzuetan ere ikusten baita, adibidez, Sanduzelain eta Arrotxapean.

Zatikatzearen ideiarekin jarraituz, baina kasu honetan Iruña osoaren ikuspegitik, nabarmentzekoa da Etxabakoitz izan dela hiriburuko auzo guztien artean parte-hartze txikieneko (% 57,7). Zaurgarritasun sozioekonomiko handieneko lurraldeetan gaitzuste politiko gehien izaten dela nabarmendu izan da zenbait ikerketetan.


Kasu honetan, halaber, nabarmentzekoa izango litzateke Etxabakoizko barrutia Iturramakaren mugakide dela. Elkarrengandik gertu egon arren, partaidetzaren ezberdintasunak muturrekoak dira. Adierazi dugun moduan, Etxabakoitzek du partaidetza-ehuneko txikiena (% 57,7), eta, Iturramak, aldiz, altuena (% 75,2).

Hauteskundeetako jokaeraren inguruko zatikatze-errealitate horiek berriro gertatu zirenean 2016ko ekainaren 26ko hauteskunde orokorretako emaitzetan ere, eta, gainera, aurreko adibidean

baino nabarmenago. 7. ilustrazioan jasotzen den barne-zatikatze hori ez da errepikatzen Iruñeko gainerako auzoetako batean ere. 2016ko hauteskunde orokorren emaitzetan, alderdi politiko bat da nagusi auzoko hiru ataletako bakoitzean: Elkarrekin Ahal Dugu (% 30,11) 13. atalean, UPN-PP 26. atalean eta PSOE 12. atalean.

2015eko udal-hauteskundeekin alderatuta partaidetzak gora egin duen arren, Etxabakoitz auzoak izan du berriro ere Iruñeko partaidetza-ehuneko txikiena (% 61,94). Ehuneko hori ondoko Iturrama auzokoaren ehunetik oso urrun dago, zeinak, hain zuzen, hiriburuko ehuneko altuena baitu (% 72,84).


7. ilustrazioa) Iruñeak honela bozkatu zuen



Iturria) Diario de Noticias de Navarra

Azkenik, auzoko barne-zatikatzearen ebidentzia horiek eragin handia dute pertenezia-sentimenduan. Hurrengo grafikoan ikusten denez, Hego Etxabakoitzko 12. eta 13. barrutietako biztanleen % 82,3 "Oso edo nahiko" Etxabakoitzko sentitzen dira, eta Ipar Etxabakoitzko biztanleei dagokienez, % 49,3k bakarrik dute auzokoko pertenezia maila hori.

35. grafikoa) (Auzoko pertenezia sentimendua (bizitoki-eremuaren arabera)



Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestatik abiatuta

Laburbilduz, zatikatze nabari bat dago auzoaren baitan, zeina Etxabakoitzko eremuetako biztanleen errealitate sozioekonomiko anizkoitzetan mamitzen baita. Zatikatze hori bereziki nabaria da hirigintza-garapen berrienaren (Ipar Etxabakoitz) eta auzoko bizigune historikoaren (Hego Etxabakoitz: Grupo Urdánoz, Arostegi etorbidea, Vistabella, Barcos, etab.) artean.

## Etorkizuneko mehatxuak

Azken urteotan azuko bizitza sozialean zenbait faktore garrantzitsu sartu dira, eta haietako azkena funtsezkoa da kulturarteko elkarbizitzaren egoera sakon ulertzeko, hots: etorkizuneko hirigintza-proiektuen garapenak eragiten duen ziurgabetasuna.

Atal honetan, diskurtsoak dira protagonista, eta abiadura handiko trena (AHT) eta Huntsman-Inquinasa enpresaren bilakaera jasotzen dira haietan egungo jardura publiko nahiz pribatuen elementu mugatzaile gisa. Etorkizunari begira sortzen dituen ziurgabetasunak direla eta, alderdi hori kontuan izan behar da azuko elkarbizitza hobetzeko jardura-planak diseinatzean.

Abiadura handiko trenaren (AHT) geltoki berria eraikitzeko proiektua ezaguna da duela hamarkada bat baino gehiago, baina proiektu hori geldirik egotea eta auzoari sortzen dion ziurgabetasuna mehatxuen artean nabarmentzen da. Izan ere, hurrengo irudian ikusten denez, erabat eragiten dio Etxabakoitzko hiri-espazioari.

### 93. irudia | Abiadura handiko trenaren (AHT) geltokiaren garapen-proiektua



Iturria | Sustrai Erakuntza

Testuinguru horretan, informazioa falta dela eta geltokiaren garapenaren inguruko ziurgabetasuna azpimarratzen duten diskurtsoak oso esanguratsuak dira. Ziurgabetasun hori bereziki larria da proiektuak zuzenean eragiten diren etxebizitzetako batzuetan bizi diren eta auzoan oraindik geratzen diren negozio bakanetako batzuen jabe diren pertsonen artean.



“- Hor dago trenarena, eta «halako zera» batean gaude gu. Hasteko, ez daukagu inolako informaziorik...

(...)

- Zer gertatuko da? Han bakartuta utziko gaituzte, biribilgunera, biribilgunera. Noiz gertatuko da hori? Jakin nahi dut...

- Hori ez dela inoiz gertatuko...

- Pertsona batzuk, etxebizitza oso zahar batean gaizki bizi diren pertsonak, irrikan daude «pisutxo» bat eman diezaieten dauden tokitik joan ahal izateko, eta hor dago emakumea, ulertzen? Eta ez dago albisterik, itxarongo dugu...


- Bertan behera utzi dute. Hasieran baietz esan zuten, argazkiak atera zizkieten etxeei, guztiari, baina, gero, zera aldatu zutenetik...Eta geldirik dago guztia. Bertan behera utzi zuen taldeko perituekin hitz egiten dut egunero. Hau da, ez da egingo. Ez dute egiteko asmorik. Uste dut joan ahal izango nintzatekeela, eta ez dakigu gehiago”. (IJT)

Ziurgabetasun horrek ez die etorkizuneko proiektuei bakarrik eragiten, gogor baldintzatzen baitu auzoko biztanle askoren eguneroko bizimodua. Auzoko bizigarritasun-baldintzak adierazi ditugunean jaso denez, hobekuntza- eta eraberritze-proiektu batzuk bertan behera geratu dira, eta horrek eragina du Etxabakoizko biztanle-kopuru esanguratsu baten bizileku-kalitatean.

“Gainera, gu bizi garen pisua duela sei urte, zortzi urte bota behar zuten. Orain ez dute botatzen, ez dute konpontzen, ez dute eraberritzen, ez dute uzten informatzera joaten. Honela gaude: «aizu, nik uste dut bota egingo dutela, RENFE bat jarriko dutela, ez dakit zer». Hala gaude. Pisua erosita daukat, hipoteka daukagu...”. (IAT)

Nerabeekin egindako diagnosi-ariketan, haien marrazkien bidez egiaztatu zen (hurrengo irudietan ikusten dira, eta 8. eranskinean xehatzen da) nerabeen eguneroko errealitatearen zati ere badela mehatxu hori.

#### 94. eta 95. irudiak)(Nerabeekin egindako diagnosi-ariketen emaitzen irudiak



Iturria)(Geuk egina

Laburbilduz, auzorako aurreikusitako etorkizuneko hirigintza-proiektuak ziurgabetasun-iturri handi bat dira, eta Etxabakoizko garapen normalizaturako funtsezkoak diren jarduerak eta auzoko bizi-kalitatea hobetuko luketenak geldiarazten edo mugatzen dituzte.

## Sozialitate-egoera sendoen aldiberekotasuna

Etxabakoizko kulturarteko elkarbizitzaren diagnosiari dagokionez, hau da ideia nagusia: sozialitate-egoera intentsuak daudela aldi beran, baina betiere koexistentzia nagusi dela. Hau da, diagnosiaren garapeneko hiru sozialitate-egoerak gertatzen dira batera auzoan: elkarbizitza, etsaitasun eta koexistentzia.

### 96. irudia) Gizonak eta emakumeak berdintasunaren alde



Iturria) Etxabakoitz Bizirik

Auzoko harremanen izaera intentsua da harreman horien ezaugarri bereizgarria; hau da, landa-inguruneetan izaten diren harremanen antza gehiago dute, hiriko beste auzo batzuetan nagusi diren hiri-espazioetako harreman-dinamikena baino. Hain zuzen, horregatik hartzen du esanahi berezia diskurtsoetan hainbeste aipatzen den auzoaren landa-izaerak: *“Etxabakoitz ez da auzo bat, herri bat da”*. (NET). Baina, era berean, kultura ezberdinetako herrien arteko harremanak falta dira, eta, batez ere, auzora azken hamabost urteetan iritsitakoaren artean.

Koexistentzia-egoera hori deserosoa da Hego Etxabakoizko biztanle nagusientzat, bereziki (“mindu egiten nau” eta antzeko esamoldeak ere erabili izan dituzte), auzokoaren arteko harreman sendo eta estuagoetara, elkar ezagutzera, edozein agurtzera eta abar ohituta baitaude. Ez daude gustura, dagoeneko ez dituztelako ezagutzen auzoko guztiak, eta lehen auzoan ohikoak ziren interakzioko ohiturak (biztanleriaren identitatea osatzen zutenak) dagoeneko ez direlako neurri berean egiten. Galera moduan ikusten dute (identitatearen eta harremanen galera), hau da, lehengo mundua galdu izan balitz bezala. Eta ez kulturalki homogeen diren pertsonen artean bakarrik, kultura ezberdineko pertsonen artean ere bai; adibidez, ijitoen eta ijito ez direnen artean.

Diskurtsoak oso adierazgarriak dira, koexistentzia nagusi den agertoki horren ezaugarriak azaltzen baitituzte:

“- Lehenengo auzokook lehen bezalakoak izaten jarraitzen dugu. Ba, pertsona batzuk etorri dira eta integratu dira, eta beste jende asko ez da integratzen. Hori da arazoa, hori da arazoa, nire ustez hemengo jendea “integratzea gustatzen zaio”, ezta? Zera ona dago...

- Elkarrekin egoteko giro ona, bai, giro ona...

- Elkarrekin egoteko giro ona. Baina batzuek ez dute nahi. Nik esaten diedan moduan, zapidun horiek, ez dute nahi beren umeei begiratzerik ere... tristea da, ezta? Etxetan bizi dira, eta ez begiratu umeei.

- Hori parkera jaisten direnean. Haiek haiekin, haiek punta batean, eta gu bestean.

- Elkarbizi behar da...

- E, e... entzun!

- Eta ez dira elkarbizi.


- Ez dira elkarbizi. Ez diete uzten umeei beste umeekin elkartzen, ez, haiek haien artean jolasten dute, emakumeek ere elkarrekin hitz egiten dute. Zu bazoaz ondolik, eta «arratsalde on, arratsalde on», eta ez, ez, ez. Emakume horiek ez dira zure ondoan esertzen...

- Ikusten zaituztenean, zererantz begiratzen dute... Bakanen batek «hola» esaten du. Baina gainerakoek beste alde batera begiratzen dute.

- Hori bai dela tamalgarria”. (NET)

Hurrengo grafikoan ikusten denez, zeinak soziabilitate-egoeren emaitzak laburbiltzen baititu, koexistentzia da nagusi. Elkarriketatutako pertsonen % 38,9k koexistentzia adierazi dute, % 22,6k elkarbizitza, eta % 10,3k etsaitasuna.

### 36. grafikoa) (Auzoko biztanleen arteko kulturarteko harremana




Iturria) (Geuk [Etxabakoitzcon](#))<sup>vive</sup> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sup>bizi</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Emaitza horiek jatorriaren arabera bereizten baditugu, egiaztatuko dugu atzerritar jatorriko pertsonak hautatu dituztela gehien muturretan dauden bi soziabilitate-egoerak, hau da, elkarbizitza eta etsaitasuna.

Norabide horretan, bereziki nabarmena da atzerritar jatorriko biztanleriak gehiagotan (% 14,5) adierazten duela etsaitasuna jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duen biztanleriak (% 8,9) baino. Nabarmentzekoa da, halaber, atzerritar jatorriko kolektiboak eman dituen “Ez daki” erantzunen ehuneko handia (% 17,8), jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duten biztanleen aldean (% 5,5).

37. grafikoa) (Auzoko biztanleen arteko kulturarteko harremana (jatorriaren arabera)



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitzene](#)<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta


Etxabakoizko eremuen (iparra eta hegoa) araberako bereizketa (ikusi hurrengo grafikoa) esanguratsua da hiru alderdi nagusitan.

Lehenik eta behin, Hego Etxabakoizko elkarrizketatuek protagonismo handiagoa ematen diote (% 42,2) koexistentziari, Ipar Etxabakoizkoek (% 11,8) baino . Eremu horretan aniztasun gutxiago dagoelako (atzerritar jatorriko pertsona gutxiago, ijito gutxiago, etab.), eta, beraz, jatorri eta kultura ezberdinen arteko aldi bereko errealitate gutxiago daudelako izan daitekeela interpreta daiteke.

Bigarrenik, nabarmentzekoa da Ipar Etxabakoitzene biztanleen % 15,7k adierazten duela etsaitasun-egoera, hots, Hego Etxabakoizko biztanleen (% 8) ia bikoitzak. Errealitate hori ez dator bat teknika kualitatiboan emaitzekin, emaitza horiek ez baitute jasotzen gatazkadimentsio berezirik auzoko alde horretako pertsonen artean.

Azkenik, bada arreta jarri beharreko alderdi bat emaitza horietan: Ipar Etxabakoizko pertsona elkarrizketatuen zehaztugabetasun-indize altua (% 24,3), “Ez daki” aukeraren bidez. Esan nahi baita elkarrizketatuko pertsonen ia laurden batek ez duela jakin esaten zein den soziabilitate-egoera nagusia. Kategoria horren (“Ez daki” aukera) ehunekoa nabarmen txikiagoa da Hego Etxabakoizko biztanleen artean (% 11,8).

38. grafikoa) (Auzoko biztanleen arteko kulturarteko harremana (bizitoki-eremuaren arabera)



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive / Etxabakoitznelkar)</sup><sup>(bizi inkestako datuetan oinarrituta</sup>

Laburbilduz, soziabilitate-egoera intentsuak daude auzoan aldi berean, baina modu esanguratsuan nabarmentzen da koexistentzia. Baliteke errealitate hori izatea antzeko diagnosiak egiten diren herri gehienetan, baina, Etxabakoitz kasuan, aldiberekotasun hori bereziki garbia da, lehenago azaldu ditugun alderdi batzuen ondorioz (kasurako, barne-zatikatzea eta auzoaren ezaugarri izan den harrera-izaera historikoa).

Etxabakoitz ezaugarri berezi hori azalduko dugu datozen ataletan, egoera posible bakoitza zehatz aztertuta, hots: elkarbizitza, koexistentzia eta etsaitasuna.

## Elkarbiziz

Esan dugunez, hiru soziabilitate-egoeren baterako konbergentzia oinarritzen da azaldu dugun aldiberekotasun-testuinguru. Elkarbizitzaz hitz egiteko aukera ematen duten errealitateak azalduko dira jarraian.

Diskurtsoekin hasiz, izaera hiritar nabarmeneko espazio bat landa-izaera batekin parekatzeko joerak agerian uzten du auzoko biztanle-kopuru esanguratsu batek gertuko harremanak izaten dituela, maiztasunez gainera. Diskurtso ugaritan "herri" izaera goresten da, "auzo" izaeraren gainera:

*"Herri txiki bat dirudi. Eta auzoko bat ez bada kalera joaten bi egunetan, jendeak jakiten du eta kezkatu egiten da". (NET)*


*"Nik beti esan izan dut Etxabakoitz ez dela auzo bat, herri bat dela.*

*- Herri bat da.*

*- Zergatik? Guztiok ezagutzen dugulako elkar, guztiok kezkatzen gara urliari zer gertatzen ote zaion, ez dugula ikusten... ez dakit zer eta badakit zer, hurrekin berdin... Niretzat Etxabakoitzko haurrak ez dira Iturramakoak bezalakoak, adibidez. Egia esanda, niretzat hemen nire 12 urteko semearekin, edota 8 urtekoarekin: «Ama, parkera jaitsiko naiz». Parkera jaisten da, eta ni lasai asko, zergatik? Badakidalako ez zaiola ezer gertatuko... Ni Iturraman biziko banintz, semea ez nuke bakarrik utziko Iturraman, dela errepedeengatik, dela trafikoarengatik". (NET)*

Hurrengo grafikoan ikusten denez, eta aurkeztutako diskurtsoen berme gisa, Etxabakoitzko harremanen kalitateari buruzko pertzepzio orokorra da elkarbizitza ona dagoela (% 65,8). Elkarbizitza % 3,9 bakarrik erantzun du "batere traturik ez". Hau da, hamar pertsonatik zazpi diote elkarbizitza ona dutela auzoko pertsonekin.


39. grafikoa) (Auzoko harremanen kalitatea



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>vive</sup> / [Etxabakoitzene](#)<sup>elkar</sup>)<sup>bizi</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Datuak jatorriaren arabera bereizten baditugu, “elkarbizitza ona” erantzuneko emaitza positiboena jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duten pertsonen (% 68,8) eman dutela ikusten da hurrengo grafikoan. Atzerritar jatorriko pertsonen erantzunekiko (% 54,5) diferentzia esanguratsua da. Halaber, atzerritar jatorriko pertsonen adierazi dituzte gehien harreman hotzak (% 30,9) eta “batere trataturik ez” (% 9,1) aukerak. Laburbilduz, elkarbizitza onaren aukera orokorragoa da jatorria Nafarroan eta espainiar estatuko beste herri batzuetan duten biztanleen artean, atzerritar jatorriko biztanleen aldean.

40. grafikoa) (Auzoko harremanen kalitatea (jatorriaren arabera)



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitzene](#)<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Harremanen kalitatea jatorriaren arabera hain desberdin ikustearen arrazoiak hurbiltzeko aukera ematen digute jasotako diskurtsoek. Hurrengo testigantzak erakusten duenez, bada harremanen balorazio positiboa egiteko aukera areagotzen duen alderdi garrantzitsu bat: pertsona bakoitzak auzoan daraman denbora. “Beterano” deritzenek elkar hobeto ezagutzen dutela aipatzen dute, eta hori izango litzateke atzerritar jatorriko pertsonen, zeinak denbora gutxiagoz izan baitira oro har auzoan, alderdi horren balorazio txarragoa egitea azaltzen duten faktoreetako bat:

*“Hemen guztiok ezagutzen dugu elkar, hori da auzo honen alderdi ona, hala da, ezta?”*

- Bai, bai, bai.


- Guztiok ezagutzen dugu elkar.

- Bueno... *beterano guztiek*”. (NET)

*“Betiko bertakook, auzoan hazi garenok, guztiok hitz egiten dugu elkarrekin*”. (NET)

Galdetegiak, era berean, balorazio hori bizilekuaren arabera bereizteko aukera ematen digu. Emaitzetan ikusten dugunez, Hego Etxabakoitzene erantzun gehienek “elkarbizitza ona” (% 69) adierazi dute, auzoaren iparraldeko biztanleen erantzunen aldean (% 57,1).


41. grafikoa) (Auzoko harremanen kalitatea (bizileku-eremuaren arabera)



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Garrantzitsua da gertutasunaren, ezagutzaren eta harremanen kalitatearen arteko erlazioa nabarmentzea. Erlazioa zuzenekoa da, hots: zenbat eta gertutasun handiagoa izan eta zenbat eta hobeto ezagutu pertsonak, elkarbizitza-maila handiagoa adierazten da. Jarraian azaltzen den grafikoan ikusten denez, eraikin bereko pertsonen arteko harremanak hobekiaz izaten dira auzoan oro har, saltokietan, kultura-zentroetan eta gainerako tokietan izaten direnak baino.

42. grafikoa) (Harreman onak auzoko espazioetan)




Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Hurrengo grafikoan ikusten denez, aldagai horien arteko zuzeneko erlazioa mantendu egiten da jatorri ezberdineko pertsonen artean ere.




43. grafikoa)(Harreman onak auzoko espazioetan (jatorriko herrialdearen arabera)



Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Era berean, gertutasunaren, ezagutzaren eta kalitatearen arteko erlazioa ere zuzena da auzoko bizileku-eremuen ikuspegitik ere.

44. grafikoa)(Harreman onak auzoko espazioetan (bizileku-eremuaren arabera)



Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestako datuetan oinarrituta

Gertutasunaren, ezagutzaren eta harremanen kalitatearen arteko lotura hori auzoko biztanleen testigantzetan ere garbi jasotzen da. Agurrak (berezkoa eguneroko harremanen gertutasunak markatutako espazio sozialetan) eta antzeko beste alderdi batzuek eguneroko dinamiketan duten garrantzia identifikatzen da testigantza horietan. Ikusten denez, interakzio-praktika horrek, nahiko xumea izan arren, pisu handia du jatorri ezberdineko pertsonen artean auzoan gertatzen diren harremanen ebaluazioan:

*“- Ba begira, ni beste pertsonarekin topatzen banaiz eta goiza bada eta arratsaldea bada: «egun on» eta «arratsalde on», eta ez dit erantzuten, eta berriro ikusten badut berriro esango diot, nik ohitura on hori dudalako...*

*- Bai, nik ere bai, bai...*

*- Eta ez nau... ez nau haserretzen, nik beti agurtzen dut, eta erantzuten badidate, eta ez badidate erantzuten, nik esaten dut arazoa haiena dela”. (IJT)*

*“- Eta harremana dago etnia ezberdineko pertsonen artean?*

*- Bai, bai, bai, badugu tratua, badugu...*

*- Asko, baina hemen ijito ez den emakumeak ez dizu hitz egiten, e...*

*- Tratu handia dugu.*

*- Denetik dago.*

*- Ni oso ongi tratatzen naute auzoan ijito ez diren emakumeek, egia esan.*

*- Baina nabaritzen da. Jende askori nabari zaio hitz egiten dizula eta abar, eta agurtu egiten zaituzte pasatzen zarenean, eta beste askok betidanik ezagutzen zaituzte, eta ez zaituzte agurtzen, zergatik?”. (IJT)*

Hain zuzen ere, eguneroko harremanaren bidez sortzen den elkarrekiko ezagutza hori da elkarbizitza-arazo horiek (aurreiritziak ezabatzea, ezezagunarekiko beldurra, etab.) prebenitzeko eta/edo kudeatzeko ardatz nagusietako bat. Jarraian jasotzen diren testigantza hauetan nabarmentzen da elkar agurtzeak gatazkak saihesten laguntzen duela eta “nekez gertatuko liratekeen harremanek” erlazioak hobetzen laguntzen dutela.

*“- Baina jendeak, zera... beteranoa ez den jendeak «egun on», «kaixo, urlia» esaten dela ikusten duenez, horrek ere asko lotzen du. Orduan, dirudienez gatazkek ez dute asko irauten”. (NET)*

*“- Ni hemen bizi naizenetik eta zerera jaisten naizenetik... jende gehiagorekin erlazionatzen naiz txakurrarekin (...) irudipena dut...*

*- Integratuago sentitzen zara, ezta?*

*- Ez, ez, ez, zerago... Hau da, beharbada... Agian beste ikuspuntu bat izango dut. Esan behar nuen lehen baino, duela urte batzuk baino aurreiritzi gutxiago ditudala; izan ere, pertsona batekin tratua duzunean, ezta? Harreman pertsonala duzu familia batekin, pertsona batekin... eta ikusten duzu ez garela hain ezberdinak, ezta? (...) Iruditzen zait hizketan ari garenean aberastu egiten nautela, beren bizimodua nolakoa izan den kontatzen ari zaizkizu, eta oso gustura entzuten diet, ezta? Nolakoa zen auzoa zuek gazteak eta haurrak zinetenean eta abar; bizimoduaz hitz egiten duzu beste pertsona batzuekin, non egon ziren eta hori guztia, hori guztia asko gustatzen zait, aberastu egiten nau, ezta? Eta horrela lotura pertsonal bat sortzen da”. (NET)*

Auzoko lasaitasunak ere toki bereziki aipagarria du diskurtsoetan. Testigantza hauetan (hiru eztabaida-taldeetakoak dira) ikusten denez, arazorik eza eguneroko lasaitasun-errealitatearekin lotzen da:

*“Auzokoa denez, lasai dago, ez dago alderik, auzokoekin arazorik gabe lasai bizi izatea”. (IAT)*


“Auzo hau oso lasaia da, guztiok ezagutzen dugu elkar, beraz, ez dakit, giro ona dago, ezta?  
 - Bai, bai...  
 - Lasaiak gara.  
 - Bai, bai...  
 - Oso gustura”. (NET)

“Iruñekoa naiz betidanik, eta nire arbasoak ere hemengoak dira, ni (abizen bat aipatu du) naiz guztiaren gainetik, ulertzen didazu? Hau da, bizitza guztia, 1961etik hemen bizi naiz, eta ongi bizi naiz. Auzo lasaia da, eta hori, ongi bizi gara”. (IJT)

Galdetegiko datuen azterketak ere sentimendu hori berresten du. Jendeari auzotik gehien zer gustatzen zaion galdetzen zaionean, alderdi positibo hauek aipatzen dituzte gehien: lasaitasuna, jendea, eta, esplizituki, elkarbizitza.

Azken erantzun horren presentzia nabarmena oso esanguratsua da, galdera irekia egin baitzitzaien. Nabarmentzekoa da, halaber, aipatutako hiru aukerek erlazioen espazioarekiko zuzeneko lotura dutela, betiere dimentsio positibo batetik. Horrek ere auzoko pertsona-kopuru handi baten artean eguneroko elkarbizitza ona dagoela berresten du.


45. grafikoa) Jendeari auzotik gehien gustatzen zaiona



Iturria) Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))vive / [Etxabakoitzene](#)elkar)biz) inkestako datuetan oinarrituta

Hurrengo grafikoan ikusten denez, Etxabakoitz “bizitzeko auzo on” gisa ikustea da elkarbizitza-agertokiaren ebidentzia handienetariko bat. Baieztapen hori “Oso ados” eta “nahiko ados” aukeretan islatzen da, zeinak pertsonen % 84,3k eman baitituzte, eta %15,7k adierazi dute desadostasuna (“Ez oso ados – Ez nago batere ados”).


46. grafikoa)(Etxabakoitzi buruzko iritzia bizitzeko auzo on gisa



Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzene](#)<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Oraingo honetan ere Hego Etxabakoitzek ditu emaitza positiboak elkarbizitzaren balorazioaren inguruan. Hurrengo grafikoa jasotzen denez, “bizitzeko auzo ona” baieztapena Hego Etxabakoitzko biztanleek aukeratu dute gehien (% 86,7), Ipar Etxabakoitzkoen aldean (% 77,9).

47. grafikoa)(Etxabakoitzi buruzko iritzia bizitzeko auzo on gisa (bizileku-eremuaren arabera)




Iturria)(Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzene](#)<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Azkenik, eta auzoko aniztasunari buruzko atalean aurreratu genuenez, auzokoek oro har askotariko ezaugarri fisikoak, arte- eta kultura-adierazpenak, hizkuntzak, erlijioak, janzkerak eta janariak izatea onartzen dute, eta, horri esker, elkarbizitza dago. Aniztasunari buruzko iritzi

positibo hori bereziki altua da jatorri ezberdineko pertsonen artean, eta, batez ere, atzerritar jatorriko pertsonen artean. Grafikoan ikusten denez, laguntzak ematea da iritzi positibo gutxien dituen ehunekoa. Nafarroan aztertu diren beste herri batzuetan emaitza ez da hain nabarmena izan; dauden baliabide urriengatik lehiaren emaitza gisa interpreta daiteke hori, zeina bereziki areagotzen baita zaurgarritasun handieneko espazio eta uneetan.

48. grafikoa) (Kultura-aniztasunaren inguruko iritzi positiboa, jatorriko herrialdearen arabera



Iturria) (Geuk egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitznelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestako datuetan oinarrituta

Aniztasunaren naturalizazioa hedatuta dago, eta auzoko familia-errealitateetan zenbateraino sartu den da horren adierazpen argienetako bat. Hurrengo testigantza honetan agerikoa da jatorri ezberdinak aniztasunarekiko zorrotzak izan ohi diren egituretan normalizatu izana, adibidez, familien eremuan:

- Hemen esaten ari garenaz gainera, familia batzuetan ijito ez diren errainak dituzte.
- Eta nik suhi bat dut.
- Eta ijito ez diren suhiak, hau da, esan nahi dizut zera gaudela...
- Nire etxean ijito ez diren asko daude. Nik beste herrialde bateko suhi bat izan nuen, eta nire anai-arrebek ijito ez diren suhiak dituzte... Hau da, oso, oso bateratuta gaude, horrek ere ijito ez den errain bat du.
- Bi". (IJT)

Hurrengo atalean azalduko denez, naturalizazioak ez du beti gauzatzea esan nahi. Familiak anizkoitzak izan daitezkeela onartu arren, errealitatean, jatorri ezberdineko bikoteak gutxiengoa dira oraindik.

Laburbilduz, soziabilitate-egoera intentsuen adierazpen ugari daude, eta horietako bat dugu elkarbizitza. Harremanen kalitatea, berotasuna eta gertutasuna direla eta, pertsona askok diote Etxabakoitzko errealitatean elkarbizitza dela nagusi. Hala ere, eta hurrengo atalean azaltzen denez, oro har, koexistentzia da nagusi eguneroko logiketan.

## Koexistitzen

Azken urteetan, koexistentzian bizi beharrak nabarmen egin du gora Nafarroan. Horren arrazoi nagusiak bi dira: atzerritarren populazioa nabarmen handitzea eta elkartzeko topagunerik ez izatea. Alde horretatik, nahiz eta historikoki Etxabakoitz heterogeneotasun handiko auzo bat izan den hasiera-hasieratik (barne-migrazioen fluxuengatik bereziki), gero eta errealitate mota gehiago sortu dira koexistentziaren ondorioz, eta, aurretik esan bezala, era horretako soziabilitate-eredua hautematen dute auzokideek ere. Diskurtso ugarian bildu dugu koexistentziaren ideia:


*“Ezin dut gauza handirik esan, bi urte inguru baitaramat hemen bizitzen, eta, hemen bizi naizenetik, oso ongi, egia esan. Arraza asko dago, klase guztietako jendea, baina bakoitzak bere bizia egiten du, eta nik nirea, bakoitzak berea”. (IJT)*

*“Hemen inork ez du inor zirikatzen, baina... Askotan, hogeitai bidaiari daude billabesan, eta ez dut bakar bat ere ezagutzen”. (NET)*

*“Bakoitzak bere bizia egiten du, bakoitza bere kasa ibiltzen da, inork ez du inor zirikatzen”. (IJT)*

Galdetegiko datuek errealitate hori erakusten dute. Grafiko honetan ikus daitekeenez, adierazgarria da zein gora dagoen kulturarteko koexistentziaren maila auzoan: auzokideen % 77,1ek adierazi du bere jatorri kultural edo etniko berekoak dituela lagun min “guztiak” edo “gehienak”.

49. grafikoa) Jatorri bereko lagunak




Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzene](#)<sup>(elkar)</sup> (bizi inkestatik abiatuta)

Datuak jatorriaren arabera aztertuz gero, ikusten da atzerritarrek dituztela beren jatorri bereko lagun gutxien. Hau da, koexistentzia argien hautematen den kategoriak (“lagun guztiak jatorri berekoak” eta “lagun gehienak jatorri berekoak”) nabarmen gutxiago aipatu dituzte erantzunetan, nafar jatorriko eta Espainiako estatuko beste herri batzuetako populazioarekin

alderatuz gero. Errealitate hori naturalizat hartu behar litzateke; izan ere, proportzionalki, atzerriko pertsonak dauden tokian, beren jatorriaz besteko pertsonak dira nagusi.


50. grafikoa) (Jatorri bereko lagunak (jatorri-herrialdearen arabera))



Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitzcon](#))<sub>vive</sub> / [Etxabakoitzzenelkar](#))<sub>bizi</sub> inkestatik abiatuta

Harremanik ezaren beste erakusgarri bat familia da. Grafiko honetan ikusten den bezala, auzoko bikoteen % 84 jatorri nazional bereko pertsonak osatua da.

51. grafikoa) (Bikotekidearen jatorria)




Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitzcon](#))<sub>vive</sub> / [Etxabakoitzzenelkar](#))<sub>bizi</sub> inkestatik abiatuta

Datuak jatorriaren arabera aztertuz gero, atzerritarren artean dago jatorri desberdineko pertsonak osaturiko bikoteen ehuneko altuena: % 27,6. Nafar jatorriko eta Espainiako estatuko beste herri batzuetako pertsonak osaturiko bikoteen ehunekoa, berriz, % 12,3 da. Gorago esan

dugun bezala, datuok naturalizat hartu behar lirateke kontuan hartuta atzerritarrak gutxiengoa direla eguneroko harremanetan eta horrenbestez proportzionalki gehiago direla beren jatorriaz besteko pertsonak.


52. grafikoa) (Bikotekidearen jatorria (jatorriaren arabera))



Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzzenelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Halako errealitateetan sakonduz gero, grafiko honetan ikusten da auzoaren hegoaldean dagoela bikote mistoen ehuneko altuena (% 19,8), iparraldearekin alderatuz gero (% 2,9):

53. grafikoa) (Bikotekidearen jatorria (bizitokiaren arabera))



Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzzenelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Datuek agerian uzten dute koexistentzia dela soziabilitate-eredu nagusia. Hala eta guztiz ere, auzokideen diskurtsoek informazio sakonagoa ematen dute errealitate horri buruz. Pasarte



honetan, hautematen da auzokide beteranoenak eta intentsitate handieneko elkarbizitza-harremanetara ohituen daudenak (aurretik nabarmenduriko "herri" izendapenetik hurbil dauden harremanetara, alegia) "pena" eta "mina" sentitzen dutela horregatik:

*"Niri iruditzen zait, esate baterako, ondotik pasatu eta beste alde batera begiratzen dutenean... Nik ulertzen dut halakoez ez dutela integratu nahi. Hemen auzoan bada jendea urte asko daramatzana eta begiratzen ez dizuna eta zu saiatzen zara haiekin hitz egiten. Niri gertatu zait zenbaki batean ez X eta ez X... Ea... Pakistandarrak esango nuke nik, baina zera izango dira...*

- Musulmanak edo mairuak.

*Bai, marokoarrak eta, eta niri horrek mina ematen dit, ze ikusten dituzu umeak...*

*(...) Hara, esan nahi nuen mina ematen didala musulmanak umeekin ikusi eta ezin esatea: «Oi, bai polita umea!». Niri asko gustatzen zaizkit umeak, eta ez dakit ba: «Oi, bai polita! Kaixo, mutiko, edo kaixo, neskatok!». Ba mina ematen dizu, hainbeste denbora hemen eta hori ezin esatea, eta ez dakite hitz egiten ere; tira, egun onak emateko beste bai, eta umeak eskolara joaten dira, eta badakite erantzuten.*

- Niri asko gustatzen zaizkit umeak... Askok, eta, ume bat ikustean zerbait esaten diodanean, haren gurasoek ez didate deus erantzuten, deus ere! Nik haurrari hitz egiten diot, eta kito.

- Nik ere gauza bera...

*(...) Baina ni emakumeengatik ari naiz, haiek ibiltzen baitira umeekin, ze gizonak ez «kaixo» esatea, ba, begira, ez dakit nola esan, bost axola zait, baina umeekin joan eta berak ere bai eta «arratsalde on» edo «egun on» esan eta berek beste aldera begiratzea, ba, begira, mina ematen dit". (NET)*

Beste ikuspegi batetik, immigranteek adierazi dute zailtasunak dituztela hemengo herritarrekin harremanak izateko.

*"Nik bi urte daramatzat hemen, eta ez dut inor ezagutzen. Askotan saiatu jendeari eskaileran esaten: «Nirekin zerbait hartu nahi?». Horrela, baina inor ez ohartu. Ez dakit, beharbada badago distantzia espainiarren eta hemen bizi diren atzerritarren artean, distantzia oso luzea". (IAT)*

Elkartzeko topagunerik eza (neguan batez ere) oztopo da pertsonen arteko harremanei begira. Jatorri desberdineko pertsonen arteko harreman gehienak festa- eta kultura-guneetan gauzatzen dira.

#### 97. eta 98. irudiak (Etxabakoizko topaguneen irudiak)



Iturria (Etxabakoitz Bizirik)

Azkenik, diagnostiko eta esku-hartzeen (hau bezalako txostenen) beharraren erakusgarri da datu hau: jatorri desberdineko zenbat eta pertsona gehiago egon eta haiekin zenbat eta harreman gutxiago izan, orduan eta handiagoa da elkarrekiko ezagutza, eta horrek mesfidantza areagotzen du. Hori oztopo handienetako bat da elkarbizitzarako guneak eraikitzeari begira, eta bereziki garrantzitsua da dibertsitatea nabarmen handitzen denean:

*“Aspalditik, duela hamar bat urtetik hona, pixka bat berrituta dago hau, eta ez duzu inor ezagutzen. Orduan, bai, joaten zara parkera edo edozein tokitara, eta jendea ikusten duzu, hemengoa, zuk esaten duzun bezala, ezta? Betikoa, ezta? Baina hori garai bateko kontua da; hemengo jende asko Xra edo Xra joan zen bizitzera, ezta? Ulertzen didazu? Eta bai, tarteka ateratzen zara paseora, baina hori, hemengoak gutxiengoa gara.*

*- (...) Bai, txikia nintzelarik, bospasei urte nituelarik, kalean normal-normal ibiltzen nintzen, mundu guztia ezagutzen bainuen, hau da, mundu guztiak elkar zaintzen zuen. Orain ez hainbeste, ez baituzu hainbeste jende ezagutzen, ez zara fidatzen...*

*- Bai, hala da, hala da...*

*- Alegia, jendea...*

*- Ez dut esan nahi gaiztoak direnik, baina, ezagutzen ez dituzunez, ez zara fidatzen”. (NET)*

Alde horretatik, bereziki beharrezkoa da elkartzeko gune eta uneak sortzea auzoko gazteenentzat.

#### 99. eta 100. irudiak)(Etxabakoizko gazteentzako topaguneen irudiak



Iturria)(Etxabakoitz Bizirik

Laburbilduz, soziabilitate-ereduen aldiberekotasun horretan, koexistentzia da nagusi, eta beharrezkoa da arreta berezia jartzea areagotu ez dadin eta horrenbestez elkarbizitzarako atea itxi ez dadin.

## Etsaitasunak

Etsaitasuna azkenetan egon arren, halako adierazpenak gatazka zaharren erakusgarri dira, haietariko asko errotuta eta hitzez adierazi gabe geratu baitira. Gainera, emaitzen atalaren hasieran aipatu dugun abandonuaren ondorioz, are larriagotzen da etsaitasuna.

Diskurtsoetan ikus daitekeenez, bada aldaketa bat aurreko errealitateekin alderatuta, hau da, auzokide gehienek elkar ezagutzen zuten garaiarekin alderatuta. Nabarmen deigarria da nola lotzen den auzora jende berria etortzea mesfidantza areagotzearekin.


*“- Hemen, irekita utz daiteke autoa ere; inork ez dizu deus ukituko...  
- Lehen... orain ez dago fidatzerik, trapero anitz ibiltzen da eta... Lehen, jendea ezaguna zen eta dena errespetatzen zen (...) Orain ez dago inorekin fidatzerik hemen auzoan”. (IJT)*

Gainera, errepresentazioen atalean azaldu dugun bezala, auzora lehen aldiz joaten diren pertsonak kontziente dira beren estigma negatiboaz:

*“Nik ez jakin ongi gaztelaniaz, pixka bat hitz egin bakarrik. Nik 18 urte pasatu ditut Etxabakoitzen. Toki ona da, baina jende askok beldurra ematen du. Baina nik ongi ikusi dut auzoa. Nire alaba ere hemen dago. 13 urte ditu; hemen ikasi zuen, Barañaingo institutuan gero, hemen oso ongi, jendeak gauza txarrik ez niretzat, hemen ongi, nik beldurrik ez”. (IAT)*

Galdetegiko datuetan ikusiko dugunez, elkarriketatuen % 17k “bakarrik” adierazi du arazoren bat izan duela inoiz Etxabakoitzen.


### 54. grafikoa) (Arazoak auzoan



Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Grafikoan ikusten denez, auzoko herritarren laurden batek baino gutxiagok izan du arazoren bat auzoan. Hala eta guztiz ere, segidan ikusiko dugun bezala, jendeari galdetuz gero ea elkarbizitza-gatazkarik ba ote dagoen auzoan, “oso ados” edo “nahiko ados” erantzun dutenen ehunekoak % 36koa da.

55. grafikoa) (Etxabakoizko elkarbizitza-gatazkei buruzko iritzia




Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Halako errealitateak oso ohikoak dira gatazka-eremuetan, eta esan daiteke halako beldur bat dagoela jendaurrean ustez mundu guztiari ezagunak zaizkion arazoez aritzeko, elkarriketatuek zuzen-zuzenean bizi ez badituzte ere.

Normalean aipatzen ez diren errealitate gatazkatsuetako bat, hain zuzen, atzerritarren presentzia da. Etxabakoizko herritarren % 65ek (atzerritarrak barne) uste du atzerritar gehiegi dagoela auzoan.

56. grafikoa) (Ideia honen aldeko iritzia: "Etxabakoitzen atzerritar gehiegi dago")



Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzenelkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta


Datuetan ikusten denez, halako arbuio bat sumatzen da auzoaren gaur egungo ezaugarriekiko, azkenaldian atzerritar gehiago etorri baita. Deigarria da atzerritarren kolektiboa ehunekotik gora egotea (% 67,3) “atzerritar gehiegi dago” adierazpenari dagokionez; nafar herritarren eta Espainiako estatuko beste herri batzuetatik etorrien artean, % 64,4koa da ehunekoak.

Diskurtsoetan gutxi aipatu arren, herritarrek zerbitzu eta baliabideez gozatzeko duten aukerak murriztearekin lotzen da atzerritarren presentzia masiboa. Hori dela eta, askotan leporatzen zaie zerbitzuok gaizki edo gehiegi erabiltzea.

Halako logikak oso ohikoak dira osasun-arretaren arloan. Maiz, atzerritarren kolektiboari leporatzen zaio osasun-zerbitzuak “kolapsatzea”, gaizki erabiltzen dituztelakoan.

Etxabakoitzen, osasun-zerbitzuek emandako datuen arabera, osasun-zentrora joaten diren atzerritarren ehunekoak (urteko hitzordu kopurua kontuan hartuta) baxuagoa da gainerakoena baino, adin-tarte guztietan. Hau da, nafar herritarrak eta Espainiako estatuko beste herri batzuetatik etorriak baino gutxiagotan joaten dira. Horrek bertan behera uzten ditu uste asko.

57. grafikoa) (Etxabakoizko osasun-zentroko maiztasun-tasak




Iturria) (Egileek egin a Etxabakoizko osasun-zentroko maiztasun-datuetatik abiatuta. 2015. urtea.

Azkenik, atal honen hasierako gaiari helduz (elkarbizitza-arazoak jotzea auzoan gutxien atsegin duten gaitzat), badira bestelako arazoak errealitate gatazkatsuen zerrendan, hau da, badira bestelako etsaitasunak ere Etxabakoizko auzokideen egunerokoan.

Grafiko honetan ikustenenez, auzokideek gutxien atsegin dituzten alderdiak era askotakoak dira; besteak beste, zarata, zikintasuna, higienerik eza, inkomunikazioa, etab. Haietako asko lotuta daude aurretik aipaturiko ideiekin, eta, berriz ere, abandonuaren sentimendua azalartzen da.

**58. grafikoa**) Zer atsegin duten gutxien Etxabakoitzen



Iturria) (Egileek egin [Etxabakoitz.con](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitz.enlkar](#))<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta

Laburbilduz, etsaitasuna ere auzoaren eguneroko errealitatearen beste dimentsio bat da. Zailtasunak zailtasun, arazo pertsonalak arazo orokortzat aurkeztuta jartzen da agerian hori. Hortaz, eguneroko harremanen esparruan kontuan hartu beharreko beste dimentsio bat da.

## Eragina hezkuntza-arloan

Aurreko ataletan aztertutako ideiek eta alderdiek eragina dute auzoko gune zentraletan. Hau da, soziabilitate nagusiaren ezaugarriek argi eta garbi eragiten dute elkarbizitzarako funtsezko diren guneetan, hala nola ikastetxean.

Hezkuntza-arloari erreparatuz eta betiere aintzat hartuz zer zailtasun dagoen errealitate gatazkatsuak adierazteko, diskurtsoetatik ondoriozta daiteke badirela zenbait arazo:

*“Eskola, adibidez, oso garrantzitsua umeentzat. Nik badut urtebeteko haur bat, eta ez dut uzten... Ez dakit, iruditzen zait gauza handiak falta direla hezkuntzan, gauza asko. Gauzaren bat ikusi dut... Ez dut esan nahi, benetan, ez dut esan nahi, gauzaren bat... Errespetatzen dut, baina ikusi izan dut... Ez dut esan nahi, ze, esaten badut, kanpora botako naute, baina nik ikusi izan dut”. (IAT)*

*“Nik uste neska horrek eskolaz esan duena... Oso erraza da; 08:30ean etorri, hona etorri, auzoko jende hau... Zenbat denbora eskola horretan? Oso erraza da ikusteko, zeren zuk eskola ona duzu, eta zergatik joaten da jendea hara gora?*

*- Zergatik?*

*- Hori da, arrazoi du...*

*- Aldatu da. Tira... Ni esperientzia pertsonal batetik etorri nintzen, baina auzoko gurasoek diote azken bospasei urteetan asko aldatu dela eskola.*


*- Zer zentzutan aldatu da?*

*- Elkarbizitza, oso elkarbizitza txarra, ijitoak eta ijito ez direnak... Holako kontuak”. (IAT)*

*“Goizeko 08:30ean ikusten duzu zenbat jendek eramaten dituen haurrak gora”. (IAT)*

Azken diskurtsoan ikusten denez, elkarbizitza-arazoak izan daitezke hezkuntza-exodoaren kausa auzoan. Matrikulazio-datuetan ikusten denez, hala gertatu da, eta erronka bilakatu da auzoarentzat, kolokan jartzen baitu auzoaren beraren iraupena.

59. grafikoa)(Nicasio de Landa ikastetxe publikoko matrikulazioaren bilakaera (2010-2015))



Iturria)(Egileek egin Nafarroako Gobernu Hezkuntza Sailaren datuetatik abiatuta)

Diskurtsoetan hautematen denez, elkarbizitza-arazoak eta zenbait portaera desegoki dira ikastetxeko ikasle kopurua jaistearren arrazoi nagusiak:


*“Nik badut 23 urteko biloba bat eskolara joaten hasi zena. Nire alaba Sagrado Corazón ikastetxean egon zen, hura ireki zutenean. Nire alaba eta ilobak, tira, hasi ziren... Nire bilobak 5 edo 6 urte izango zituen... Zertan? Joka hasten baziren, haiek ijito ez direnei esaten dieten bezala, ze beste gauza bat esango dut lehenbizi: duela 56 urte etorri ginenean, orduan etorri ziren ijito-familiekin ez zen sekula egon inongo arazorik, inoiz ez. Ezta? Hasieran, bat ere ez. Gizarteratu ziren, neskek fabriketan lan egiten zuten, lagunak ziren, hau da, ez zegoen arazorik (...) Baina orain... Ene bada! Orain... Desberdina da. Oraingo belaunaldia ez da gauza bera, beren taldetxoak egiten dituzte, baina... Zer gertatu zen eskoletan? Ezta ogitartekoak ere! Ordaintzen zietenean bakarrik joaten ziren, eta, kupoa betetzen zutenean, ez ziren joaten. Biharamunean joanez gero, aurretik eskolan ikasitakoa... Hiru egunean huts egiten bazuten eskolara, irakasleak berriz irakasten hasten ziren aurreko egunetakoa (...) Debekatu zuten amak jolas-ordura agertzea. Lehenbizi, ijito ez direnak ez ziren joaten, baina ez zirenak, orduan urte hartan atera ziren hemengo eskolatik. Baina ez, gero, zuzendariarengana joan kexatzera. Paso egiten zuen, eta badakizu zer gertatu zen? Urte hartan 35-40 umek alde egin zuten hemengo eskolatik. Eta Hezkuntzan ez ziren konturatu. Kontua ez da irakasle onik ez zegoela, ezta batere, Etxabakoizko eskoletan maila ona baitzegoen, oso maila ona, ezta?*

- Bai, bai.

- Oso maila ona. Ez da hori kontua. Baina, jakina, eskolara joan eta haurrak jotzen hasiz gero... Hurrek elkar jotzen dute, bai, baina amak han egonez gero... Eramanezina zen; une jakin batean, jendeak esan zuen bazihoala handik. Orduan, ez dute nahi... Ez dauka... Hor egon zen akatsa... Baina akatsa ez zen izan eskolarena nik uste; zuzendariarena eta Hezkuntzarena izan zen, 40 ume beste eskolara bidali zituztenean zerbait egin beharko zuten, ezta?”. (NET)

Gaur egungo ikastetxearen heterogeneotasunean sakonduz, auzoan identifikaturiko dibertsitateari buruzko iritzi ona hezkuntza-arlora ere zabaldu liteke. Datu hauetan ikusten denez, dibertsitatea “aberasgarri”tzat eta “on”tzat hartzen dute elkarriketaturiko hamar pertsonatik ia zazpik:

60. grafikoa) (Ikastetxeko dibertsitateari buruzko iritzia



Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sub>(vive)</sub> / [Etxabakoitznelkar](#))<sub>(bizi)</sub> inkestatik abiatuta



Dibertsitateari buruzko iritzia ona bada ere (gaur egungo ikastetxearen errealitatea), eskola-ume gehienak auzotik kanpoko beste eskolaren batera joaten dira. Alde horretatik, Nicasio de Landa ikastetxearen egoera erronka da gaur egun, baina baita aukera on bat ere integrazioarako gune sinboliko izateko, beste garai batzuetan bezala:

*“Gurekin, talde asko egiten zituzten, taldean lan egiteko, eta hala irekitzen da jendea, nik bestela ez nukeen gaztelaniaz ikasi izango... (...) Eta esaten dute ijitoak ez dakit zer direla... Ba, ijitoek irakatsi zidaten niri gaztelaniaz”. (IAT)*

#### 101. irudia) (Nicasio de Landa ikastetxe publikoa



Iturria) (Diario de Noticias de Navarra egunkaria

Laburbilduz, ikastetxearen egoera konplexua da, aspaldiko elkarbizitza-arazoengatik (dibertsitatearekiko jarrera ona den arren) eta egiturazko beste logika batzuegatik. Ondorioz, matrikulazioa asko jaitsi da. Areago, haren iraupena kolokan dago. Alde horretatik, hurrengo atalean azalduko dugunez, aukera garrantzitsu bat zabaldu da gune horretan lan egiteko kulturarteko elkarbizitzaren ikuspegitik.


## Aldaketarako aukerak

Bukatzeko, aldaketarako aukera ematen duten elementu nagusiak hauek dira: interes maila eta parte hartzeko gogoia, bai elkartean aldetik, bai auzokideen aldetik, Etxabakoizko kulturarteko elkarbizitza hobetzeko eta sustatzeko.

Azpimarragarria da auzoko 50 pertsonak beren telefono-zenbakia eman diotela proiektuaren talde teknikoari, elkarbizitza sustatzeko proiektuan parte hartzen segitu nahi baitute. Ildo beretik, auzoko ia kolektibo guztiek parte hartu dute aktiboki diagnostikoa egiteko prozesuan. Gainera, ehun pertsona baino gehiago etorri ziren azterketaren emaitzak aurkezteko ekitaldira.

Grafiko honetan ikusten denez, galdetegiko datuen arabera, elkarbizitaturikoen % 33,1 prest dago elkarbizitza sustatzeko prozesuan parte hartzeko.

61. grafikoa) (Elkarbizitza sustatzeko proiektuan parte hartu nahi dutenak



Iturria) (Egileek egina [Etxabakoitzcon](#))<sup>(vive)</sup> / [Etxabakoitzene](#)<sup>(bizi)</sup> inkestatik abiatuta


Laburbilduz, lanerako oinarri sendo bat eta giza baliabide ugari dago Etxabakoitzen diagnostikorako eta esku-hartzerako prozesuko hurrengo faseari heltzeko.

## ondorioak)(aukera askoko auzo bat

Atal honetan, labur-labur azalduko ditugu diagnostikotik ateratako ondorio batzuk, emaitzei eta prozesuko zenbait alderdiri buruzkoak.

- Etxabakoizko bizikidetzari buruzko diagnostiko sozialean, **ikuspegi orokor bat** ematen da lehenik, eta, gero, auzoko **kulturarteko elkarbizitzaren ezaugarri bereizgarriak** azaltzen dira.
- Lehenik, auzoaren ezaugarriei dagokienez, ondoriozta daiteke **Etxabakoitz auzoa oso estigmatizatuta dagoela historikoki auzo abandonatu eta baztertu gisa**. Auzokideen zein auzotik kanpo bizi den jendearen pertzepziotik atera da ondorio hori. Zenbaitetan, halako lotsa bat ere sumatzen da: *“Bada jendea lotsa ematen diona esatea Etxabakoitzen bizi dela” (NET)*.
- Auzokideen % **77k uste du zerbitzu publiko gutxi dagoela, eta % 73,3k dio auzo baztertua edo abandonatua dela**, batez ere auzoaren hegoaldean. Nabarmentzekoa da udal erakundeen esku uzten dutela egoeraren erantzukizuna, ez baitituzte behar bezala zaintzen auzoaren oinarriko premia historikoak.

### 102. irudia)(Arostegi etorbidea



Iturria)(Google Street View

- Bestalde, badira pertzepzio baikorrak ere, hala nola **auzoa isolatuta egotea kokapenari dagokionez, eta ez hain hiritarra baina bai herritarragoa izatea**. Horrekin lotuta daude auzoan balio handiena eta bereizgarriena ematen zaien alderdiak: lasaitasuna eta naturarekiko hurbiltasuna. Etxabakoitz, beraz, zera da auzokideentzat: *“Paradisua bat da, lasai bizi baitzaitzke, inork inori trabarik egin gabe, eta badago natura ere” (NET)*.
- **Auzoaren identitatearen beste bereizgarri bat: auzoa hainbat jatorritako migrazio-fluxuen ondorioz gorpuztu da (Nafarroako beste toki batzuetakoak, beste probintzia batzuetakoak eta atzerriarrak)**. Horrenbestez, harrera-auzo bilakatu da, eta auzokideak harro daude horrek ekarri duen dibertsitateaz: hamar elkarrizketatutik zazpi jarraera baikorra du auzoko kultura-dibertsitatearen inguruan.
- Gaur egun, auzokideen **jatorrian (Espainiako estatuko probintzia guztietako jendea bizi da auzoan, Almeriako izan ezik, eta 65 herrialdeetakoak), kulturetan, erlijioetan eta hizkuntzetan (16 ama-hizkuntza identifikatu dira) islatzen da dibertsitate hori**.

- Hizkuntzei dagokienez, diagnostikoan ikusten da **gatzelania dela auzokideen komunikazio-hizkuntza erabiliena**, eta gehienek badute haren oinarriko ezagutza bat. **Euskara, hizkuntza ofiziala den heinean, integrazioarako tresnatzat hartzen da (% 47,1), eta azpimarragarria da hura irakastearen aldeko jarrera (% 53,1).**
- Langile-auzoa izatea ere Etxabakoitz definitzeko ezaugarri historikoetako bat izan da. **Krisiaren eraginez, auzokide asko lan-merkatutik kanpo daude** (Etxabakoitzko 12. eta 13. barrutietako auzokideen % 25 inguru, iparraldekoak alde batera utzita, han altua baita langabezia). Hori dela eta, zaurgarritasunari loturiko errealitate asko dago, eta horrek itzala egiten die beste arazo batzuei (elkarbizitza, diskriminazioa, etab.). Langabe gehienak atzeritarrak dira: *“Hori da daukagun arazo bakarra” (IAT).*
- Azken urteetan, **harrerarako eta iragaitzazko auzotzat** hartu da Etxabakoitz. Alegia, **“persona-errotazio”** handia dago. Errealitate horretan, zerkusi zuzena dute etxebizitza askoren egoera kaskarrak eta prezioak. Emaitzak ikusita, pentsa liteke batetik bestera ibiltze horrek bere horretan jarraituko duela datozen urteetan ere: atzeritarren % 85 alokairuan bizi da, eta hamarretik zazpik beste nonbait bizi nahi luke.
- Esan liteke **Etxabakoitzen barne-zatiketa sakona dagoela, batez ere auzoko zenbait eremutako hirigintzaren garapenaren ondorioz, ez baitago konexio sendorik barne-kohesioa indartzeko.** Zatiketa hori, gainera, argi eta garbi islatzen da eguneroko bizitzan. Auzoaren iparraldean eta hegoaldean, oso nabarmena da zatiketa hori (Urdanoz bizitegi multzoa, Arostegi etorbidea, Vistabella, Barcos, etab.), Etxabakoitzko eremu batetik bestera aldea baitago maila sozioekonomikoan, ikasketa mailan, hauteskunde-emaitzetan eta auzotar-sentimenduan.

### 103. irudia) (Remiro de Goñi kalea



Iturria) (Google Street View

- Bada egiturazko beste faktore garrantzitsu bat azken urteetan auzoko bizitza sozialean eragina izan duena eta ezinbestekoa dena aztertzea kulturarteko elkarbizitza ongi ulertzeko: etorkizuneko hirigintza-proiektuak. **Abiadura Handiko Trenaren proiektuak (AHT) eta Huntsman-Inquinasa enpresaren gorabeherak zenbait jardura (pribatu zein publiko) mugatu eta geldiarazi dituzte, batez ere ez delako gauza jakina zer gertatuko den.** Oso gai garrantzitsuak dira auzoko bizi-kalitatea eta kulturarteko elkarbizitza hobetzea helburu duten jardute-planak diseinatzeari begira.
- Auzoko kulturarteko harremanei dagokienez, **sozialitate-eredu ugari gurutzatzen dira Etxabakoitzen, baina koexistentzia da nagusi (elkarrizketatuen % 38,9ren arabera).** Hau

da, hiru soziabilitate-egoera bizi dira auzoan aldi berean: elkarbizitza, etsaitasuna eta koexistentzia.

- Batetik, **auzoko harremanen ezaugarri bereizgarrietako bat zera da: harremanok bereziki sakonak direla adin handieneko pertsonen artean.** Halako harremanak hurbilago daude herri-testuinguruetakoko harremanetatik beste auzo batzuetako hiri-testuinguruetakoko dinamiketarik baino. Hortaz, askotan entzuten da “auzo” baino gehiago “herri” dela Etxabakoitz. Azpimarratu behar da **auzokideen % 65,8ri iruditzen zaiola auzoko harremanen kalitatea “ona” dela elkarbizitzaren ikuspegitik, nabarmentzen baitute auzoan denbora daramatenek elkar ezagutzen dutela: “Hemen, denok ezagutzen dugu elkar... Tira, adineko guztiok” (NET).** Horrenbestez, auzoa toki lasaitzat hartzen da (auzoaren ezaugarri baikor nabarmenduen da, % 37,5ek nabarmendu baitu), eta “bizitzeko auzo ontzat” (% 84,3).

#### 104. irudia | (Huntsman-Inquinasa enpresa



Iturria | (Google Street View

- Hala eta guztiz ere, beste alde batetik, eta aldi berean, **nabarmena da kultura desberdineko herritarren arteko harremanik eza, batez ere auzora azken hamabost urteetan etorri direnen artean: herritarren % 77,1ek adierazi du lagun “guztiak” edo “gehienak” bere jatorri kultural edo etniko berekoak direla.** Diskurtsoetan ere jaso da jatorri desberdineko pertsonen arteko harreman eta ezagutzarik eza: “*Hemen inork ez du inor zirikatzen, baina... Askotan, hogeitabidaiari daude billabesan, eta ez dut bakar bat ere ezagutzen*” (NET).
- **Koexistentzia deserosoa da gehientzat.** Batzuetan, “mingarria” dela ere aipatzen dute auzokideek, batez ere hegoaldeko adinekoek, ohituago baitaude auzokideen arteko harreman sakon eta estuetara, elkar ezagutzera, “diskriminatu gabe” agurtzera, eta abar. Beste muturrean, atzerritarrek adierazi dute zailtasun handiak dituztela harremanak izateko. Halako oztopoak areagotu egiten dira auzoan elkartzeko gunerik ezaren ondorioz.
- **Diagnostikoan, etsaitasuna ere ikusten da, baina proportzioa baxua da (% 10,5). Etsaitasuna aspaldiko gatazken harira aipatzen da, gatazka horietako asko errotuta eta hitzez adierazi gabe geratu baitira.** Gainera, gorago aipatu dugun abandonuaren ondorioz, are larriagotzen da etsaitasuna. Normalean aipatzen ez diren errealitate gatatzuetako bat, hain zuzen, atzerritarren presentzia da. Etxabakoitzko herritarren % 65ek (atzerritarrak barne) uste du atzerritar gehiegi dagoela auzoan.

- **Hezkuntza-arloa erronka handietako bat da diagnostikoan. Gaur egungo egoera mugatua da, baina, aldi berean, aukera bat ere bada auzoko kulturarteko elkarbizitza sustatzeko.** Lekukotasunen arabera, interes handia dago auzokideek auzotik kanpoko ikastetxeetara ateratzeko duten joera gerarazteko eta ikastetxea auzoko kulturarteko elkarbizitzaren ardatz bihurtzeko.

105. irudia)(Urdanoz bizitegi multzoa



Iturria)(Google Street View

- Azkenik, **azpimarratu behar da auzoarentzat aukera bikaina dela kulturarteko elkarbizitzarako prozesu bat sustatzeko, aktibo garrantzitsua baita auzokide askok eta askok interesa eta parte hartzeko gogoia izatea.** Kontuan hartu behar da kulturarteko elkarbizitza hobetzeko bide nagusietako bat proiektu bateratuak bultzatzea dela, normalean harremanik ez duten pertsonak elkarrekin harremanetan jartzeko modu bat den heinean. Alde horretatik, talde teknikoan uste dugu elkarbizitzarako proiektua auzoari bultzada emateko ardatza izan daitekeela eta hari esker hobetu daitezkeela auzoko bizitza soziala eta harremanak.

# aurkibideak)(taulak, irudiak, grafikoak eta ilustrazioak

## Taulen aurkibidea

---

1. taula)(Etxebizitzak Iruñeko auzoetan (1991-2011) .....	14
2. taula)(Nazionalitatea eta jaioterria (Etxabakoitz, 2016) .....	20
3. taula)(Hiru soziabilitate-mota posibleen laburpena .....	25
4. taula)(Prozesuan egindako jarduera nagusien laburpena .....	31
5. taula)(Talde teknikoaren jarduerak.....	32
6. taula)(Biztanleria immigratuko taldearen (IAT) aldagaiak .....	34
7. taula)(Jatorria Nafarroan/estatuan duten biztanleen taldearen (NET) aldagaiak .....	35
8. taula)(Ijitoen taldearen (IJT) aldagaiak.....	36
9. taula)(Etxabakoitzen egindako eztabaida-taldeen ezaugarri orokorrak.....	37
10. taula)(Biztanleria immigratua/atzerritar jatorrikoak eztabaida-taldearen (IAT) profilak.....	37
11. taula)(Biztanleria nafarra/espainiar estatukoa eztabaida-taldearen (NET) profilak.....	37
12. taula)(Ijitoen eztabaida-taldearen (IJT) profilak.....	38
13. eta 14. taulak)(Etxabakoitzen egindako galdetegiaren fitxa teknikoak .....	40
15. taula)(Parte hartu duten eremuak, taldeak eta pertsonak.....	50
16. taula)(Jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua .....	51
17. taula)(Etxabakoitzen bizi diren eta jatorriz estatukoak diren pertsonak jaio ziren probintzia .....	66
18. taula)(Etxabakoitzen bizi diren pertsonen jaioterria .....	67
19. taula)(Pertinentzia-sentimendua .....	69
20. taula)(Norberak praktikatzen duen erlijioa.....	69
21. taula)(Etxabakoitzen bizi diren pertsonen ama-hizkuntzak.....	70
22. taula)(Euskararen ezagutza-maila (jatorria Nafarroan eta estatuan duen biztanleria) .....	70
23. taula)(Iruñeko auzoen arteko bizileku-aldaketak (1992-2009).....	78

## Irudien aurkibidea

---

1. irudia)(Etxabakoitz, auzoko hegoaldetik.....	11
2. irudia)(Etxabakoitz, auzoko iparraldetik .....	12
3. eta 4. irudiak)(Iruñeko anexoaren uneko argazkiak.....	13
5., 6. eta 7. irudiak)(Etxabakoitz, Barañainekiko mugan.....	15
8. irudia)(Murala, Grupo Urdánozen ondoan .....	19
9. irudia)(Industria-garapenaren espazio historikoak Etxabakoitzen .....	21
10. eta 11. irudiak)(Bertan behera utzitako espazio industrialak Etxabakoitzen .....	22
12. eta 13. irudiak)(Aniztasuna Etxabakoitzen.....	23
14. 15. 16. eta 17. irudiak)(Aniztasun kulturala Etxabakoitzen .....	24
18. eta 19. irudiak)(Auzoko jarduerak.....	26

20. eta 21. irudiak)(Proiektua auzoan aurkezten.....	31
22. irudia)(Talde teknikoaren lan-saioa .....	32
23. eta 24. irudiak)(Behaketa-lanak .....	33
25., 26., 27. eta 28. irudiak)(Eztabaida-taldeetarako espazioak.....	38
29. eta 30. irudiak)(Pretesta.....	39
31. eta 32. irudiak)(Inkestatzaileen formakuntza .....	40
33. irudia)(Informazio-orria, zenbait hizkuntzatan .....	41
34., 35., 36., 37., 38. eta 39. irudiak)(Landa-lana galdetegiarekin .....	41
40., 41., 42. eta 43. irudiak)(Talde teknikoa AMIA teknika lantzen .....	42
44., 45., 46., 47., 48. eta 49. irudiak)(Nerabe-taldearekiko dinamika .....	43
50. irudia)(Talde irekiaren (TI) deialdiaren hedapena .....	44
51., 52., 53., 54., 55., 56., 57. eta 58. irudiak)(Talde irekiaren (TI) dinamika .....	45
59. eta 60. irudiak)(Emaitzak aurreratzea Udaleko Gobernu Taldeari .....	46
61. eta 62. irudiak)(Emaitzak aurreratzea auzoko erakundeei .....	46
63. eta 64. irudiak)(Aurkezpen publikoaren berri zabaltzeko euskarriak .....	47
65. eta 66. irudiak)(Aurkezpen publikorako prestatze-lanak.....	47
67., 68., 69., 70., 71. eta 72. irudiak)(Emaitzen aurkezpen publikoa.....	48
73., 74. eta 75. irudiak)(Diagnosian parte hartu zuten pertsonen aintzatespena .....	49
76. eta 77. irudiak)(Nekez gertatzeko elkartzeen espazioa emaitzen aurkezpenaren ondoren	50
78. eta 79. irudiak)(Auzoaren egoera historikoa .....	52
80. irudia)(Iruñeko hiri-garapenaren bilakaera urteka (1929-2014).....	53
81. irudia)(Etxabakoizko behar historikoak (1967) .....	54
82. eta 83. irudiak)(Auzoko irudiak .....	55
84. irudia)(Denda itxita, Etxabakoitzen.....	58
85. eta 86. irudiak)(Etxabakoizko irudiak.....	62
87. irudia)(Grupo Urdánozen airetiko bista, eraiki ondoren.....	63
88. irudia)(Lizarrarako errepidea moztuta laurogeiko hamarkadan.....	75
89. eta 90. irudiak)(Etxebizitzak Etxabakoitzen .....	82
91. eta 92. irudiak)(Etxabakoizko barrutia eta atalak .....	83
93. irudia)(Abiadura handiko trenaren (AHT) geltokiaren garapen-proiektua .....	88
94. eta 95. irudiak)(Nerabeekin egindako diagnosi-ariketen emaitzen irudiak.....	89
96. irudia)(Gizonak eta emakumeak berdintasunaren alde.....	90
97. eta 98. irudiak)(Etxabakoizko topaguneen irudiak .....	105
99. eta 100. irudiak)(Etxabakoizko gazteentzako topaguneen irudiak .....	106
101. irudia)(Nicasio de Landa ikastetxe publikoa .....	113
102. irudia)(Arostegi etorbidea .....	115
103. irudia)(Remiro de Goñi kalea .....	116



104. irudia)(Huntsman-Inquinasa enpresa .....	117
105. irudia)(Urdanoz bizitegi multzoa.....	118

#### Grafikoen aurkibidea

---

1. grafikoa)(Etxabakoizko biztanleriaren bilakaera (1858-2017) .....	14
2. grafikoa)(Etxabakoizko biztanleriaren bilakaera (2007-2017) .....	16
3. grafikoa)(Iruñeko biztanleriaren bilakaera (2007-2017).....	16
4. grafikoa)(Etxabakoizko biztanleria-piramidea (2017) .....	17
5. grafikoa)(Iruñeko biztanleria-piramidea (2017).....	18
6. grafikoa)(Etxabakoitzen pertzepzioa auzo abandonatu/marjinatu gisa .....	56
7. grafikoa)(Auzo abandonatuaren/marjinatuaren pertzepzioa (bizi diren eremuaren arabera) .	57
8. grafikoa)(Auzo abandonatuaren/marjinatuaren pertzepzioa (jaio diren tokiaren arabera) ..	57
9. grafikoa)(Zerbitzu publikoen gabeziari buruzko pertzepzioa.....	59
10. grafikoa)(Zerbitzu publikoen gabeziari buruzko pertzepzioa (bizitoki-eremuaren arabera)	60
11. grafikoa)(Zerbitzu publikoen gabeziari buruzko pertzepzioa (jatorriaren arabera) .....	60
12. grafikoa)(Auzotik gutxien gustatzen zaienari buruzko erantzunak.....	61
13. grafikoa)(Auzo multikulturalari buruzko iritzia .....	64
14. grafikoa)(Auzo multikulturalari buruzko iritzia (bizitoki-eremuaren arabera) .....	64
15. grafikoa)(Auzo multikulturalari buruzko iritzia (jatorriaren arabera) .....	65
16. grafikoa)(Etxabakoizko biztanleriaren jatorria.....	65
17. grafikoa)(Atzerritarren ehunekoa (Iruñeko auzoen arabera) .....	68
18. grafikoa)(Etxabakoizko atzerritar biztanleriaren bilakaera (2003-2017) .....	68
19. grafikoa)(Badakizu zer den euskara? .....	71
20. grafikoa)(Badakizu zer den euskara? (jatorriaren arabera) .....	71
21. grafikoa)(Euskaraz jakiteak integratzen laguntzen du? .....	72
22. grafikoa)(Euskararen ahalmen integratzaileari buruzko iritzia (jatorriaren arabera).....	72
23. grafikoa)(Euskararen irakaskuntza bultzatzeko beharrari buruzko iritzia .....	73
24. grafikoa)(Euskararen irakaskuntza bultzatzeko beharrari buruzko iritzia, jatorriaren arabera..	73
25. grafikoa)(Auzoko kultura-aniztasunaren inguruko iritzi positiboa.....	74
26. grafikoa)(Etxabakoizko biztanleriaren okupazioa .....	76
27. grafikoa)(Etxabakoizko biztanleriaren okupazioa (bizitoki-eremuaren arabera) .....	76
28. grafikoa)(Etxabakoizko biztanleriaren okupazioa (jatorriko herrialdearen arabera).....	77
29. grafikoa)(Etxebizitzen jabetzaren egoera Etxabakoitzen .....	79
30. grafikoa)(Etxebizitzen jabetzaren egoera Etxabakoitzen (auzoko eremuaren arabera).....	79
31. grafikoa)(Etxebizitzen jabetzaren egoera Etxabakoitzen (jatorriaren arabera).....	80
32. grafikoa)(Etorkizunean non bizitzea gustatuko litzaizuke? (jatorriaren arabera).....	81
33. grafikoa)(Non bizi nahiko lukeen eta non biziko dela uste duen (atzerritar jatorriko biztanleria) .....	81

34. grafikoa)(Ikasketa-maila (bizitoki-eremuaren arabera) .....	84
35. grafikoa)(Auzoko pertenezien sentimendua (bizitoki-eremuaren arabera) .....	87
36. grafikoa)(Auzoko biztanleen arteko kulturarteko harremana .....	91
37. grafikoa)(Auzoko biztanleen arteko kulturarteko harremana (jatorriaren arabera) .....	92
38. grafikoa)(Auzoko biztanleen arteko kulturarteko harremana (bizitoki-eremuaren arabera) .	93
39. grafikoa)(Auzoko harremanen kalitatea .....	94
40. grafikoa)(Auzoko harremanen kalitatea (jatorriaren arabera) .....	95
41. grafikoa)(Auzoko harremanen kalitatea (bizileku-eremuaren arabera) .....	96
42. grafikoa)(Harreman onak auzoko espazioetan .....	96
43. grafikoa)(Harreman onak auzoko espazioetan (jatorriko herrialdearen arabera).....	97
44. grafikoa)(Harreman onak auzoko espazioetan (bizileku-eremuaren arabera).....	97
45. grafikoa)(Jendeari auzotik gehien gustatzen zaiona .....	99
46. grafikoa)(Etxabakoitzi buruzko iritzia bizitzeko auzo on gisa.....	100
47. grafikoa)(Etxabakoitzi buruzko iritzia bizitzeko auzo on gisa (bizileku-eremuaren arabera)	100
48. grafikoa)(Kultura-aniztasunaren inguruko iritzi positiboa, jatorriko herrialdearen arabera.	101
49. grafikoa)(Jatorri bereko lagunak .....	102
